

Gertuko erakundeak eta Europakoa
aukeratzeko, hiru boto-kutxa eta hiru
boto-paper domekako hauteskundeetan / 2

X3



Herritarrek, Bergarako Udal Pilotalekuan, apirilaren 28ko Espainiako hauteskundeetan botoa ematen. IMANOL SORIANO

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Gaur, egubakoitza, gauerdian emango zaio amaiera hauteskunde kanpainari, eta guztia prest dago hauteskunde hirukoitza izango den honetarako.

Udal hauteskunderi dagokionez, 49.980 debagoiendar daude botoa ematera deituta domekan –gogoratu Leintz Gatzagan ez dutela hautetsontzirik jarriko–. 108 zinegotzi aukeratuko dituzte domekan, eta herri bakoitzak duen biztanleriaren arabera izango da zinegotzi kopurua ere. Hori horrela, Arrasaten, 21 zinegotzi aukeratuko dituzte; Bergaran, 17; Oñatin, 17; Aretxabaletan, 13; Eskoriatzan, 11; Antzuolan, 11; Aramaion, 9; eta Elgetan, 9.

Behin hauteskundeak pasata, ekainaren 15ean egingo dute udalen eraketa, eta ostean Mankomunitatea ere eratu behar dute. Debagoieneko Mankomunitateak 16 ordezkari ditu, eta horiek ere herrien biztanle kopuruaren arabera aukeratzen dituzte. Beraz, Arrasatek lau ordezkari izango ditu, Bergarak eta Oñatik hiruna, Aretxabaletak bi, eta Eskoriatzak, Antzuolak, Elgetak eta Leintz Gatzagak bana. Azken horretako ordezkariak karguan jarraitu behar du, hauteskundeak egin eta udal berria eratu arte.

Foru hauteskundeak

Udaletako ordezkariak gain, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako batzar nagusietakoak ere

Hiru boto-ontzi, eta hiru erabaki

Domekan egingo dituzte udal eta foru hauteskundeak, Europako Parlamentukoak, eta baita Nafarroako Parlamentukoak ere; Debagoieneko herri guztietan hiru hautetsontzi jarriko dituzte, beraz, Leintz Gatzagan izan ezik, han bi bakarrik jarriko dituzte eta

aukeratu behar dituzte herritarrek domekan –50.167 debagoiendar daude deituta–. Horrekin lotuta, azpimarratzekoa da "Euskadin bizi diren atzerritarrek" ezingo dutela botorik eman, legeari erreparatuta.

Batzar nagusi bakoitzean 51 batzarkide aukeratu behar dituzte herritarrek. Gipuzkoan lau barruti daude, eta Debagoiena Deba-Urola eskualdean sartzen da. Eskualde horretatik 14 ordezkari joango dira Gipuzkoako Batzar Nagusietara –Donostialdetik, 17; Bidasoa Oiartzundik, 11 eta Oria eskualdetik, 9–.

Arabako Batzar Nagusiei dagokionez, 51 batzarkide aukeratu behar dituzte arabarrek, eta hiru barruti daude: Aiara barrutiak sei batzarkide izango ditu; Gasteizek, 38; eta Lur Jaurek, zazpi. Aramaio azken barruti horretan sartzen da.

Udal eta foru hauteskundeetako errolda

Herria	Errolda
Antzuola	1.630
Aramaio	1.175
Aretxabaleta	5.432
Arrasate	17.349
Bergara	11.512
Elgeta	856
Eskoriatza	3.168
Leintz Gatzaga	187
Oñati	8.858
GUZTIRA	50.167

Barkosek karguari eutsiko dio?

Bestalde, Nafarroako Parlamentuko 50 diputatuak aukeratzeko eguna ere izango da domeka. 2015eko hauteskundeen ostean, UPN agintetik kendu zuen aldetaren Gobernuaren moduan ezaguna izan denak, Geroa Baik, EH Bilduk, Ahal Duguk eta Izquierda-Ezkerrak osatutakoak.

Ikusi egin behar da, ordea, aldaketa hori berretsiko den domekako hauteskundeen ostean. Izan ere, inkestek Navarra Suma koalizioari ematen diote garai-pena –UPN, PP eta Ciudadanos–. Hala ere, lauko gobernuaren osatzen duten alderdiak ere gertu izango litzateke garaileek. Ez da ahaztu behar, gainera, PSN bigarren indarra izango litzatekeela inkestean arabera, eta sozialistak erabakigarriak izan daitezkeela datozen lau urteetako Gobernuaren osaketan. Uxue

Barkosek Nafarroako lehendakari izaten segituko duen edo ez inognita handia da, beraz.

Debagoiendarrak batzarkide

Hainbat debagoiendar daude alderdi ezberdinetako zerrendetan, eta, beraz, batzarkide izateko aukerarekin. Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkide izateko aukera gehien dituztenak, inkestean arabera, ondorengoak dira: Mikel Biain oñatiarra EH Bilduko zerrendaburua izango da Deba-Urola barrutian; Aintzane Oiarbide Bergaran bizi den erreteriarra hirugarrena izango da EAJren zerrendan, eta Aitor Arantzabal bergararra laugarrena izango da EH Bildurenean. Horiez gain, Juan Luis Merino eskoriatzarra hirugarrena izango da Elkarrekin Podemosen zerrendan eta Oscar Garcia arrasatearra, laugarrena PSE-EErean.

Arabako Batzar Nagusietara begira jarrita, Pedro Elozegi Aramaioko EAJren alkategaia bigarren joango da EAJren zerrendan, eta Batzar Nagusietako presidente izateko hautagaia ere bada –gaur egun presidentea da–. Izaskun Moiuia oñatiarra, berriz, hirugarrena izango da EAJren zerrendan.

Nafarroari dagokionez, Koldo Martinez arrasatearra hirugarrena izango da Geroa Baien zerrendan –egun, alderdiko bozeramailea ere bada Parlamentuan–. Bestalde, Ainhoa Aznarez antzuolarra, gaur egun Parla-



mentuko presidente dena, Elkarrekin Podemosen bigarren zerrendakidea izango da.

Europar Batasuna, kolokan?

Europako Parlamentuko ordezkariak aukeratzeko hautetsontzia ere jarriko dute etzi Debagoienean. Hauteskundeok eguen batetik domeka batera bitartean egin behar izaten dituzte, legearen arabera. Beraz, herrialde batzuetan, atzo dagoeneko botoa emana zuten.

"Kontinente baten izaera definitzea" dago jokoan domekan, Mikel Lezamiz Mondragon Taldeko nazioarteko bisiten arduradunaren esanetan. Europar Batasuna momentu erabakigarria eta, aldi berean, arriskutsuan dagoela ohartarazi du. "Ikusteko dago datozen lau urteetan Europak etorkinak hartuko dituen edo ez, kontinente demokratikoa izango den edo ez. Eskuin muturrak etorkinak ez babestea dago jokoan eta, ondorioz, kontinente arrazista bat izatea edo ez izatea".

Eskuin muturra da "mehatxu nagusia", Lezamizen esanetan. "Ikusiko dugu eskuin muturrak

benetako indarra hartzen duen, edota ezkerreko, zentroko eta eskuineko alderdiek hartuko duten boterea. Eskuin muturra nagusitzen bada, etorkinek gaizki pasatuko dute, eta baita txiroek ere. Klase ertainak ere okerrera egingo du, eta pobrezia areagotu egingo da. Azken finean, eskuin muturraren filosofia neoliberalismo hutsa da", azpimarratu du hark.

"Mehatxu" horrekin Europar Batasuna bera kolokan egongo litzatekeela adierazi du. "Agin-tea eskuratuz gero, mugak itxiko lituzkete estatuetan, eta estatuak orain dutena baino botere handiagoa izango lukete Europar Batasunarekin alderatuz. Oso patriotikoak izango lirateke Europako estatuak, eta muga-zergak ezarriko lituzkete. Datozen lau urteetan hori datorkigu, eskuin muturrak irabaziz gero".

Brexit-a ere bada hauteskunde hauetan eragina izango duen beste faktore bat. "Erresuma Batuan eskuin muturra nagusitzen bada, orain arte baino askoz ere errazago aukeratu dute Europar Batasunetik irte-

Hauteskundeen jarraipena Goienan

Goiena Komunikazio Taldeak lantalde berezia izango du domekan, eta hauteskunde guztiei jarraipena egingo die. *Goiena.eus* webgunean une oro eguneratuko da informazioa, goizean hasi eta gauerdira bitartean. Goiena telebista programazio berezia eskainiko du, 19:45ean hasi eta gauerdira arte, hainbat gonbidaturen analisiekin.

Azkenik, biharamunean, GOIENA aldizkaria argitaratuko da, eta harpidedunei banatuko zaie euren etxeetan. Horrez gain, bailarako herrietako hainbat gunetan doan eskuratu ahal izango da –udaletxeak, kafetegiak, gasolindegiak, tabernak, liburutegiak...–.

tea. Eta hori gauzatzen bada, beste herrialde batzuek ere irten gura izango dute".

Europako legediari dagokionez, "orain ere botere handirik ez dauka", Lezamizen arabera. "Europako Parlamentuak ebatzen eman edota konponbideak egiten ditu soilik, eta, sarritan, ezin izaten ditu lege erabakigarriak egin. Eskuin muturrak irabaziz gero, are urriagoa izango litzateke lege erabakigarriak gauzatzeko aukera, baita ebatzen emateko ere. Europako Parlamentuaren zein Europar Batzordearen boterea gutxitu egingo litzateke".

Hala ere, eskuin muturrari aurre egiteko aliantzak sortuko direla uste du. "Eskuin muturrak gora egingo duela esnago nuke, baina betikoez irabaziko dute Europa osoan; hau da, eskuineko partiduek. Bigarren indarra sozialdemokratek osatuko dute. Eskuin muturrari aurre egiteko, aliantzak egingo dituztela uste dut. Izan ere, alderdi batek ez du gehiengo edukiko: kristaudek, demokratik eta sozialdemokratik bat eginda, edota erdikoekin eta berdeekin elkartuta, ez dio-

te utziko eskuin muturreko alderdiei Gobernuan egoten", nabarmendu du.

Adrian Zelaia Ekai Centerreko presidentea ere ikusten du eskuin muturraren mehatxua, baina ez du uste gehiengo lortuko dutenik. "Euroeszeptikoez eta ultraskuinak pisu handiagoa lortuko dute Europako Parlamentuan, baina ez gehiengo. Igoera horregatik eta Europa osoan gertatzen ari diren aldaketan ondorioz, Europa osoa joango da aldatuz. Parlamentuaren aldaketa, gehienez, Europa osoan datorren aldaketa hori bizkortzeko urrats bat izan daiteke, besterik ez".

EH Bildu eta EAJ Europan

Debagoieneko bi alderdi nagusiak beste alderdi batzuekin aurkeztuko dira Europako hauteskundetara. EH Bilduri dagokionez, ERC eta BNG alderdiekin batera aurkeztuko da, Orain Errepublikak izenarekin. EAJ, berriz, Coalicion Canaria, Compromiso Por Galiza, Geroa Bai, Proposta Per Les Illes eta Democrates Valencians alderdiekin aurkeztuko da, CEUS izenarekin.

**Goi Mailako
HEZIKETA ZIKLOAK**

2019-2020

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Ate Irekien Jardunaldia

Maiatzak 25 (larunbata) 11:00

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



Debagoieneko EH Bilduko hautetsi taldea, asteazkenean, Oñatiko Ur Jauziak enpresan. LARRAITZ ZEBERIO

Energia berriztagarriak hizpide EH Bilduk

Debagoieneko EH Bilduko alkategaiek eta hautetsiek Oñatiko Ur Jauziak udal enpresaren aurrean egin zuten agerraldia eguzten goizean. Bertan, autokontsumo energetikoaren aurrean EH Bilduk duen "konpromisoa" azpimarratu zuten

Elkarrekin Podemoseko hautagaiak Arrasaten

Elkarrekin Podemosek hauteskunderi begirako ekitaldi nagusia egin zuen astelehenean Arrasaten, Biteri plazan. Hainbat herritar eta alderdikide bildu ziren ekitaldian, eta hizlariak gizarte politikez, feminismoaz eta ekologismoaz aritu ziren

Amaia Zabala Tolosa ARRASATE
Lander Martinez Elkarrekin Podemoseko idazkari nagusiak eman zion hasiera ekitaldiari, eta bertaratu ziren herritarrei eta alderdikideei eskerrak eman hasi zuen saioa. Horrekin batera, eta, besteak beste, maiatzaren 26ko hauteskunderi begira aukerarik onena Elkarrekin Podemos dela adierazi zuen: "Kanpainako egun hauek beroak izaten ari dira Gipuzkoa osoan, eta beste alderdiek ez dute proposamen seriorik egin. Beraien artean ari dira borrokan. Hala, politika aurrerakoiak egitea nahi duenarentzat, Elkarrekin Podemos da aukerarik onena.

Gu hor egongo gara, beti aurrera begira, eta gizarte honetako aniztasuna errespetatuz".

Proiektu eraldatzailea

Igor Urizar Arrasateko Udalerako hautagaiak, bestalde, herriarrentzat onena nahi dutela adierazi zuen, eta euren ardatz nagusiak zeintzuk diren adierazi: "Gizarte politikan, feminismoan eta ekologismoan oinarritutako proiektu eraldatzailea da gurea".

Horrekin batera, prekarietatea ere izan zuen hizpide Urizarrek, eta adierazi zuen Arrasaten kiroldegiarekin, esaterako, "dirutza" gastatu nahi dutela eta

pobrezia, bestalde, 400.000 euro soilik bideratu dituztela. Hala, herritarrei Elkarrekin Podemosen aldeko hautua egiteko eskatuz amaitu zuten hitzaldia.

Isabel Salud Ezker Anitzako koordinatzaile nagusia, Marivi Eizagirre Elkarrekin Podemoseko Batzar Nagusietarako hautagaia, Juan Luis Merino Arrasateko Udalerako Elkarrekin Podemoseko hautagaia, Eva Abuin Arrasateko Udalerako Elkarrekin Podemoseko hautagaia eta Arantxa Gonzalez Elkarrekin Podemoseko Donostialdeko hautagaia eta Batzar Nagusietarako hautagaia ere bertan izan ziren.

Amaia Zabala Tolosa OÑATI

Energia berriztagarrien ataleko egitasmoak izan zituen hizpide Batzar Nagusietarako Deba-Urolako zerrendaburu Mikel Biainek eguzteneko agerraldian. "Oñatiko Ur Jauziak erakundearen arteko elkarlanaren adibide garbi bat da. Bertako kapitalean parte hartzen dute Eusko Jaurlaritzak, Oñatiko Udalak eta, duela urtebetetik, baita Goiener kooperatibak ere. Uste dugu energiaren alorrean agertoki berri bat irekitzen ari dela, eta, nola ez, energia berriztagarriek berebiziko protagonismoa hartuko dutela. Horren adibide da autokontsumo erregulatzeko apirilean onartu berri den errege dekretua".

Bide horretan erakundeek "benetan" lagundu behar dutela adierazi du Biainek: "Gure ustez, aukera handiak zabaltzen dira, eta, zentzu horretan, foru aldundiek konpromisoa hartu behar dute. EH Bildutik konpromisoa hartzen dugu foru gobernuan gaudenean autokontsumo energetikoa aurrera emateko partikularrei eta herritarrei bideratutako dirula-

guntza lerroak ezarriko ditugula".

Ur Jauziak ezagutzeko bisita

Agerraldia egin ostean, Mikel Biainek Oñatiko Ur Jauziak udal enpresa erakutsi zien gainerako hautetsiei. Bisita horretan, nola sortu zen, zein bilakaera izan duen eta gaur egun nola kudeatzen den azaldu zien Batzar Nagusietarako Deba-Urolako zerrendaburuak.

Otegi eta Izagirre, Arrasaten

Bestalde, Kanpainako ekitaldi nagusia egin zuen Arrasateko EH Bilduk maiatzaren 18an Kulturatego areto nagusian. Herriar ugari bildu ziren, eta Arnaldo Otegi, Juan Karlos Izagirrek eta Maider Morrasedek esandakoak entzuteko aukera izan zuten bertaratuak.

EH Bilduren ekitaldia Donostian

Maiatzaren 19an, berriz, EH Bilduk Gipuzkoako ekitaldi nagusia egin zuen Donostian, eta Debagoieneko herrietako alkategaiek ere bertan izan ziren. Carrere, Donostiako alkategaia, Otegi eta Izagirre mintzatu ziren.

ULMA

Mantenición, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Eguna: 2019ko maiatzaren 31an

Ordua: 08:30ean lehen deialdia eta 09:00etan bigarrena

Lekua: MU Enpresagintzako auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BAZKIDEAK IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2018KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2019KO GESTIO PLANA BERRESTEA
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2018KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO
 - 4.1. 2018ko ekitaldiako banako urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
 - 4.2. 2018ko ekitaldiako urteko kontu bateratutako aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA, 2018KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
 7. 2018KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA
 - 7.1. 2018ko ekitaldiako emaitzak banatzea
 - 7.2. Borondatezko Erreserba Fondoak banatzea
8. POGU III-REN II. IDAZPURUAREN 1.3.3, 1.4.2 ETA 2.2 ATALAK ETA III IDAZPURUAREN 2.2 ATALA ETA BARNE ARAUDIAREN 42, 43 ETA 82 ARTIKULUAK ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN HIRUGARREN ETA LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRAK GEHITZEA, FONDO PROPIOAK SENDOTZEKO
9. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)
 - 9.1. 2018ko IPDKetatik egindako erabilerraz buruzko deialdia
 - 9.2. 2019ko IPDK-ko zehazketak aplikatzeko proposamena
 - 9.3. ULMAren 2019ko jardura sozialaren aldean azalpena
10. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
11. ZAINZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
12. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
13. AHALMENAK ESKUORDETZEA
14. GALDE-ESKEAK

OHARRAK Batzidei proposatzen die ULMA Mantenición, S. Coop-en ("Kooperatiba") egitasmo erakundeak dituzten urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuak kargu fiskalariak egindako gurea onartzea, Batzar Nagusien deialdiaren erpin zehar aurreratu izan diren. Hala ere, batzide gurea jakingarria ez da Kooperatiba-erakundearen dimentsio erakunde berrak azalpen eta POGU III-en proposamena aldatzea truke oso eta aldatuta honen jakingarria onartzea, eta hori duen erakunde edo baldintza eratu dezitela.

KONTSEILU ERREKTOREA
Oñati, 2019ko maiatzaren 13a

Zurekin

DEBAGOIENA

gara



ehbildu



Debagoieneko herrietako EAJko alkate eta alkategaiak, asteazkeneko bileraren ondoren. JULEN IRIONDO

Eskualdeko aldaketak goraipatu ditu EAJk

Mankomunitatean bilera egin zuten eguaztenean Debagoieneko herrietako alkategai jeltzaleek, erakundearekin eta eskualdearekin lotuta agintaldiaren balorazioa egiteko; Debagoiena Gipuzkoan "erreferente" bihurtarazi dutela azpimarratu zuten

Amaia Zabala Tolosa DEBAGOIENA

Lehenik eta behin, hondakinen arloan egindako aldaketa aipatu zuten: "Kudeaketan eta akordioetara iristeko gaitasunean gabezia handia egon zen aurreko agintaldian, eta hori kalera eramanean zen; kalean krispazio eta gatazka egoeran geunden, eta elkarbizitza urratuta zegoen. Akordioetara iristeko gure gaitasuna mahai gainean jarri genuen, herri bakoitzak bere bidea topatu du eta gure herri guztietan, gaur egun, eroso eta lasai jardun gaitezke, bilketa sistema aldatuta. Eta ez ditugu gure helburuak jaitsti; alderantziz, hobetu egin dugu, eta kaleko giroa hobetu egin da", zioen Bergarako alkate eta EAJko alkategai Elena Letek.

%77ko bereizketa tasarekin Debagoiena Gipuzkoako lider dela azpimarratu zuten jeltzaleek. Aurrera begira, edukiontzien irisgarritasuna hobetzeko neurriak, merkataritza sektoreko tasak hobetzeko ahalegina eta sensibilizazioarekin jarraitzea iragarri zituzten.

Nabarmendu zuten beste gaitzat izan zen argiteria publikoa-

rena, Madrildik jasotako mailaguarri eta EVERen dirulaguntzari esker egindako aldaketa: "Argiteriaren egoera oso eskasa zen, argi kopurua oso eskasa zen, eta kostua altua zen; hori bideratzeko, bailara mailan 4.100 argi puntu aldatu ditugu mailaguarri honen bitartez, jaitsti dugu kontsumoa nabarmen, eta, nola ez, urrats ekologikoaren neurria ere hobetu dugu nabarmen", zioen Letek; urtean 330.000 euro aurreztu eta 772 kilo CO2 gutxiago sortuko dira, EAJren arabera.

Bestalde, Debagoiena gizarte zerbitzuen mapa duen Gipuzkoako lehen eskualdea dela adierazi zuten.

Deskargako errepidea

EAJk Deskargako autobide zatiaren arazoari irtenbidea eman izana ere goraipatu zuten eta jakinarazi zuten milioi eta erdi euro hideratuko dituztela errepide zaharra hobetzeko: "Lau urte hauetan erakutsi dugu beste instituzioekin elkarlanean jarduteko ahalmena badaukagula", azaldu zuen Maria Ubarretxena Arrasateko alkategaiak.

Arrosa banaketa egingo du gaur PSE-EEK Arrasaten

Urtero legez, maiatzaren 26ko hauteskunde kanpaina amaitzeko, Arrasateko PSE-EEKo hautetsiek -zerrendako aurreneko seiak- arrosa banaketa egingo dute gaur, barikua, 11:00etan Jose Maria Arizmen-diarreta plazan.

Arratsaldean ere beste saio bat egingo dute, hautetsiak Santa Marina plazan egongo baitira herritarrei harrera egin eta arrosak banatzen.

Izan ere, Arrasateko sozialistek aspalditik dute hauteskunde kanpainaren hasieran eta amaieran arrosa banaketa egiteko ohitura.

Maiatzaren 10ean, kanpaina hasierarekin batera ere egin zuten banaketa, eta, orduko hartan, Oscar Garcia Arrasateko zerrendaburuaz gain, Denis Itxaso Diputaziorako hautagai nagusia ere bertan izan zen. Aldi hartan, Itxasok herritarrei esan zien EAJren eta EH Bilduren aurrean "alternatiba eraginkor bakarra" PSE-EE dela.



LANA KOOP. OHIKO BATZAR NAGUSIA

Gure kooperatibako Estatutu Sozialeko 43.artikuluak dion bezala, kontseilu errektoreak LANA Kooperatibako ohiko batzar nagusia antolatzen du. 2019ko maiatzaren 31n izango da, 16:00etan lehen deialdian eta 16:30ean bigarren. Batzarra Enpresagintzako Fakultatean izango da -Ibarra Zelaia 2. Oñati-, ondorengo aztergai zerrendarekin:

AZTERGAI ZERRENDA

1. 2018ko Batzar Aruntaren agiria onartzea
- 2.- 2018ko Memoria, Kontuak eta Balantzea aztertzea eta onartzea
- 3.- Eraltzen banaketa
- 4.- Lege eta Araudizko erabakiak
- 5.- 2018ko Gestio Plana aztertzea eta onartzea
- 6.- Kooperatibaren Estatutu Sozialeko 35, 36 eta 38. artikulua aldatzea
- 7.- Kooperatibaren Bame Araudiko 33, 34, 38, 39, 40 eta 43. artikulua aldatzea.
- 8.- Kontseilu Errektorea beritzea
- 9.- Dibisio eta Korporazioko enpresen buruzko informazioa
- 10.- Beste batzuk, erregu eta galderak Arrasaten.

Kontseilu Errektoreko lehendakaria
Oñati, 2019ko apirilaren 30a



T. DE ARANZADI IKASTOLA KOOP. ELK.aren OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Gure kooperatibaren Baltzuren estatutuen 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, Artezkaritza Kontseiluak T. DE ARANZADI IKASTOLA, KOOP. ELK.aren Ohiko Batzar Nagusira dei egiten du. Batzarra 2019ko ekainaren 5ean egingo da, **arratsaldeko seietan** lehen deialdian eta, hala balegokio, **sei eta erdietan** bigarren deialdian, Bergara herriko Herrilagunak kaleko Aranzadi Ikastolan. Hona hemen:

GAI-ZERRENDA

1. Akta onartzeko kideak izendatzea
2. Aurreko bilkurako aktaren onarpen bostena irakurtzea
3. 2018/19 ikasturteko memoria
4. 2019/20 ikasturteko egitasmoa
5. 2018. urteko kontuen kudeaketa aztertu eta, hala balegokio, onestea
6. Galdu-irabazien banaketa
7. 2019. urteko aldizkako kuoten onarpena
8. Artezkaritza batzordeko kide berriak hautatzea
9. Galde-erantzunak

Bergaran, 2019ko maiatzaren 24an

Lehendakaria
Olatz Okaso Garitano

Nerabeen bikote harremanak aztergai

Medicus Mundi Gipuzkoak, Farapi Kooperatiba Elkarteak eta Bergarako Ipintza Institutuak, elkarlanean, nerabeen bikote harremanak online ikuspuntutik aztertu dituzte, eta ondorioekin gida bat kaleratu; Bergarako udaletxean aurkeztu zuten, astelehenean

Amaia Zabala Tolosa BERGARA

Ikerketa egiteko eta gida didaktikoa gauzatzeko, Gipuzkoako hainbat gaztelekuren eta ikas-tetxeren laguntza izan dute; Bergarako Ipintza Institutuarena, esate baterako. Hori dela eta, elkarrekin joan ziren Bergarako udaletxera, Hezkuntza, Gazteria eta Partaidetza Sailari gida aurkeztera eta ikerketaren ondorioak kontuan hartuta harreman hauek zelan kudeatu azaltzera.

Hain zuzen, Medicus Mundi Gipuzkoak gaineratu du gida horien edukien inguruko jardunaldi batzuk egitea aurreikusitako bileran.

Ipintza Institutuko Begoña Onkala irakasleak "oso positiboki" baloratu du proiektua: "Argitaratu duten materiala oso egokia eta praktikoa da eta institutuan egoki erabili ahal izateko beste formakuntza saio bat jasoko dugu aurki irakasleok".

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako argitalpen horiek elkarlanean gauzatu dituzte Medicus Mundi Gipuzkoak, Farapi Kooperatiba Elkarteak eta Euskal Herriko Unibertsitateak, Medicus Mundi Gipuzkoak lankide duen Peruko Movimiento Manuela Ramos erakundearekin batera.

Arrail digitala

Ikerketaren ondorio "nagusia" gazteen eta helduen arteko arrail digitala da: "Helduek ulertu eta onartu behar dute nerabeen arteko harremanak beste modu batean eraikitzen direla, baina horrek ez du zertan negatiboa izan. Sare sozialak kriminalizatzeari utzi behar diote eta munduari buruzko euren ikuskera deseraiki, nerabeek bizi duten errealitatearen inguruko ulermen egokiagoa eraikitzeko", azpimarratzen du Maggie Bullen Euskal Herriko Unibertsitateko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saileko irakasle eta ikertzaile taldeko kideak.

Laboratorium museoak standa izango du Kurasaalean

Maiatzaren 26tik 30era bitarte, Espainiako Kimika Erakundearen 37. biurteko topaketa egingo dute Donostian, Kurasaalean, eta aurten, Laboratorium museoak standa izango du bertan. Horretaz gain, Donostiatik autobusak antolatu dituzte Bergarara, Laboratorium museoa gertutik ezagutzeko, topaketaren lehenengo eta azken egunetan, hi-

laren 26ean eta 30ean, hain zuzen ere.

Topaketa horretan, Estatu mailan kimika arloan egin diren ikerketa nagusien berri emango dute, eta, horretaz gain, bertaratuek ikertzaileekin hitz egiteko aukera izango dute.

Laurogei hizlarik baino gehiagok hartuko dute parte bost eguneko topaketa horretan eta mila lagun inguru espero dituzte. Bi urtez behingo kimikarien topaketa hau erreferente da Estatuan.

St. Pauli eguna egingo dute zapatuan Arrasaten

Arrasateko Beste Bat! St. Pauli taldekoek bederatzigarren St. Pauli eguna egingo dute zapatuan. Baina aurtengoa berezia izango da: Oñatiko Larraña etxeko errefuxiatuak gonbidatu dituzte jaiaren parte izan daitezen.

"St. Pauli futbol taldea berezia da, batez ere, euren estatutuetan jasota dagoelako sexismoaren, arrazakeriaren eta homofobiaren

aurka daudela. Hala, St. Pauliren fan klub guztiek printzipio horiek propio hartzen dituzte; baita guk ere, noski", azaldu du Beste Bat! taldeko kide Dirk Morrenweiserrek.

Hala, urtero legez, Iturripen jokatuko den lagunarteko futbol partidu batekin hasiko dute festa eguna. Ostean, familia argazkia aterako dute Herriko Plazan -14:15ean- eta gero, bazkaria egingo dute Montzon elkartean. Ondoren, kontzertuak izango dituzte.

HEMEN

eaj pnv

EAJ-PNV.EUS

EMAN BOTOA

Zure herrian agertu ez eta bestean tokirik bai?

AITOR ZUBIZARRETA

ESKORIATZA

Udal hauteskundeetarako hautagaien zerrendak begiratzean, hainbat gogoeta etorri zaizkit burura. Lehenbizikoa, hainbat zerrendatan ezagutzen ez ditugun hautagaiak daudela. Sortzen diren lehenbiziko galderak: nortzuk dira? Nongoak dira? Eta niretzat garrantzitsuena, zer interes izango dute gure herriarekiko? Ezagutzen al dute gure herria? Eta aurkezten direnez, zein interesek bultzatzen dute hautagaitza osatzeko?

Bigarren gogoeta izan da EAJko zerrendetan zenbait hautagai independente bezala agertzen direla. Horrek gai ezberdinetan alderdiko norabidearen aurka joan daitezkeela esan nahi du? Edo alderdiko kuotarik ez ordaindu arren EAJk ezarritako norabideak inongo eragozpenik gabe jarraitzeko prest daudela? Bigarren aukera honen alde egingo nuke.

Baina hirugarren egoera batek ere eman dit atentzioa. Gure herrian, Eskoriatzan, EAJko zerrendetan gehiengo absolutua independentetek osatzen dute eta, aldi berean, inguruko herrietara esportatzeko hautagaiak, alderdiko militanteak direnak, baditu. Esportazio honen adibidea Antzuolan daukagu. Eskoriatzako PNVko politikari militante profesionala izan eta Antzuolako zerrendetan agertu. Zergatik ote? Agian, EAJren filosofia Antzuolan ondo finkatu dadin ezarri dute eta misio helburua betetzen du. Edo kudeaketan laguntzeko bere esperientzia eskaintzeko dago zerrendetan? Ez ditut benetako arrazoiak ezagutzen, baina apur bat arraroa da egoera. Zuzenena, nire iritzian, bizi zaren herrian agertzea eta horren alde zure lana eta esfortzua eskaintzea litzateke. Urrutitik ezagutzen duzun herriari, edo

bisitan ezagutzen duzun hori apur bat arrotza ez al da izaten? Dena dela, ez dut zalantzan jartzen arrazoi ezberdinak egongo direla, eta bidezkoa da opa izatea bai antzuolarrei eta kanpotik agertutako hautagaiei hilaren 26ko hauteskundeetan zortzerik onena. Hala bedi.

'Bildung'

JULEN MENDIZABAL ELEZKANO

ARRASATE

Filosofia jorratzen duen aldizkari frantses batean irakurri nuen Alemaniako Argien mendean *bildung* hitza *kultur* hitzarekin lehiatu zela, Emmanuel Kant eta Johann Gottfried von Herder aurrez aurre ezarri.

Kant-entzat, *kultur*-en defendatzailea, zibilizazioaren prozesua arrazoiaren garapenaren bidetik egiten da, batez ere. Herder-entzat, aldiz, bizi izandako iraganarekin, sentimenduekin eta tradizio sekularrekin du lotura eta *bildung*, sakontasuna duena eta erromantikoentzat kutuna dena, jakintzen transmisioa kontzientziak uniformizatu gabe egiten du. Wilhem von Humboldt Berlingo unibertsitateko sortzaile eta Euskal Herriaren lagunak teorizatu zuen, eta unibertsitate horretako irakasle famatuena izan zen Georg Wilhelm Friedrich Hegel-entzat, *bildung* norbanakoarengan natura eta kultura hezuramaitzen duen hezkuntza eredu gorenena da. Iritziak zalantzan jarritz, norbere burua janzteko ekinaldia da, gogoia, bihotza, norberekotasuna eta nortasuna, samurki bilduz. Bizipen kultural eta existentzialaren baturak norbanakoari forma ematen dio, norbanakoari askatasuna emanaz. Horrela, norbanakoaren jakintza eta gaitasunaren garapenak jendartea bera garatzera daramate, ez duelako inoiz unean uneko egoera soziopolitikoa bere horretan onartzen; kritika egiteko aukera du eta, azken batean, jendarteari erronka jotzen

dio, bere ideal gorenak berritu eta gaurkotu ditzan. *Bildung* herri batek bere nortasuna eraikitzeke duen modua da. Maiatzaren 26an, bozkatu EH *Bildung*.

Kontuz EH Bilduk "bertako ekonomia indartzeko" proposaturiko neurriekin

RAMON UGALDE GOROSTIZA

ARRASATE AURRERA!

ARRASATE

Zergatik dago hutsik Arrasate Altzariak zegoen eraikina, Errekalde kalean?

Kontuan hartuta Ezker Abertzaleak Arrasateko Udalean agintea izan zuen denboretan egindako ekimenak: Legarreko pabiloian egindako gestioaren ondorioz, hainbat enpresak alde egin zutela eta orain hutsik dagoela edo lokal askori huskeria bategatik ukatutako baimenak edo Osina inguruko industrialdean ezarritako baldintza gogorrak...

Horri gehitzen badiogu eurak izan direla alde zaharrari hainbeste kalte egin zion PER-en egileak eta euren jarduera urbanistikoz Arrasateri tonu gris eta triste hori eman diotenak...

Ez da handia EH Bilduren proposamenek izan dezaketen sinesgarritasuna. Aztertu dezagun ea zerekin datozen:

1-Ostalaritza eta merkataritza indartzea; Udalak emango dituen lanpostuak kalitatezkoak eta duinak izango direla. Hau ulertzeko, gogora dezagun Merkataritza eta Ostalaritza zinegotzigo bat sortu nahi dutela; enplegu horiek sail horretako funtzionarioentzat izango dira.

2-Etorkizuna Giltza Programa garatzea. Hau da, inork irakurriko ez duen txostena egitea.

3-Turismoaren inguruko plan bat egitea. Hau da, diru gehiago, inork irakurriko ez dituen txostenak egiteko. Kirolen inguruko turismoarena; batez ere, BTTren ingurukoa,

Lezetxikiko interpretazio zentroa, balizko industria museoak...

4-Enplegua sustatzeko ostalaritza eta merkataritza "uztartzea".

Ez du merezi zentzugabekeria eta ganoragabekeria zerrenda honekin jarraitzea.

Aurpegia gorritu barik ausartzen dira esaten aurreko agintaldian azokarako proiektu bikaina egin zutela. Maider Morrasede esango digu zenbat diru desbideratu zuten ekimen horretara. Baina azoka ez zuten ezertan hobetu, eta bertara doazen inguruko baserriarren egoera ere ez. Zenbat aspertu ziren baserriar gizajoak bilera haietan...

Arrasate Aurreran, mondragoetar guztion erabakete berdintasunean sinesten dugu eta ez dugu onartzen EH Bilduk Udalaren azpikontratuetan jarri nahi dituen baldintza sexistak -13 azpikontratuetatik 7 emakumeak izatea-.

Ekonomia indartzeko bidea ez da funtzionario kopurua justifikaziorik gabe gehitzea edo txosten absurdoak enkargatzea. Arrasatearren esku dago hau ez onartzea.

Aparkalekua bai, baina patixuan ez

LARRAITZ URIBESALGO, ASIER

LARRAÑAGA ETA NEKANE MIRANDA

'PATIXUAN APARKALEKURIK EZ!'

TALDEAREN IZENEAN

BERGARA

Bergaran inork ez du zalantzan jartzen aparkaleku arazo bat dagoela. Honen aurrean, zentuzkoa litzateke gaur egungo aparkaleku beharrak zeintzuk diren aztertzea eta diagnostiko tekniko bat edukitzea erdigunean lur-azpiko aparkaleku bat egiteko proiektua bideratu aurretik. Hemen ez da horrelakorik egin. Erdigunean aparkaleku bat egiteko erabakia hartu da mugikortasun azterketa bat egin aurretik. Ez da beste kokapenik aztertu aparkaleku bat egiteko eta ez da proiektu honen bideragarritasuna alderatu posible litezkeen beste

proiektu batzuekin, erdigunetik gertu eta plaza gehiagorekin.

Orain dela hamar urte egin zen Hiri Ordenazioko Plan Orokorrean jaso zen Seminarioko patioan aparkalekua egiteko aukera, eta ideia hori berreskuratu da hausnarketa eguneratu bat egin gabe. Gaur egun erdigunera doan trafiko bolumena handitzeak eta honek ibilgailu pilaketan, zarata mailan eta kutsaduran izango dituen inpaktuen gainean ez da azterketarik egin. Hainbat belaunaldik jolaserako eta aisialdirako erabili dugun Seminarioko patioa ez da bateragarria aparkaleku batekin.

Gure auzoetako bizilagunek beste konponbide batzuk eskatzen dituzte euren mugikortasunerako, besteak beste, ondo komunikatuta egotea garraio publiko hobea bati esker eta auzoak zerbitzugune izaten jarraitzeko bizirik mantentzea. Haur eta nagusientzat atsegin eta seguru den erdigune batek bertan lasai paseatzeko eta herriko denda txiketara gerturatzeke gonbidapena luzatzen du eta eremu hori erakargarriagoa bihurtzen da bai merkataritarako eta bai aisialdirako.

Bere momentuan egoki zirudien ideia batek ezin du baldintzatu etorkizuneko herri eredia. Gaur egungo aparkaleku arazoari ezin zaio aspaldiko konponbide bat eman eta azterketa tekniko eta ekonomiko eguneratu bat egitea gutxieneko baldintza da. Errotazio bidezko 86 aparkalekuk ez dute Bergarako aparkaleku arazo konponduko eta herri moduan atzera joango gara proiektu zahar honetan tematzeagatik. Aparkalekua egiteko beste aukera batzuk egon badaude, azter ditzagun.

Elgetako herriari mila esker

MIKEL LARREA ZABALO

GU GEU ELGETAREN BOZERAMAILEA

ELGETA

Hilaren 26an, udal hauteskundeak ospatuko dira,

eta, dakizuenez, aurten Gu Geu Elgeta taldea ez da aurkeztuko.

Duela lau urte sortu zen Gu Geu plataforma, hainbat egoera zirela medio, hala nola orduko egoera politikoa, EAJ alderdiaren aurkezpenik eza eta EH Bildu aukera politikoa bakarria izateko arriskua. Honen ondorioz, herriko hainbat pertsonok Gu Geu plataformaren sorkuntza bultzatu genuen, herriaren osasun demokratikorako onuragarria izango zelakoan.

Ilusioz betetako hauteskunde programa parte hartzaile bat osatu genuen, Elgetako herritarrei aukera berri bat eskainiz. 259 elgetarren botoak izan genituen, eta, hauen konfiantzari esker, Udalerako lau ordezkari atera genituen.

Idatzi honetan ez dugu nahi legealdiaren inguruko iritzirik eman. Beraz, ez ditugu hausnarketa autokritikoak aipatu, ezta EH Bilduren kudeaketari buruzko kritikak azalduko ere. Honen harira ez diegulako nahi elgetarrei boto erabakian eragina sorrarazi.

Hau guztia esanda, Elgetako herritarrei eskerrak eman nahi dizkizuegu, udal kudeaketan parte hartzeko aukera eman izanagatik.

Besterik gabe, hauteskunde hauetara aurkeztu zareten talde guztiei zorte ona opa dizuegu. Espero dugu elkartasun eta adiskidetasun bidean aurrera egiteko gai izatea.

Gu Geu Elgeta hauteskunde plataforma desagertu egin den arren, bere inguruan lanean aritu garenok Elgetaren etorkizunarekin konpromisoan jarraitzen dugu.

Udal euskaldun baten alde

EÑAUT MUXIKA OLASAGASTI

AED-KO LEHENDAKARIA
ARRASATE

Udal hauteskundeak datozela eta, AED elkarteak bilera eskatu die hautagaitzak aurkeztu dituzten alderdiei.

Bi alderdirekin ez beste guztiekin egoteko aukera izan dugu. PPrekin ez, haren hautagaitzaren berri berandu izan genuelako, eta PSErekin

ere ez, bilera egiteko bidali genizkion mezuei erantzun ez dielako.

Bi gairekin joan gara bilera horietara. Batetik, hautagai euskaldunak aurkezteko eskatu diegu, gutxienez lortzea espero duten zinegotzi kopururaino, udalbatzak euskaraz funtzionatuko duela bermatu dezaten, horixe baita Udal euskalduna izateko baldintza nagusietako bat. Bestetik, hurrengo legealdiari begira, euskararen arloan dituzten helburuez galdetu diegu. Harrera ona izan dugu, oro har. Urratsak egiteko prestutasuna. Igandeko emaitzek eta hurrengo urteetako ekintzek erakutsiko digute hala den.

Zubietako eskola zaharraren orubea, aisialdirako!

AITOR GARITANO ETA JOSE LUIS SASIAIN

ZUBIETABERRI AUZO ELKARTEAREN
BULTZATZAILIEN IZENEAN
BERGARA

Azken hilabeteotan, herritar askoren ahotan egon da gure auzoa eta bere egoera urbanistikoa. Eta, hauteskunde garaia iritsita, alderdi politiko gehien ahotan ere bai.

Batzuek auzotik pasata eta beste batzuek beraien agerraldi edo idatzietan, gure auzorako hitzak izan dituzte alderdi gehienek.

Nolabaiteko konponbideak ikusten hasteko aukera ematen digutelako, pozik egoteko arrazoiak baditugu, baina, zoritxarrez, triste eta haserre egoteko arrazoiak ere topatu ditugu azken egunotan. Hain zuzen, auzoa biziberritzeko bidean, bertan daukagun aisialdirako aproposa izan daitekeen gune bakarria desagertzeko proposamenaz ari gara.

San Lorenzo, Mugertza eta Zubietako auzoak lotzen dituen eskola zaharreko orubea txukundu eta eserleku, iturri, mahaitxo, ziburua, lorategi, eta abar egin beharrean, bertan etxe berriak eraikitzeke proposamena entzun berri dugu.

Gure aldetik, orube hori ardatz osoaren aisialdirako aukerak sortzeko erabiltzea

eskatzen dugu, gure bizi kalitatea hobetuko duela sinistuta.

Ez dira izango ez etxe berriak ezta aurpegi berriak gure auzoa biziberrituko dutenak. Argi daukagu.

Gure auzoari arnasa eman ahalko diotenak izango dira urbanistikoki XXI. mendea ezagutzea, irisgarritasuna bermatzea eta aisialdi eta zerbitzutarako aukerak sortzea; gure auzoa erakargarri bihurtu eta gaur egun hutsik dauzkagun etxeak bete eta beteta daudenak ez husten lagunduko dutenak.

Horren atzetik gabilta aspaldi eta horretan jarraituko dugu. Eta bide horretan, Zubietaberri Auzo Elkartearen sorreraren berri eman nahi dizuegu. Auzoaren berriztapena egia bihurtu dadin lan egin eta lortu bitartean, auzoaren degradazioa salatzen jarraituko duena.

Bi eredu Gipuzkoarentzat

ODEI IRIGOIEN AIZPITARTE OÑATI

Euskal Herrian sinesten dugunontzat Gipuzkoa mailan eredu bi, eredu kontrajarri bi eskaintzen zaizkigu. Herria vs Hiria –edo Y-rekin idazten da *Hyrria?* Zalantzan nago–.

Kudeaketa ez dela erraza, behar dela esperientzia eta beste aurpegiatu zaizkio EH Bilduri beste ereduaren aldetik. Agian, ez zaie arrazoirik falta jarrerara horretan lerratzen direnei. Kontuan hartzekoa da, baina, joko arauak lau hamarkadatan zehar Madrilgo Gobernuekin adostu dituztela, eta erosotasun faltarik ez dariela lehendakariari zein aldundietako diputatu nagusiei eta enparaei. Joko arau horiek ia-ia larrutik ordaindu dituzte Iñaki Errazkinek eta Ainhoa Intxaurrendietak, demokratikoki erraustegiaren proiektua geldiarazten saiatzeagatik. Ahaztu barik. Ameslari ausartak, herritarren nahiaren alde, edo kudeatzaile burugabeak; bakoitzak atera beza bere ondorioa.

Gipuzkoarren gehiengoak hautatu omen zuen Markel

Olano azken lau urteotarako, hala diot irakurri. Ez da guztiz gezurra, guztiz egia ere ez. Aldundirako hauteskundeetan parte hartu zuen herritarren gehiengoak, akaso, bere alde eman zuen boza, baina ez ziren gipuzkoarren gehiengoak. Igeldoko 2013ko desanexio erreferendumean ere ez, %72k hartu baitzuen parte parte, eta %61ek babestu baitzuen desanexioa. Gehiengo zabalagoa, herritar guztien %44 baita, kasik erdia. Baina igeldoarren bozak gutxiago balio ei du Ezkio-Itsasokoenak baino, eta Aldundiak onartu ez. Ezkio-Itsasoko gehiengo bai, onartu zuen, baina beti dago hori atzera bota dezakeen Madril bat. Inozoak, zer uste zenuten, ba.

Gipuzkoa indartsua aldarrikatzen du Olanok. Ez dut indartsua atsegin. Koloretsua, aniztasunean hezia... Hori atsegingarriagoa zait. Baina indartsua... Zer espero genezake, bada, *Queer teoriaren eta feminismoaren aurka* tesiarekin filosofian doktoretza eskuratu zuen norbaiten eskutik. Inork zalantzarik balu, zorionez, inguruan badauzkagu dozenaka militante feminista ideologia horren gaixotasun zantzuak gustura azal diezazkiguketanak. Nik ez dut indartsua izan nahi, nahikoa lan badut herritarra, euskalduna, eta abar izaten saiatzen, gainera indartsua izaten saiatzeko; zertarako?

Dagigun herriaren alde, dagigun herritarren alde, lagun diezaiozun Izagirriari Gipuzkoa herritik eta herriarentzat kudeatzen. Badakigu zein den gure hautua.

Botoaren esanahia eta garrantzia

AMAIA AZPIAZU ETA JUAN KARLOS GARITANO

ARRASATE

Nahiz eta agintaldia amaitu den eta guk Arrasateko hurrengo udalbatzan ez jarraitu, analisi bat egin nahi dugu. Gure eskerrik onena adierazi nahi diegu ere Gizarte Ongizate eta Enplegu/Pertsonal sailetan lagundu diguten pertsoneri.

Duela lau urte, arrasatearrek gure alderdian (EAJ) jarri zuten konfiantza, Maria Ubarretxena buru genuelarik. Aukera hori baliagarria izan zaigu Arrasaterako agindu genuen programa garatzeko. Arrasatearrek gudan jarritako itxaropenei erantzuteko.

Arrasate Gipuzkoako herri handiena da orain zero zorra duena eta Estatu mailan hirugarren Udala da biztanleko gizarte politiketan gehien inbertitzen. Era berean, eskura genituen baliabideen kudeaketa jasangarria eta arduratsua egin da, 22 milioi euroko inbertsioa eginez herrian; tartean, Juan Arzamendi Musika Etxe berriari eskainitakoa

Gainera, uste dugu Maria Ubarretxena buru duen taldeak estilo berri bat ekarri duela Arrasatera, adibidez: udaletxeko balkoian loreak, urik gabeko iturriak –San Frantzisko eta Iturbide egoitza– orain martxan dauzkagu, pareta ilunak izatetik pasa gara muralak edo monumentuak izatera – Gipuzkoa etorbidea, Amaia zinemako alboko pareta, eta abar–.

Erraza da ikuspegia galtzea, batzuetan ahaztu egiten zaigu gure bozaren indarra. Eta horrek egiten du balantza alde batera edo bestera joatea. Ez da gauza bera. Gobernu onak, hala-moduzkoak eta txarrak daudelako. Gure esku dago botoa ematea, Arrasateri etorkizun gehien emango dion aukeraren alde. Arrasatek ez du apurketa behar, jarraipena baizik, berriro atzeraka egin ez dezagun, iraganera.

Hurrengo legealdiari begira, Mari Ubarretxenak talde sendoa osatu du, konpromisoa eta dedikazioa duten pertsonekin eta inkorporazio berriekin.

Amaiak eta biok, nahiz eta lehen lerroan ez jarraitu, gure arloak ondo bideratuta laga ditugu, ekimen berriak proposatuta. Eta gure gure gure ordeztu sartuko diren pertsonen lanari eta ekimenei heltzea guk jarritako dedikazio eta ilusio berberarekin. Botoa eman diezaiogun Maria Ubarretxena buru duen ereduari!



ZABALIK

JON ETXEBERRIA

Herritarren konfiantza

Asteburu honetako hauteskundeak direla eta, herritarrok hitzordu hau ze testuingurutan bizi dugun galdetu diot nire buruari. Erantzunen bila azken Euskobarometroa jo dut, eta honako datu hauek aurkitu ditut: EAEko herritarren %75 ez dago pozik demokraziaren funtzionamenduari, herritarren bi hereni politikak gutxi edo batere ez die interesatzen eta herritarren %71,3k sentimendu negatiboak ditu politikarekiko. Hori gutxi balitz, honako hau ere gehitzen du txostenak: *Zalantzarik gabe, demokrazia sistema honekiko haserrea eta ezkortasun politikoa estu lotuta daude gizartean nagusi den desafekzio politikoarekin.*

Hitz gogorak eta kezagarriak, zalantzarik gabe.

Sentimendu hauen arrazoiak asko izan daitezke – ustelkeria kasuak, krisiak sortutako etsipena, alderdikeriak, eta abar–, baina, zalantzarik gabe, haztegi bikainak dira mugimendu populistendako.

IRUDIMENA ERABILI BEHAR DUGU EKIMEN ERAGINKORRAK MARTXAN JARTZEKO

Arazoa orokorra da eta mendebaldeko demokrazia sistemaren krisiaren erakusgarria da.

Sistema ez da perfektua eta hobekuntza larrien

beharra du: gardentasun eta parte-hartze maila handiagoak, zerrenda irekiagoak, justizia hobetuz, burokrazia arinagoa... Azken urteetan, zenbait erakundek bide horri ekin diote, herritarren konfiantza berreskuratu nahian. Horien artean, kurioso iruditu zait Belgikako Komunitate Germanofonoan martxan jarri dutena: zozketa bidez ekimen desberdinak aurrera eramateko bi organo eratu dituzte; batak gaiak proposatuko ditu eta besteak landu egingo ditu, ondoren gobernuari proposatzeko. Argi dago komunitatearen tamainak eragina duela –75.000 biztanle–, baina baita irudimena erabili behar dugula ekimen eraginkorrek martxan jartzeko.

George Bernard Shaw idazle irlandarrak zioen bezala, "demokrazia merezi dugun baino hobeto gobernatuak izango ez garela garantizatzen duen sistema da", eta, beraz, merezimenduak egitera behartuak gaude.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Euskaltzaindiaren keinua euskal bikoiztaileekin

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

[HTTPS://LABUR.EUS/LISWN](https://labur.eus/liswn)

'ARGIA'-N ARGITARATUA

Astelehen honetan hitzarmena sinatu zuten Bikoiztaile Euskaldunen Elkarteak (BIEUSE) eta Euskaltzaindiak, bi erakundeen arteko elkarlana bultzatzeko. Adostutako puntuei bakarrik erreparatu gero, nahiko konbenio tekniko delako pentsa dezake batek baino gehiagok: bikoiztaileak konprometitu dira Euskaltzaindiaren arauak eta gomendioak aintzat hartu eta zabaltzera, baita gramatika, lexikografia,

ortografia, onomastika eta euskalkien erabileraren inguruko kontsultak akademiari egitera ere, beste zenbait punturen artean.

Baina testuinguruak beste gauza batzuei ere begiratzea eskatzen du: urte hasieran euskal bikoiztaileek planto egin zuten. Esan zuten ez dutela Zinema Euskaraz egitasmorako pelikula gehiago bikoiztuko euren lan-baldintzak hobetzen ez diren bitartean, hauek maldan behera joaten ari baitira urtetik urtera, euskarara ekarritako ikus-entzunezkoen produkzioa bezala. [...]

Giro horretan, esanguratsuak dira Andres Urrutia euskaltzainburuak

astelehenean egindako adierazpenak. Bikoiztaileek urtetan eginiko "lan paregabea" azpimarratu zuen, "euskararen zabalkundeari eta sustapenari ekarpen azpimarragarria" egiten diotela gaineratu zuen [...]

Euskaltzaindia ez da sartzen, normalean, mota honetako lan-gatazketan. Ezohiko keinua da Andres Urrutiarena. Aliatu berri bat daukate bikoiztaileek? Akademiaren egoitza dagoen Bilboko Plaza Berritik bost metro geltoki besterik ez daude EiTren San Mameseko egoitzara. Zenbat denbora pasa beharko da BIEUSEk han ere hitzarmen bat sinatzeko?

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goyatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Bereziar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatikoko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Entzierroen aurrean milaka alternatiba topa ditzakegu"

MAITANE URIBE ULUAK DEBAGOIENA ANTIESPEZISTA TALDEKO KIDEA

Amaia Zabala Tolosa DEBAGOIENA Arrasateko San Juan jaietan, zezenen entzierroa dagoen ordu bererako, txaranga bat kontratatu du taldeak. **Zein da ekintza alternatibo honen helburua?**

Animalien esplotaziorik gabeko ekitaldiekin ere herritarrek dibertitzea posible dela erakustea da helburua, tradizioaren izenpean justifikatzen diren ekintza injustu hauek amaitzeko asmoz, guztiontzako errespetuzkoa den parranda jarraituz eta herritarren dirua aurreztuz, noski.

Iaz ere antolatu zenituzten ekitaldi alternatiboak Arrasateko jaietan; jendearen erantzuna ona izan zen?

Iaz, lehenengo urtea izan zen, ez genekien oso ondo zer erantzun izango genuen, Arrasaten zezenetara joateko zaletasun handia baitago. Jendearen erantzuna ezin hobea izan zen. Arrakasta handia izan zuen eta jendeak hausnartzeko tartea hartu



Maitane Uribe, Debagoiena Antiespezistako kidea. M. URIBE

zuen. Feedback horrek bultzatuta eta herritarrek horrela eskatuta, aurten ere apustu egitea erabaki dugu. **Bergaran ere zezen festak egiten dituzte; ekaineko jaietan,**

esaterako. Zerbait aurreikusi duzue egun horietarako?

Egia esan, gustatuko litzaiguke herri guztietara iristea, baina, oraingoz, ez dugu ez denbora ez errekurtsio askorik ekitaldi alternatiboak

nahi ditugun herri guztietan prestatzeko; honelako kasuetan, protesten edo kontzientziazio ekintzen aldeko apustua egiten dugu. Era ezberdinetan egin diezaiekegu aurre animaliekiko tratu txarrak dakartzaten ekitaldiei. Baina Aretxabaletako sokamuturrari ere alternatiba ezberdin bat eskaintzeko gogoia badugu. **Zezen festez gain, jaietako zein beste ekintzarekin ez zatozte bat?**

Gizakion dibertimendu hutserako animaliak erabili, erail edo esplotatuko dituen edozein ekintzaren aurka posizionatzen gara talde bezala. Herritar moduan moralitatez jokatzeko hasi behar dugu, eta edozein izaki bizidunen esplotazioa edo tratu txarrak ekarriko dituzten ekintzak festetatik kanpo utzi. Gaur egun, milaka alternatiba eraiki daitezke, guztiokiko errespetuan oinarrituak, eta, gainera, askoz ere merkeagoak. **Zuen ustez, Udalak debekatu egin beharko litzuke?**

Abolizionistak garen arren, kontziente gara debeku baten aurrean herriak ez lukeela ondo erreakzionatuko; beraz, pixkanaka entzierro egunak kentzen hasteari eraginkorrago deritzogu.

HAU BE BADOGU!

Hauteskundeak nagusi sare sozialetan



Domekako hauteskundeek bete dituzte aste honetan sare sozial ezberdinetako txio, iruzkin eta argitalpen gehienak. Horrela, #M26 traola erabiliena izan da txiolari euskaldunen artean, eta alderdi politikoen artean:

@haritzpg: "Hauteskunde kanpaina ez al dago 'eztabaida' gaindosia? Hedabide bakoitzak bere eztabaida nahi du, udal eta aldundirako... Gehienak errepikakorak, argudio eta eztabaida berberak batetik bestera #M26".

Bost euskal talde Lehenengo Mailan

Mailaz igo da Osasuna, eta 2019-2020 denboraldian bost euskal talde izango dira maila gorenean. #ItzuliGara #GorrizAmestu eta #OsasunaLehenMailakoaDa traolak *rending topic* izan dira:

@rubiareal20: "Reala, Athletic, Osasuna, Alaves, eta Eibar! Gora euskal taldeak eta gora Euskal Herria!".

@rafamungi: "Bost euskal talde eta bost entrenatzaile euskaldun! Osasuna danondako!".

Bizi osoko kartzelaldia Pablo Ibarrendako

Eguaztenean, gauerdian, eman zuten, Floridan, Pablo Ibarrekin lotutako sententzia -jatorri euskalduna duen estatubatuarra-. Azkenean, heriotza zigorra beharrean, bizi osoko espetxe zigorra ezarri diote Ibarri:

@amaia_uribe: "Ez da ona, baina pozez hartu dute senideek. Ezin dute Pablaren askatasuna ospatu, baina bizia bai. Heriotza zigorrera barik, bizi osorako kartzelaldira kondenatu dute #pabloibar".

ITURRI ONETIK

Arrasate Blues jaialdia uztailean

Arrasateko merkatarien elkarateak, Ibai-artek, blues jaialdia antolatu du uztailearen 19rako, 20rako eta 21erako. Arrasate Blues izena jarri diote ekitaldiari. Hainbat tabernatan eta Herriko Plazan antolatuko dituzte kontzertuak. The Song, Blues de Luxes, The Allnighters eta Kritikal Latin Blues taldeak izango dira, egun eta ordutegi ezberdinetan: arratsalde- iluntzean, gauean eta eguerdian. Ibai-artek hainbat aisialdi ekimenen bidez girotu nahi du herria, *Nik Arrstn!* leloa erabilita.

ALBISTE IZAN ZEN

2008-05-25

Euri-jasak kalteak eragin zituen Aretxabaletan

Udaberriko ekaitzak eragindako bat-bateko euri-jasa bortitzak hainbat kalte eragin zituen Aretxabaletan; bereziki, Durana kalea kaltetu zen, kalea erreka bihurtu baitzen. Hainbat etxabe, lokal eta garajetan kalteak izan ziren eta ertzainek eta suhiltzaileek gogor aritu behar izan zuten. Ez zen bestelako kalte edo ezbeharririk izan eta egoera berehala normaldu zen, baina irudi ikusgarriak utzi zituen ekaitzak.





EAJ, gizarte zerbitzuak "areagotzearen" alde

Iturbide egoitzan menpekotasun maila txikia duten nagusientzako arreta zentro bat jarri nahi dute, 30 lagunentzako edukierarekin. Horrez gain, etxez etxeko zerbitzu bat eskaini nahi dute, zaintza lanetan dabilzan senideen behar puntualak aseko dituen

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasateko EAJk agerraldia egin du asteon, gizarte zerbitzuetan hurrengo lau urteetan egin nahi dituztenak aditzera emateko. Maria Ubarretxena alkategaiak agintaldi honetan gizarte ongizatearen alorrean "egindako esfortzua" azpimarratu zuen, lehenik eta behin. Besteak beste, aipatu zituen elikagai bankua berriz martxan jarri izana, droga-menpekotasunarekin lotuta jarritako bi zerbitzuak eta horietako bat bikoiztu izana –kale hezitzaileen zerbitzua–, droga kontsumoa prebenitzeko ikastetxeekin egindako lanketa eta menpekotasun egoera dauden adindunen etxeetan suteen aurkako gailuak jarri izana. Egindako "esfortzu" horren erakusletzat jarri du gizarte ongizatean biztanleko inbertsioei dagokienez Espainiako hirugarren udalerrria izatea. "Arrasateko biztanleriaren %25ek 65 urtetik gora ditu, eta hauentzako zerbitzuak indartzeko apustua egin du Arrasateko EAJk", adierazi du Ubarretxenak.

Arreta zentroa Iturbiden

Iturbide egoitzan hutsik dagoen guneta bat –irudian seinatzen



EAJko hautagaiak, arreta zentro berriaren kokalekua seinatzen. XABI GOROSTIDI

ari direna– nagusientzako arreta zerbitzua emateko baliatuko dutela esan dute. Menpekotasun maila oso txikiko 30 lagun eman go lieke zerbitzua, eta udal eskumenekoa izango litzateke. Guneak 312 metro koadro izango litzateke, eta, besteak beste, 155 metro koadroko gela nagusi bat eta erabilera askotariko 50 metro koadroko gela bat.

Senideen behar puntualak

Ostean, etxez etxe eman nahi duten arreta zerbitzu bat jarri nahi dutela azaldu zuten, zaintzan

dabilzan familien unean uneko beharrak asetzeko: "Demagun zaintzan dabilen familiako kide batek ospitalera joan behar duela. Iraupen laburreko behar hori asetzeko etxez etxeko zerbitzu jarri nahi dugu".

Errespetu eske

Azkenik, eskaera bat ere egin zuten EAJk: "Kanpainako azken astean gaude, eta, ikusitakoak ikusita, errespetua eskatzen dugu Arrasateko alderdi politiko guztientzat, eta alkategai guztientzat".



Santa Teresan hiru igogailu

Asteazkenean, beste agerraldi bat egin zuten Arrasateko EAJko kideek; oraingoan, irisgarritasunarekin lotuta. Santa Teresan egin zuten, hain zuzen ere, auzo horretan jarri nahi duten igogailu sistemaren berri emateko.

Hiru igogailuko sistema

"Arrasateko EAJtik proposatzen duguna da auzoko irisgarritasuna hobetzeko hiru igogailuko sistema bat jartzea. Agintaldi honetan onartutako Mugikortasun Planak hemen igogailuak jartzea aurreikusten du, eta guk lehentasuna eman nahi diogu gaiari. Beraz, domekan irabazle izaten bagara, Santa Teresako igogailua egingo dugu hurrengo lau urteetan; eta baita Erguingoa ere", azaldu zuen Maria Ubarretxena alkategaiak.

Hiru igogailuetako lehena Elkano kaletik Gernika etorbideraino joango litzateke, eta Estrella taberna ingurutik Arrasate pasealekura igotzeko dauden eskailerak saihestea izango luke helburu. Bigarrena Gernika etorbideetik Galizia etorbidera igoko litzateke. Eta hirugarrena, eta "garrantzitsuena" –hala deskribatu du Hirigintza zinegotzi Ibon Arrupek– Santa Teresa kaletik Agerre kalera joango litzateke. "Eremu honetan dago jende mugimendu handiena, eta horregatik da hain beharrezkoa", adierazi du Arrupek.

Bi ikastetxeen "irisgarritasuna hobetzeko"

Hiru igogailuko sistema horrek eragingo duen eremuan "ia mila pertsona bizi dira", Ander Garayk esandakoaren arabera, eta bi ikastetxe daude. Hala, igogailu sistema bertako erabiltzaileentzako lagungarri izango dela azaldu zuten. "Arrasate Herri Eskolako San Antolin ikastetxera edo Arizmendiren Santa Teresa gunera joateko bidea erraztuko du. Haurren karrotxoekin doazenentzat lagungarri izango da", azaldu du Arrupek.

elkarrekin
PODEMOS.

equo ezker anitza

Ikusi gure proposamenak hemen: elkarrekinpodemos.eus

ARRASATERentzat nahi duguna

- 1 Alokairu sozialerako udal-laguntza programa bat beharra daukaten Arrasatear guztientzat eta, ora berean, alokairu soziale sustatzeko udal-programa bat.
- 2 Zerbitzu publikoen kudeaketa pixkanaka udalak berreskuratzeko, enplegu duina sortzeko, lan-baldintza duinak bermatzeko eta kalitatezko zerbitzu publikoak ziurtatzeko.
- 3 Auzoen zinegotzigoa, eskumen eta aurrekontu propioekin, erdigunetaren eta periferiako auzoen arteko desberdintasunari buelta emateko bultzatuko ditugun auzo-batzarrak koordinatuko dituen.
- 4 Hozkuntza publikoa berreskuratzeko eta lehen mailan jartzea, udal-eskumen guztiak baliatuz eta eskola-segregazioaren aurkako plan bat eginez.

ARRASATE bizitzaz betel

Ibai-arteren Magia Festa, sinergiak aprobetxatuz

Ekainaren 14ra arte martxan daukate debaldeko erosketa "magikoak" dituen Magialdia kanpaina, eta, horren baitan, Magia Festa egingo dute bihar. Egitaraua osatzeko, herriko beste eragile batzuen ekintzekin egingo du bat Ibai-arteren festak



Iaz Ibai-arterek antolatutako magia ikuskizun bat, Herriko Plazan. JULEN IRIONDO

Xabi Gorostidi ARRASATE

Ibai-arteren zuzendaritza hartu eta gutxira, herriko beste eragile batzuekin elkarlana indartzeko beharra nabarmendu zuen Jon Apraiz presidenteak, GOIENARI emandako elkarrizketa batean. Herriko kultur eta kirol taldeen ekitaldien indarra merkatariek baliatzeko moduak aurkitu behar zirela adierazi zuen, eta bihar egingo den Magia Festan horixe bera egingo dute. "Askotan gertatzen da Arrasaten, egun berean, eragile askoren ekitaldiak aldi berean egiten direla. Oraingoan, adibidez, Leintz Eskola Kirolaren festa egingo da zapatu goizean, eta, aldi berean, guk magoekin ekintzak ditugu. Abisu hori jaso nuenean, esan nuen: 'Emaizkidazu bost minutu, eta telefono dei batekin konponduko dugu'. LEKeko arduradun batekin jarri nintzen harremanetan, eta bi festek bat egiteko modua aurkitu genuen. Hala, LEKeko

jaiaren amaieran, gure magoetako batek ikuskizuna egingo du". Arratsaldean ere gauza bera egingo dute Kajoi tabernarekin. "Kajoikoek Moonshine Wagon taldearen kontzertua lotu nahi zuten, guk Oliver magoaren *show*-a programatuta geneukan ordu antzerakoan. Antoniorekin [Murillo] hitz egin ostean, kontzertua gure egitaraua batzea erabaki genuen, eta magoaren ikuskizunaren ostean kontzertua hasiko da".

Magia Festa, tabernarik taberna Alboko iragarkian dago Magia Festa eguneko egitarau zehatza. Bertan aipatzen den gertuko magia atalak tabernetan egingo diren magia ikuskizunak hartzen ditu barne. Beraz, taberna hauetan tragoxka bat hartzen dutenek zuzeneko magia ikuskizunak ikusteko aukera izango dute: Izozkitegi, 1990, Monte, Txoko, Kajoi, Itzala, Ezkiña eta Irati, hain zuzen ere.

NIRE USTEZ



AITOR OROBENGOA

IAT gunetako gorabeherak

Duela bost urte, Europako Batasunak UE 2014/45 zuzendaraua argitaratu zuen Ibilgailuen Azterketa Teknikoa –gaztelerazko ITV akronimoekin ezagunagoa dena– gogortuz. Horrek autoen azterketarako behar den denbora luzatzea ekarri du. Ondorioz, IAT gunek erabat estronkatu dira. Duela bi aste, Jaurlaritzako Industria sailburuordea Euskadi Irratian egon zen honen inguruan azalpenak ematen, eta haren agerpenetik bi gauza deigarriak suertatu zitzaizkidan.

Lehenik eta behin, Arantza Tapia sailburua ez azaltzea zuzenean azalpenak ematen. Bigarrenik, Industria sailburuordeari galdetu zitzaionean ea hiritarrek denbora luzeagoa izango ote duten IATa egiteko, hark ukatu egin zuen horren beharrik, "IATa herritarrek alde aurretik planifikatu behar duten zerbait delako". Hona hemen honetaz guztiaz nire irakurketa: Jaurlaritza, bost urte izanik prestaketak egiteko, ez da gai izan bere lana modu egokian betetzeko eta, horren ordez, ohi denez, bere "eraginkortasuna" erakusteko hiritarrak estutuko ditu.

Maiatzak 25 Magia Festâ

12.00-15.00 / 17.00-21.00:
Gertuko Magia

12.00-21.00:
Magia saltokia

12.00-15.00 / 17.00-19.00:
Magia Tailerrak

18.00:
OLIVER eta LIUBA
magoen "show"-a

19.00:
Moonshine Wagon,
musika taldea

MAGO PARTE-HARTZAILEAK

VICTOR Magoa
ILUSIONISMA
JON Magoa
EVA Magoa
ZERO H
LIUBA Magoa
OLIVER Magoa

NIK
ARRSTNI

WWW.
ibaiarte.eus

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ARRASATE

ibai-arte

Euskadi, espainia, her comunitat

GOBIERNO VASCO



"Lehen unetik helduko diogu segurtasunari"

Morrasek adierazi du "irabaziz gero, herritarren kezka nagusia den herri segurtasuna" izango dela bere lehentasuna. Azken ekitaldia egin zuen atzo EH Bilduk, eta hura baliatu zuten herritarrengandik kanpainan jasotako babes eta ekarpenak eskertzeko

Xabi Gorostidi ARRASATE

Hauteskunde programa atalez atal aditzera eman ostean, puntu garrantzitsuenak nabarmentzeko eta "hauteskundeak irabaziz gero" euren lehentasunak zeintzuk izango diren definitzeko azken ekitaldia egin zuen atzo Arrasateko EH Bilduk. Baina, horrez gain, eskerrak emateko ere baliatu zuten Herriko Plazan eskaintako prentsaurrekoa: "Kanpaina amaitzear den honetan, lehenik, eskerrak beroenak arrasatearroi egun intentsu hauetan eman diguzuen babes osoagatik, animoengatik eta gure proposamenak entzuteko eta ekarpenak egiteko erakutsi duzuen interesagatik. Mila esker, bihotz-bihotzez", adierazi zuen Maider Morrasek.

Segurtasuna

Domekako hauteskundeetan alkatetzako giltza lortuz gero, hauxe izango litzateke Morrassen lehen zeregina: "Herritarren kezka nagusiak entzun ditugu, eta konpromiso erabatekoa hartzen dugu lokatzetan sartzeko. Herri-segurtasunarekin hasiko gara, ezin bestela. Epe luzeiko ikuspegia eta epe laburrekoa, biak aktibatu behar direla pen-



EH Bilduko hautagaiak, atzo, herriko plazan. AMAIA ZABALA

tsatzen dugulako. Hiru lan-lerro irekiko ditugu: gaueko udaltzain taldea, prebentzio mahaia eta bitartekaritza zerbitzua, hain zuzen ere".

Adostasunak beste alderdiekin

Beste alderdiekin adostasuntara heltzeko konpromisoa ere berretsi dute: "Gobernatzeko historikoki izan dugun estilolari jarraiki; izan ere, Arrasate berriz ere herri aitzindari bat izatea nahi badugu, herriarekin batera gobernatu beharko dugu. Beste alderdiekin elkarlanean,

akordioetan oinarritutako proiektugintzan, gardentasun guztiarekin eta zintzotasuna izanik baliorik garrantzitsuena".

Kudeaketa "zorrotza"

"Gastuen eta sarreraren kudeaketa zorrotza ahalbidetu behar dugu. Hori da guk beti egin izan duguna. Sarrera, gastu eta inbertsioan kontrola ziurtatuta. Sistema tributario moderno bat ere ezarriko dugu horretarako, egungoa guztiz zaharkitua baitago egungo gizartearen beharrei erantzuteko".



Autobus geltoki berri baten alde

Mugikortasun arloa "hobetzeko" eta oinezkoei eta bizikletei lehentasuna emateko, Garibaiko autobus geltokia lekualdatzea proposatzen du EH Bilduk. "Egingarria da; hainbat adituk hala esan digute. Oraingoz, ideia bezala aurkezten dugu, eta proiektu zehatza egin baino lehen parte hartze prozesu bat egin nahi dugu: bizilagunekin, garajeak dituztenekin, Biteriko aparkaleku erabiltzaileekin..." azaldu du Maider Morrasek. Honela azaldu ditu aldaketa honek ekarriko litzuzkeen onurak: "Herriko zirkulazioa optimizatu eta oinezkoei eta bidegorriei ahalik eta gune gehien emango genieke. Kontzezino, Roneo, Garibai eta Gelmako guneetako zarata eta autobusen trafikoa asko murriztuko da". Arizmendiarieta plazako belardian kokatuko lukete autobus geltoki berria. 2.700 metro koadro izango litzuzke, eta, belardi osoa hartzeaz gain, espazio gehiago hartuko luke alboetara: Kontzezinoko biribilgunean hasiko litzateke, eta Arizmendiarieta plazari bost metroko eremua kenduko lioke. "Plazari bost metro kendu arren, azoka eta zezen-plaza berdin-berdin jarri daitezke bertan", azaldu dute.

Noranzko aldaketak eta beste proposamen batzuk

Errekaren bi aldeetara dauden errepedeak –Nafarroa etorbidea eta Zerrajera kalea– noranzko bakarrekoak izatea proposatzen dute: Nafarroa etorbidea Bergararako noranzkoko eta Zerrajera kalekoa Aretxabaletarako noranzkoko. Geltoki berriaz gain, irisgarritasunarekin eta mugikortasunarekin lotutako proposamen gehiago eman dituzte aditzera. Horien artean daude, besteak beste, herribusa igandeetan eskaintzea eta hilerrira igotzeko aukera, bidegorri sarea bukatzea, bizikletak eta motorrak uzteko leku estaliak egokitzea, alokairuzko bizikletak jartzea eta TAO sistema "biguna" ezartzea: doako egonaldi laburrekin, eta egonaldi luzeetan egoiliarrentzako lehentasunarekin.

OHARRAK

Pentsiodunen elkarretaratzea

Astelehenean egingo dute, hilaren 27an, eguerdiko hamabietan, Herriko Plazan.

Asteburuan, Zirku Italiarra Arruena parkean

Barikuan 19:00etan, zapatuan 17:00etan eta 19:30ean eta domekan 12:00etan eta 17:00etan.

Haurren danborradan lekua 11-12 urtekoentzat

Adin tarte horretako umeentzako lekua dagoela jakinarazi dute. Izena emateko, entseguetara joan besterik ez dago; zapatuetan izaten dira, Gaztelupen –lehengo San Viator–, goizeko hamaitetan.

Entzierroaren ordeztu, Uluak taldearen txaranga alaitua

San Juan bezperako parrandazaleek entzierroaren ordeztu ekintza bat izango dute aukeran, Uluak talde antiespezistaren txaranga alaitua: "Lehenengo urteko harrera ikusita, hau errepikatzea aukeratu dugu, herritarrei animalien esplotaziorik izango ez den alternatiba eskaintzeko". Hitzordua: ekainaren 24an, 08:00etan, Arbolapetan.

Itsaso Diegoren irudi zenitala San Juan Jaiak ilustratzeko

Itsaso Diego arrasatearraren *San Juanak goitik behera* izeneko diseinua izan da 2019ko San Juan jaietako kartel lehiaketako irabazlea. Goitiko ikuspegia duen marrazkia da, non dantzariak, San Juan sua eta dragoia antzematen diren. Bost kidez osatutako epaimahaiak hartu du Diego saritzeko erabakia, eta hark 750 euroko saria jasoko du.



2019ko kartel irabazlea. ITSASO DIEGO



Etxebizitza "duinak", herritar guztientzako

Hauteskunde programa aurkezteko agerraldia egin du asteon Arrasateko Elkarrekin Podemosek, eta azaldu dute kanpaina inork ez duela aipatu etxegabetzeen eta pobrezia arazoak: "Etxebizitzarako eskubidea bermatu behar dugu, errealitate egin"



Eva Abuin, Igor Urizar eta Juan Luis Merino. XABI GOROSTIDI

Eneko Azurmendi ARRASATE

Kaleratzeak dira krisi ekonomikoak eragindako "arazo larriena", Elkarrekin Podemosen esanetan. "Arrasaten etxebizitzarako sarbidea arazo sozial hedatuena da", gaineratu dute. Hori dela eta, alokairurako dirulaguntza programa baten aldeko apustua egiten dute. "Errenta baxuko pertsonak, gazteak, guraso bakarrek familiak, pentsiodunak, eta abar lehenetsiko ditugu".

Horrez gain, etxebizitza hutsik duten jabe txikien artean, etxebizitza alokairuan jartzeko sustatze programaren alde egiten dute, eta alokairu sozialaren plan estrategikoa lehenbailehen martxan jartzeko beharraz ere ohartarazi dute.

Pobrezia arazoak

Arrasateko biztanleriaren %13 "pobrezia mugaren azpitik" bizi dela diote. "Prekariatetari da-

gokionez, biztanleriaren heren bati eragiten dio, gutxienez. Langabezia-tasa %10ekoa da, Gipuzkoako altuenetarikoa". Horri aurre egiteko, gizarte politikak eta zerbitzuak areagotu eta hedatzeko konpromisoa hartu dute, "beharra duten arrasatear guztiei oinarrizko bizi baldintzak bermatzeko". Bestalde, pobrezia arazoak eta prekariatetaren azterketa kuantitatiboa egitea proposatzen dute. Eredu fiskal progresiboaren alde daude, "gehien dutenek gehiago ordainduz eta alderantziz".

Auzoen plan estrategikoa

"Auzoen batzordea" eratzea proposatzen dute, auzo alkatetzak guztiak koordinatuko dituen, "auzo bakoitzari eskumen eta aurrekontu propioak emanez, auzokideak era demokratikoan erabakiak har ditzaten, partaidetzaren bitartez".

OHARRAK

Gaur gaztetxean

Alto Apure: La frontera en revolución dokumentalaren emanaldia, 18:30ean, eta gero, gaiaren inguruko eztabaida.

Herri ekimena: bilera

Komunitateak ehunduz ekimenaren baitan, hilaren 29an, 18:30ean, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan, mahai-ingurua egingo dute.

Argitu programa

Argindarra aurrezten laguntzeko bi saio: maiatzaren 29an Kulturaten eta ekainaren 5ean KZgunean. Biak, 18:30ean. Izena emateko, oihane@izadi21.eus helbidera idatzi edo 686 42 75 65 telefonora deitu.

'Gorputz Artean' sexu tailerra egingo dute ekainaren 8an

Kulturateko Loramendi gelan izango da, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Ekainaren 3ra arte dago izena emateko aukera, 943 25 20 66 telefonora deituz edo www. arrasate.eus/izen-ematea webgunean.

18 urtetik gorako emakumeei zuzendutako saioa izango da, eta ondorengoa landuko dute: sexuazio prozesuak -femeninoa eta maskulinoa-, zentzumenez esnatzea, sentsazioak emozioen lehengai; harreman motak eta hauen eraginak; hazkunde erotikoa eta zaugarritasuna -ahulguneak eta indarguneak-. Itziar Nanclares de Gamboa eta Borja Muñoz Arrastia sexologoek dinamizatuko dute tailerra.

Eroskiren jogurt gaingabetua marrubiekin. OCUREN azterketan, kalitateari dagokionez notarik altuena lortu duen produktua da; hain zuzen, higielean eta dastatzean kalifikazio gorena lortuta. %7,5erainoko marrubi edukia dauka eta lau aleko paketetan saltzen da.

0,79

€/ud

1,58€/kg

EROSKI

Jogurt gaingabetua marrubiekin

zure gogokoena

Musakola z/g ARRASATE

Tel.: 943 71 10 30

EROSKI

ARRASATE



ARTk jokalaria, Logroñon jokatutako norgehiagokan. IÑIGO ARRIARAN OLALDE

Kanporaketa iraultzen saiatuko dira Isasirenak

Mailari eusteko azken aukera du Kanpanzar ARTk bihar Mojategin; Logroñoako Pradoviejo taldearen aurkako kanporaketa ez zuten ondo hasi, pasa den asteburuan 36-7 galdu ostean, baina markagailu horri bueltako emateko aukeretan sinisten dute

Eneko Azurmendi ARRASATE

Lehenengo hoge minutuak "oso ondo" jokatu ostean, 0-7 aurreratu zen Igor Isasik zuzentzen duen taldea. Hala ere, atsedendira 5-7 joan ziren, eta bigarren zatian hautsi zen partidua. "Bigarren zatian, gu nekatuago geunden, jokoan ezin sartu, eta haiek behetik gorako bidea egin zuten, eta alde handiarekin galdu. Azken 15 minutuetan, hiru entsegu egin zituzten, eta hor joan zitzaigun partidua. Haiek ondo egin zuten haien jokoa, eta guk emandako abantailak ondo aprobetxatu zituzten". Hala, azkeneko, handia izan zen markagailuak erakutsi zuen alde.

Itzulerako partidua, Mojategin

Kanporaketak bi partidutara izaten dira, eta oraindik ez dago ezer erabakita. Isasik berak onartu du aldea "handia" dela, baina ez du esperantzarik galtzen Arrasateko partiduari begira. Hori lortzeko, baina, adierazi du ezin dituztela pasa den aste-

ko akatsak errepikatu. "Epailea ez zen oso fin aritu, eta gutako asko partidutik ateratzea eragin zuen horrek: protestak, haserreak... Ostean, borroka une bat egon zen eta bi taldeetako jokalarik bana egotzi zituen epaileak. Epailearekin asko haserretu, eta partidutik atera ginen, epailearen erabaki bakoitza eztabaidatuz. Modu horretan ez dugu ezer lortzen. Kanporaketa gainditzeko, egin behar duguna da partidua borobila".

Isasik kanpoan pasa du astea, eta taldeak Julen Barrutiarekin prestatu du itzulerako partidua, 18 urtez azpiko entrenatzailearekin. "Egin beharrekoa zer den ondo baino hobeto dakite jokalariek, ez dago sekreturik, eta

BIHAR, ZAPATUA, 17:00ETAN IZANGO DA KANPANZAR ART-REN ETA PADROVIEJOREN ARTEKOA, MOJATEGIN

berdin dio ni egon edo Julen egon. Hori ez da aitzakia izango. Konfiantzaz beterik gaude. Badakigu guk ondo jokatzen badugu eta haien aukerak neutralizatzea lortzen badugu, aukerak hor daudela. Oso zaila izango da, baina aukera dugula sinistuta gaude".

21 jokalarik inguru egongo dira jokatzeko moduan, eta lesio aldetik "nahiko ondo" iritsiko da taldea une erabakigarria.

Bihar, zapatua, 17:00etan izango da partidua, Mojategin. "Etxean jokatzea ere aldeko faktore bat izango da guretzat":

lazkoa errepikatzen bada?

Pasa den denboraldian, ligako partiduan, aurkakoa gertatu zen Kanpanzar ARTk Padroviejo taldearen aurka Logroñon jokatutako norgehiagokan. "25-7 galtzen joan ginen eta 25-35 bukatu genuen. Horregatik diot edozer gauza gertatu daitekeela oraingoan ere, eta aukerak badiugula garbi dago", dio Isasik.



Iaz Eskoriatzan egin zuten Leintz Eskola Kirolaren azken jaia. GOIENA

Leintz Eskola Kirolaren azken jaia Arrasaten egingo dute bihar

Ikasturteko ekintzetan izena eman duten ikasle guztiak hartuko dute parte, zapatu goizetik eguerdira bitartean

E.A. ARRASATE

2018-2019 ikasturteari amaiera emateko, Leintz Eskola Kirolak azken jaia ospatuko du bihar, zapatua, Arrasaten, eta ikasturte osoko ekintzetan izena emandako ikasleek hartuko dute parte jai horretan.

Ekitaldi guztiak Iturripeko kiroldegian izango dira. 11:00etan hasiko dute festa, eta, 12:30ak arte, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako ikasleei zuzendutako Ginkana Jolasak egingo dituzte.

11:15etik 12:30era, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako ikasleek kirol egokitua egingo dute: erreleboak, gurpil aulkian eslaloma, itsuen harrapaketa, puzzlea eta garun paralisia dutenendako futbola.

10:00etatik 11:00etara, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleek ere kirol egokitua egin-

go dute eta 11:15etik 12:30era, berriz, Ginkana.

Eguneko ekitaldi nagusia 12:45ean egingo dute, eta oparien eta sustapen jardueren zozketa ere bai, LEKeko ikasle guztien artean.

"Sentsibilizazio" jardunaldia

Kirol egokitua izango da ekin-tza aipagarria. "Sentsibilizazio" jardunaldia izango da. Hala, Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioaren laguntza izango dute.

Helburuak honako hauek izango dira: kirol egokitua zer den eta badagoela ezagutzea; errealitate eta egoera ezberdinez jabetzea eta urritasuna dutenen egoeran jarriz esperientzia bizi izatea. Horretarako, bost gune jarriko dituzte, esan moduan, eta gune bakoitzean kirol bat praktikatzeko aukera izango dute guztiak.

'Nordic walking' martxaren hastapen saioak, Musakolan

Maiatzaren 28an, bi saio eskainiko dituzte, *Arra Sasoi: hamabi hile, hamaika gai* programaren barruan. 30 minutuko bi ikastaro labur izango dira, bata 10:30ean eta bestea 17:30ean. Doakoa da, eta lehentasuna izango dute Musakolako kiroldegiko abonatuak. Edozelan ere, izena eman beharko da, Musakola kiroldegian bertan.

Gaszte mailako taldea ikustera joateko autobusa egongo da

Futboleko, gizonezkoen gaszte mailako taldeak Hiruko Torneoa jokatuko du Euskal Ligara igotzeko ahal izateko. Betoño eta Galdakao izango dira aurkariak. Lehen partidua bihar izango da, Galdakaoaren aurka, Betoñon, 16:30ean. Autobusa 15:15ean aterako da Garibaiko geltokitik. Prezioa bi euro da, eta Mondra-ko jokalarientzat, doan.

Arte Merkatua izango da zapatuan Seber Altuben

Arrasate Margo Taldeak antolatutako Arte Merkatua goizez bakarrik izango da edizio honetan, 10:00etatik 14:30era bitartean. Olio, akriliko, akuarela eta halako teknikak erabiliz margotutako 80 lan inguru jarriko dituzte bertan ikusgai eta salgai

Imanol Beloki ARRASATE

Zapatu honetan, 10:00etatik 14:30era bitartean, Arte Merkatua izango da Seber Altube plaza. Urtero Arrasate Margo Taldeak antolatzen duen hitzordua da; beti maiatzeko azkenengo zapatuan jarri izan ohi dutena. Hala ere, aurten, goizez bakarrik izango da azoka. Hori horrela, Arrasateko artistek beraien lanak erakusteko aprobetxatuko dute, Seber Altube plaza margolanen erakusleho bilakatuta.

Aurten, goizez bakarrik

"Urtero egiten dugun azoka da, baina arratsaldeetan ez da hainbeste jende aritzen kalean. Hori horrela, aurten, goizez bakarrik izango gara. Bertara datorrenak lan ugari ikusteko aukera izango du, eta guretzat ere aukera ederra da egiten duguna kalera atera eta herritarrei erakusteko. Hori horrela, zenbait teknika erabiliz egiten ditugun lanak

ikusteko eta baita erosteko aukera izango dute bertara gerturatzaren diren: olio, akuarela eta akrilikoz egindako lanak izango ditugu bertan", adierazi du Amaia Arantzabal Arrasate Margo Taldeko kideak.

Askotariko lanak

Arrasate Margo Taldeko 14 artistak egindako lanak jarriko dituzte Seber Altuben; guztira, 80 koadro inguru. "Margolari bakoitzak bere estiloa du, eta olio, akuarela eta akrilikoz egindako lanak izango ditugu azokan. Agian, marrazketak teknika erabilitako lanen bat edo beste ere eramango du margolariren batek. Hala ere, erretratuak, natura hilak eta paisaiak izango dira, batez ere, izango ditugunak, eta, natura hilen kasuan, loreek izango dute protagonismo handia. Horrekin batera, tamaina ezberdinetako koadroak margotzen ditugu, eta margolari bakoitzak espazio

jakin bat izango du zapatuan horiek jartzeko; beraz, ondo antolatu behar dugu dagokigun lekua".

Herritarrei deia

Arantzabalek adierazi duenez, zapaturako eguraldi iragarpen ona dago aurreikusita. Beraz, herritarrei Seber Altube plaza-



Arrasate Margo Taldekoak, Urretxun egindako azken erakusketan. AMAIA ARANTZABAL

tik pasatzeko dei egin nahi izan die: "Diferentzia izaten da eguraldi onarekin edo txarrarekin egitea azoka. Hain zuzen ere, eguraldi ona egingo duen au-

reikuspena dugu, eta, halabada, herritarrei Arrasate Margo Taldeko kideok egiten ditugun lanak ikustera etortzeko dei egin nahi diegu".

Familien kontzertua gaur, Kulturaten, 18:30ean

Gaur, Arrasate Musikaleko familien arteko kontzertua izango da, 18:30ean, Kulturaten. Musika eskolako hainbat ikasle gurasoekin batera igoko dira oholtzara. "Iaz, esaterako, aitaita batek ilobarekin jo zuen, baina aurten, soilik gurasoak igoko dira oholtzara beraien seme-alabekin musika piezak jotzera. Hainbat dira animatu direnak; esaterako: Jose Ramon Elkoro eta Amaia Garro musika eskolako irakasleek beraien seme Jonekin pieza bat eskainiko dute. Amaia Oleak Uxue eta Danel Serrano seme-alabekin piano pieza bat eskainiko du sei esku-tara...", adierazi du Arrasate Musikaleko Edorta Ayastuyk.

Hardcore melodikoaz beteko da Irati datorren egunean

Datorren egunean, maiatzaren 30ean, Wake The Dead talde frantziarrak kontzertua eskainiko du Irati tabernan. Emaldia 22:30ean hasiko da, eta hardcore melodiko estiloko kantuekin gozatzeko aukera izango dute bertaratzen diren ikus-entzuleek.

Marseillatik datorren taldea 2010ean sortu zen, eta orduetik, bederatzita urte hauetan, 300 ikuskizun baino gehiago eskaini dituzte Europako, Asiako eta Kubako zenbait herrialdetan. Nazioarte mailan ospe handia daukaten punk eta hardcore estiloetako hainbat talderekin ohol-tza partekatze aukera izan dute.

Igone Balenciaga

Urkulu Mugikorrek dendako saltzailea

Gailu teknologikoen kalitatezko zerbitzua

Arrasaten dago Urkulu Mugikorrek dendak -Juan Carlos Guerra plaza 1, behea-. Harreremanotan jartzeko, 943 90 45 34 telefono zenbakira deitu behar da.

Arrasateko Ahmed marokoarra da Urkulu mugikorrek dendako ugazaba. Aste honetan bertan ireki dituzte, eta astelehenetik zapatura bitartean honako ordutegi honetan izango dute zabalik dendak: 09:30etik 13:30era eta 16:30etik 20:30era. Bertan, telefono mugikorren eta tableten gaineko orotariko zerbitzuak eskainiko dituzte. Hori horrela, mota guztietako telefono mugikorren eta tableten konponketak egiten dituz-



Igone Balenciaga, dendak parean.

“ Zerbitzu ona eta kalitatezkoa eskaintzen dugu. Izan ere, hamabi urtetik gorako esperientzia duen teknikaria dugu gurekin. ”

te momentuan, hauen salmenta, eta txartelak kargatzeko aukera ere badute. Horrez gain, osagarri teknologiko ezberdinak ere badituzte salgai, eta, mugikorren lotutako eskaintzaz gain, dirua atzerrira bidaltzeko aukera ere ematen die bezeroei. Gama ertaineko eta goi-gamako mugikorren aldeko apustua egin dute oraingoan. Izan ere, Ahmedek Aretxabaletan lokutorioa ere badu, Mitarte kalean, eta, han izandako arrakastaren ostean, dendak Arrasaten irekitzea erabaki du. Hala, Juan Carlos Guerra plazan ireki duten lokutorio berriari hasiera emateko, teknologia gailu ezberdinen konponketetan %20ko deskontua eskainiko die bezero guztiei ekainean.

URKULU MUGIKORRAK

Telefono mugikorren salmenta

Osagarriak

Denbora errealeko konponketa

Karga

Diru bidalketa



Zabaldu berria!

Juan Carlos Guerra plaza, 1 behea • Arrasate • 943 90 45 34



Yolanda Arrieta, Aretxabaletan egindako saio batean. IMANOL SORIANO

Bizenta Mogeli buruzko saioa, denboraldia ixteko

Irakurle Klub Feministaren balorazio baikorra egin dute bai parte-hartzaileek eta baita Ainhoa Aldazabal dinamizatzaileak ere. Ikasturte berrian jarraipena izango du klubak. Aurtengoa amaitzeko, dena den, saio berezia dute ekainaren 3an, Yolanda Arrietarekin

Julen Iriondo ARAMAIO

Lehen aldia izan du ikasturte honetakoa Gorbeialdeko Irakurle Klub Feministak. Kuadrillarako ekimen moduan jaio zen, berez, baina, izena eman zuten denak aramaiorarrak izanda, herrian egin dituzte saio guztiak.

Sei herritarrek hartu dute parte, eta, Ainhoa Aldazabalen esanetan, "oso ondo" joan da: "Eurek egindako balorazioetan asko eskertu dute herrian bertan euskarazko eta, genero ikuspegitik, aisialdirako kalitatezko jarduera bat izatea".

Nabarmenezko beste gauza bat da ekimeneko partaideak "hizkuntza kritiko literarioa eurenenganatzen" joan direla saioak pasa ahala, eta baita "begirada aldatzen" ere: "Askotan, zailena da literaturara gerturatzea begirada feminista batekin, eta hori da guk eskaintzen dugun formakuntza. Kluba bada iritziak trukatzeko espazio bat, baina beti saiatzen gara formatzen edo tresnak eskaintzen ere. Etortze-

rako bazuten begirada feminista, baina hori literaturara aplikatzerakoan igarri da bilakaera lehen saiotik azkenekora".

Ekimenak jarraitu egingo du datorren ikasturtean; oraingoz, zehaztu ezin dena da saio guztiak Aramaion izango diren berriro. Urri erdialdera izango da lehen, eta programatuko dituzten liburueta batzuk izango dira: *Basa*, Miren Amuritzarena; *Moio. Gordetzea ezinezkoa zen*, Kattalin Minerrena; *1362 km euri*, Goizalde Landabaso eta Garazi Goiarena... "Aurrekoetan bezala, saiatuko gara programatzen genero literario guztiak: poesia, komikia... Komikian *Tupust!* programatuko dugu, hamasei

EUSKARAZKO LEHEN EMAKUME IDAZLEA IZAN ZEN BIZENTA MOGEL, ARRIETAREN PROTAGONISTA

emakumeren artean bikoteka egindako zortzi istorio".

Arrietarekin, saio irekia

Aurtengoari amaiera emateko, dena den, saio berezi bat falta da; irekia izango da, edonor joan daiteke. Yolanda Arrieta etorriko da, eta, bere *Argiaren alaba* liburua aitzakia hartuta, "Bizenta Mogelen garaia" erreproduzitzen saiatuko da "dinamika" baten bitartez: "Giro berezia sortzen da; idazle oso emankorra izateaz gain, hitz egiteko eta komunikatzeko gaitasun handia du Yolanda Arrietak, eta ziur nago primeran pasako dutela doazenek. Nik ikusi dut saio hori beste leku batzuetan, eta hunkigarria ere bada momentu batzuetan".

Saioa ekainaren 3an izango da, Sastiñan, 18:00etatik 20:00etara. Ez dago zertan *Argiaren alaba* irakurrita joan, nahiz eta interesgarria izan daitekeen Bizenta Mogel zein izan zen ja-kinda joatea.

Irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina, Txirritolaren eskutik

Miren Amuritzarekin tertulia ere egingo dute 'Begixekin leiru, bihotzaz gozatu!' ekimenaren barruan, eguean

J.I. ARAMAIO

Urteroko ekimena da Txirritola euskara elkartearen hau, eta honetan datza: liburutegian euskarazko liburu bat hartu, eta irakurri ondoren, liburutegira itzultzean, fitxa bat bete behar da. Hori egiten dutenen artean sariak banatuko dituzte zozketa bidez. Ekainaren 19ra bitartean egingo da aukera.

'Basa' nobela hizpide

Ekimenaren barruan, Miren Amuritzarekin literaturari buruzko tertulia egingo dute eguean, hilak 30; 18:30ean hasiko da, eta, eguraldiak laguntzen badu, parkean izango da.

"Bere sormen prozesua nolako den kontatuko digu Mirenek, edo irakurle modura ze esperientzia izan dituen eta dituen, ze iturritara jotzen duen", dio Txirritolako Oihana Ameskuak.



Miren Amuritz. GOIENA

Baina, noski, saioaren ardatza bizkaitarraren lehen eleberria izango da, *Basa* izenekoa. Mundu ikuskera baten amaiera kontatzen du Amuritzak liburuan, Sabina Gojenola izena eman dion emakume baserriar baten bitartez.

Aramaioko pilotariak: Herriartekoa, eta txapel bat bi finaletan

Herriartekoan, Maeztuko partiduak galdu egin zituzten aramaiorrek, 22-4 kadeteetan eta 22-18 nagusietan –gazte mailan, Aramaiokoak ez ziren aurkeztu–; asteburuan, etxean jardungo dute. Bestetik, Legutioko finaletan Xabi Errastik jantzi zuen txapela, eta Danel Herrarte txapelondorde izan zen. Julen Olaiola ere, txapelondorde Derion.

Auzo-konposta egiteko lekua badago oraindik, bi guneetan

Hilabete honetan jarri dute martxan herriko bigarren auzo-konpost gunea, Aita Gabirel Jauregi kalekoa. Horrekin batera, berrantolaketa egin dute: Osetako familiek aukera izan dute gune berrira aldatzeko, eta familia berriek bi guneetako edozein aukeratu ahal izan dute. Orain, sei leku daude libre Osetan, eta bestean hamasei.

Memoria lantzeko saioak egingo dituzte erretiratuen elkarteak

Ekainaren 5ean hasiko dira, eta eguaztenetan egingo dituzte, 10:00etatik 11:00etara. Hilean 15 euro ordaindu beharko dira parte hartzeko. Saioek bi hilabete iraungo dute, hasiera batean, baina, jendeak jarraitzeko interesa izanez gero, irailean berrekingo liekete. Landuko dituzten gaiak: lengoia, arreta, oroimena, kalkulua...

Ugarte hirugarren, Arredondoko kilometro bertikalean

Espainiako Kopako proba zen Kantabrian jokaturakoa, eta Aitor Ugartek hirugarren amaitu zuen; 20 minutu eta 41 segundoraino izan zen bere denbora, lehenarengandik bederatzi segundora eta bigarrenarengandik seira. Joseba Diaz bizkaitarra izan zen garaile, eta Mikel Beunza nafarra bigarren. Tarragonan du Ugartek hurrengo proba.



Carmen Becerra gitarra jotzailea. A.U.

Gitarra doinuekin hasiko da aurten Musika Astea

Astelehenetik ekainaren 4ra bitartean, musikari buruzko filma, solasaldia eta dokumentala ere egongo dira, zuzeneko kontzertuez gain. Herriko musika eskolako ikasleek ere ikasturte amaierako emanaldia egingo dute eguenean, hilaren 30ean

Oihana Elortza ARAMAIO

Badator aurtengo musika astea. Prest dago egitaraua eta astelehenetik ekainaren 4a bitartean musika entzungo eta ikusiko da, eta musikaz berba egingo da Aramaion.

Horretara dator, esaterako, Zuriñe Hidalgo, musikaz berba egitera. "Ez da hitzaldi edo saio itxi bat izango. Nire ibilbideaz berbetan eta musikan bizitakoak komentatzen hasiko naiz. Musika, euskara eta emakumea. Hiru ardatz horiek izango ditut oinarrian, eta nire esperientzia zein den azalduaz jendearekin berba egitea da asmoa. Euren galderei erantzun, esperientziak trukatu... Gertuko giro bat sortu eta elkarrekin berba egiteko asmotan noa Aramaiora", dio Hidalgo. Hona datorren lehen aldia dela ere aitortu du: "Lagunak badituz, baina ez naiz bertan inoiz egon".

Solasaldiaz gain, musikari lotutako film bat eta dokumental bat ere botako dituzte, baina

Egitaraua

Maiatzak 27

- **Carmen Becerra.** Gitarra. Sastiña. 18:30.

Maiatzak 29

- **Zuriñe Hidalgo.** Solasaldia. Sastiña. 18:30.

Maiatzak 30

- **Musika eskolaren emanaldia.** Sastiña 17:30.

Maiatzak 31

- **Dr. Moranx.** Jazza. Sastiña. 19:30.

Ekainak 1

- **Azkaiter Pelox.** Sastiña edo plaza. 19:00.
- **El cuarteto filma.** Kultura etxea. 21:00.

Ekainak 2

- **Chavela dokumentala.** Kultura etxea. 19:00.

Ekainak 4

- **Alaiak.** Sastiñan eta Kantu jira. 18:00.

kontzertuek eta zuzeneko musika emanaldiek osatzen dute Musika Astearen egitarau ia osoa. Astelehenean, esaterako, gitarra doinuekin entzungo dira Carmen Becerrak Sastiñan egingo duen kontzertuan. Dr. Moranx taldeak jazz estiloko musika joko du hilaren 31n, eta hurrengo egunean, ekainak 1, Azkaiter Pelox etorriko da Bergaratik.

Etxekoak

Herriko musika ikasleek ikasturte bukaerako kontzertua eskainiko dute eguenean. Txistu ikasleek, esaterako, kalejira egingo dute herrian zehar, eta gitarrakoe eta pianakoe pelikuletako melodiak, Queen edo ACDC taldeen doinuekin joko dituzte. Alaiak Kantuan jubilatuen taldeak ere emanaldia egingo du zuzendariaren akordeoiaren laguntzaz; lehenengo, eguneko zentroan abestuko dute, eta gero Sastiñan. Kantu jira ere egingo dute ondoren herrian zehar.



Desorden talde bizkaitarreko kideak. DESORDEN

Hardcore eta punk doinuek hartuko dute bihar Aramaio

Balarrasa, Tributo MCD, Desorden, Alta Tension, Katez eta Perlata taldeak ariko dira Eguzkierripa Rock-en

J.I. ARAMAIO

Aramaixoko Gazte Azanbladak antolatuta, *karropoteo*-arekin hasiko dute festa bihar, zapatua, 13:00etan. Bazkaria izango da gero, 14:30ean, eta Txan Magoaren emanaldia bazkalostean. Eta gauean, kontzertuak.

Perlata arrasatearren txanda izango da 21:00etan; eta ondoren, orduz ordu, hurrenkera honetan ariko dira: Tributo MCD (Aramaio), Alta Tension (Aramaio), Katez (Leitza), Balarrasa (Durango) eta Desorden (Portugalete). Talde indartsuak dira guztiak.

Egun bakarra berriro

Aurreko urtekoa hamargarren edizioa zela eta bi eguneko egin eta gero, ohiko formatura itzuli da festa eguna. "Bikoa mantentzeko aukera aztertu genuen, baina, Gazte Eguna ere egin dugunez, bakarrera bueltatzea erabaki genuen", dio Gazte Asanbladako Unai Etxenausiak.

Beste alde batetik, "aurrerapausoa" eman eta agertokian emakumeen presentzia handigotu nahi izan dute, eta, horrela, emakume bat baino gehiagoko hainbat talde izango dira aurtengo edizioan.



NIRE USTEZ

ANDERE ARRIOLABENGOA

Eguzkierripa Rock

Urteroko zita bihurtu da Eguzkierripa Rock jaialdia Aramaion. Behinola ilusio eta gogoz beterik elkartu zen lagun kuadrilla hari burutik pasatu ere ez zitzaion egiten hamaika urte beranduago herriko jai egitarauaren barruan ezinbesteko zita bihurtu denaren hazia landatzen ari zirenik.

Kontzertu jaialdi bat baino askoz ere gehiago da Eguzkierripa Rock. Auzolanean eta autogestioan, herritik eta herriarentzat sortutako jaialdia da. Gautxoriek bere lekua daukaten modu berean, eguna aprobetxatzea atsegin dutenek ere badute non aukeratu.

Aurten bereziki eskertu nahi dut kontzertuetan emakumeen presentzia areagotzeko lanean ibili diren feminista nekazizinen esfortzua. Zuen presentzia eta lana ezinbestekoak dira orain arte hain maskulinizatuta egon diren eta askotan dauden rock guneetan emakumeok gure espazioa izan dezagun. Guri ere rocka gustatzen zaigulako, kontzertuetan lehen lerroan egotea atsegin dugulako, oholtza gainetik musika egitea zainetan daramagulako... biba zuek!



Haur Dantzarien Eguna, Aretxabaletan. IMANOL SORIANO

260 bat ume izango dira Haur Dantzarien Egunean

Leizarra musika eskolak antolatuta, inguruko haur dantzarien topalekua izango da Aretxabaleta domekan. Antzuolako, Oñatiko, Soralezeko eta Arrasateko taldeek baieztatu dute parte hartzea. 10:30ean elkartuko dira guztiak, plazan

Larraitz Zeberio ARETXABALETA
Dantza taldea indartsu dago Aretxabaletan, eta prest dute aurtengo Haur Dantzarien Eguna. Domekan ospatuko dute. Leizarra musika eskolako zuzendari Mariatzen Urkiak azaldu du herriko ehun bat dantzarik hartuko dutela parte eta beste 160 bat etorriko direla

inguruko herrietatik. "10:30ean egingo dugu ongiatorria, plazan, eta txoripana jango dugu denok batera".
4 eta 14 urte bitarteko haur dantzariak izango direla esan du Urkiak. 11:15ean, dantza egingo dute kalean, eta 13:30ean, herriko familiek hartuko dituzte etxean bazkaltzeko. "Txistu-

lariei eta arduradunei bazkaltzen emateko herriko elkarten laguntza dugu". Denen parte hartzea eskertu du Urkiak.

Arratsaldean, alardea egingo dute dantzariak, 17:00etan hasita. Eguraldi txarra bada dantza saio guztiak frontoian izango direla jakinarazi dute antolatzaileek.

Sei upategi eta herriko hiru ekoizle, bihar, Txakolin Egunean

Mitarte kalean izango dira eskaintza nagusiak, 12:30ean. Erraldoi konpartsa bi ere gonbidatu dituzte

L.Z.L. ARETXABALETA
Estimazio handia du Txakolin Eguna Aretxabaletan. Gainezka egoten da eta ia ere guztiz agortu zen upategiek ekarritako txakolina.

Kultura zinegotzi Joxe Migel Uribarrenek azaldu du Getariako Txakolina jatorri izena duten sei upategi eroango dutela txakolina Mitarte kalera: Hiruzta, Mokoroa, Elkano, Ameztoi, Txomin Etxaniz eta Ulacia upategiek, hain zuzen ere. 12:30etik 14:30era eskainiko dute txakolina. Bost txartel eta kopa 5 euroko prezioan



Txakolin Eguna. J. INUNTZIAGA

egongo dira salgai. Kopen salmentatik ateratako dirua Kurtzebarri eskolako DBHko 4. mailako neska-mutikoen ikasa bidairako izango da.


Jakiak ere egongo dira. Herriko hainbat ekoizleren produktuekin egindako pintxoak eta hanburgesak egongo dira salgai. Alberdi, Mendibitzu Ekologikoak eta Etxezuri izango dira ekoizle horiek. Hankabeltzekoek urdaiazpikoa eskainiko dute.

Eta lekua izango du Aretxabaletako tomateak ere. Kristina Eneako kideek mahaia ipiniko dute Mitarte kalean eta landareak banatuko dituzte.

Azkenik, festa giroa borobiltzeko, Bergarako eta Txantrea-ko erraldoi konpartsak izango dira Aretxabaletan. Herriko hainbat lekutan ibiliko dira eta Herriko Plazan amaituko dute.

Musika eskolak ate irekiak, gaur

Leizarra musika eskolak bere eskaintzaren berri eman gure du, eta, helburu horrekin, hainbat jardura egingo dituzte gaur plazan. Musika tailerretako umeek emanaldia egingo dute, 17:00etan. 5-6 urteko neska-mutikoak dira, eta ordu erdiko saioa izango da. "Klase bat egingo dugu plazan", azaldu du Urkiak. Horrekin batera, eskolak musika instrumentuen txokoak ipiniko ditu plazan, 17:00etatik 18:30era. "Helburua da musika eskolan ditugun instrumentuak ezagutzera ematea, eta txoko guztietatik pasatzen diren neska-mutikoen artean tableta bat zozketatuko dugu". Leizarra musika eskolak zabalik du matrikulazio kanpaina berria ekainaren 21era arte. Plazan izena emateko aukera izango da gaur. Bestela, astelehenetik barikura, 17:00etatik 19:00etara, Arkupeko hirugarren solairuan.



Leizarrako ikasleak. I.SORIANO

Askotariko dantzak

Neska-mutikoen lan handia egingo dute dantzak ikasten, eta beti da aberasgarria inguruko taldeak ere ezagutzera. Domeka goizeko saiorako talde bakoitzak bere errepertorioa prestatu du. Arratsaldeko alardea denek batera egingo dutenez, dantza sorta adostuta dago. Horien artean daude, besteak beste, jorrai dantza, makil txiki, Gipuzkoako zinta dantza, Guardiako arku dantza, txantxo dantza, cake polka edo Luzaideko esku dantza. Aretxabaletan talde kopuru

polita dagoela esan du Mariatzen Urkiak: "Ikasturte honetan bigarren irakasle bat behar izan dugu". 4 urtetik aurrera has daiteke dantza eskolan. Interesatuak zabalik dute izena emateko epea, ekainaren 21era bitartean.

GOIZEAN DANTZA SAIO LIBREAK ETA ARRATSALDEAN ALARDE BATERATUA EGINGO DITUZTE

Urte amaierarako eginda gura dute ibai ertzeko pasealekua

Aretxabaletako Udalak diru eskaintza berria egin du, eta hirugarren esleipen prozesua iragarri

L.Z.L. ARETXABALETA

Deba ibai bazterrean egiteko den pasealekuko obra esleitzeko hirugarren saiakera egingo du Aretxabaletako Udalak. Kiroldegirainoko zatia da amaitzeko dagoena. Udalak gogorarazi du lehen aldi Legasko SL enpresari esleitu zitzaizkiola lanak, baina hasi bezain pronto hartzekodunen konkursoa aurkeztu eta bertan behera utzi zituela. Bigarren aldi, berriz, lehiaketa publikoa hutsik gelditu zen, nahiz eta lizitazio eskaintza %20 handitu. Udalak

jakinarazi du hainbat eraikitzaileekin batera aztertu duela proiektuaren bideragarritasuna. "Ondorioa da proiektua egitekoan ez zirela lan eremurako sarbidearen inguruko premiak behar moduan aurreikusitakoak, eta horrek zaildu du lanen exekuzioa", azaldu dute.

Kontzeptu hori berrikusi ostean, beste eskaintza bat egin du Udalak: 238.435,65 euro, BEZa kanpo. "Ziur gaude lanak esleitzeko aukera izango dela, eta obra hori urtea bukatu aurretik amaitzeko aukera izango dela".



Unai Elkoro buru zela, EAJko hainbat kide eguaztenean. MIRARI ALTUBE

Gune soziosanitario aitzindaria sortu nahi du EAJk

Agintaldi honetan egin duten lanaz eta aurrera begira dituzten proiektuez mintzatu ziren asteazkenean

Amaia Zabala Tolosa ARETXABALETA Aretxabaletako EAJk agerraldia egin zuen asteazkenean, "herritarren artean nahasmena sortu duten" hainbat gai argitzeko. Unai Elkoro Aretxabaletako EAJren alkategaia "planifikaziorik gabeko Gobernu" izan dela diotenei erantzunez hasi zuen ekitaldia: "Lehenengo egunetik lanean aritu gara, hasieran baliabide gehiegi gabe, aurrekontuak ez baitzuen askotarako ematen, baina, kudeaketa arduratsu eta aldarte negoziatzailea medio, gai izan gara tanatorio-ko arazoa konpontzeko, Azben Eroski berria bideratzeko, komentuaren erosketa akordio bikain bat lortzeko edo kirol-etxeke kalteei erantzun azkar bat emateko".

Alkategaia gaineratu zuen ahal izan duten neurrian hirigintza lan txikiak baina "beharrezkoak" ere burutu dituztela,

eta eliza ondoko espaloia berri-tzea, Txarapeako berdeguneko eskailera eta skate parkea aipatu zituen adibide gisa. Gaineratu zuen proiektu handiagoei ere heldu dietela, ahal izan duten heinean: "Futbol zelai berria, martxan dauden kaleen konponketak eta irisgarritasun lanak, esaterako".

Bi proiektu nagusi

Aurrera begira, bi proiektu nagusi azpimarratu zituen: komentuan helduentzako gizarte zentro bat egitea eta egoitza zaharreko eraikinean arretoa soziosanitarioko zentroa egitea. Gaineratu zuen EH Bilduk ere bere programan sartu dituen arren, proiektu hauetarako dituzten ezberdintasunak asko direla: "Ziur gaude aretxabaletarrok jakingo dugula bozkatzeko orduan kopiaren eta originalaren artean ezberdintzen".



EH Bilduko kideak, Mitarte kalean, eguaztenean. MIRARI ALTUBE

"Etorkizuna bermatuko duen proiektua" duela dio EH Bilduk

Jai giroan elkartu ziren eguazten iluntzean EH Bilduko kideak Mitarte kalean, eta botatzeko dei egin zuten

Amaia Zabala Tolosa ARETXABALETA Herritarrekin sintonian egon behar duela Udalak adierazi zuen Albizuk, "herritarrek pentsatzen dutenarekin eta bizi" dutenarekin: "Noizean behin desafinatu arren, pieza berbera jo behar dugu. Jendearrekin batera egin behar dugu ibilbidea, ez dago beste biderik".

EH Bilduk zergatik hartu gura duen Udalaren gidaritzaz aipatu zuen, besteak beste, bi arrazoi emanda: batetik, berdintasunean aurrerapausoak eman gura dituzte: "Udalean txertatuko dugu feminismoa, eta partidak bikoiztu egingo ditugu benetako politikak egin ahal izateko".

Eta bestetik, etorkizuna bermatu beharra dagoela adierazi zuen: "Ekonomikoki eta sozialki indartsu gauden une honetan hasi behar dugu lanean, eraldaketa sozialerako, gure gizarte eta gure ehun industrial eta

komertziala sendotzeko". Gaur egungo beharretatik abiatuta etorkizuna eraikitzeke lanean jardungo dutela zioen: "Hor dago oinarrituta gure proiektua".

Horretarako herrigintza dela oinarria gaineratu zuen: "Herririko mugimendua saretu eta indartu egin behar dugu. Argi dugu gu jendearren zerbitzura gaudela". Hala, herritarrak zaintzea izango dela ardatza zioen.

Domekan botatzeko deia

"Zergatik EH Bildu? Zerrendarik indartsuena, prestatuena, jatorrena... delako eta, bereziki, Aretxabaleta etorkizunera eramango duen proiektua delako, gure etorkizuna bermatuko duen proiektu bakarra", zioen Albizuk.

Oñatiko alkate den eta Batzar Nagusietarako hautagai Mikel Biainek aipatu zuen bi ereduren artean egin beharko dutela aukeraketa herritarrek.



"Ideia berriekin eta lanerako gogotsu" Elkarrekin Podemos

Rafa Bernal, Mario Romero eta Iker Carrasco zerrendako kideek proposamenak aurkeztu dituzte

Amaia Zabala Tolosa ARETXABALETA Aretxabaletan hainbat aldaketa egiteko proposamenak ditu Elkarrekin Podemosek; mugikortasunaren gainean hausnarketa

egitea eta parte-hartzea bultzatzea, besteak beste.

"Krisia pasatu dela uste dugu, baina sistemaren krisia hor dago, eta haziz doa, gainera; horren

adibide dira neoliberalen gorakada eta egoera ekonomikoa; azken horrek, gainera, gero eta gehiago zapaltzen ditu herritarrak", esan du Elkarrekin Podemoseko zerrendaburu Rafa Bernalek. Gaineratu du lege asko egiten direla bizimodua hobetu nahian, baina gero, ez direla aplikatzen.

Gogorarazi dute garapen jasangarria ere Elkarrekin Podemosen zutabea dela.



Elkarrekin Podemoseko kideak . M.A.

Loramendi Euskara Elkarteak hezitzaile bila dabil

Loramendi Euskara Elkarteak ludotekako koordinatzaile-hezitzaile eta Gazte Zoro eta Hizkuntza Errefortzu proiektuetarako hezitzaileak behar ditu.

Baldintzak ikusgai izango dira Goienaren webgunean, eta interesatuek curriculumak bidali beharko dute euskara@loramendielkartea.eus helbidera ekainaren 5a baino lehen.

Ibarra kiroldegian jardura eskaintza zabala uda honetan

Uztailaren 1etik 5era, hainbat kirol eta patinaje jardura izango dira kiroldegian, 12-16 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Uztailaren 8tik 12ra, berriz, eskalada eta fitness jarduerak izango dira 14-18 urte bitarteko gazteentzat.

Plaza kopurua mugatua da eta ekainaren 16ra bitarte eman daiteke izena.

OHARRAK

Odol ateratzea

Arabako odol emaileen elkarteak deituta, maiatzaren 29an, 06:45etik 20:00etara autobusa egongo da Durana kalean.

'Arimak' erakusketa

Miriam Vidrialesen eta Ainhoa Caberoren erakusketa ikusgai izango da Arkupe kultur etxean maiatzaren 6tik 30era, ohiko ordutegian.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

"Gauetz idazten dut, lo egiteko orduak kenduta"

DAVID AGIRRE IDAZLEA

Orain hiru urte 'Triángulos en la cueva' autoekoiztutako lehen lana atera eta gero, bigarren eleberriarekin dator aretxabaletarra: 'Camina despacio, muy despacio'

Aitor Agiriano ARETXABALETA

Maiatzaren 10ean kaleratu zuen *Camina despacio, muy despacio* bigarren liburua David Arregi aretxabaletarrak. Harrokeria, apaltasuna, diru-gosea, politika... izan dira liburu berrian landu dituen gaietako batzuk.

Nola heldu zenion *Camina despacio, muy despacio* argitaratu duzun bigarren liburua idazteari?

Triángulos en la Cueva lehen liburua amaitu nuenean, buruan nuen jada beste bi liburu idatziko nituela: bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Ez beste hizkuntza batean idazteko asmoa neukalako, baizik eta, batzuetan, landuko den gaiak eramateen duelako euskaraz edo gaztelaniaz idaztera.

Lehen eleberria zeuk autoekoiztua izan zen. Bigarren hau ere bai?

Ez, Bartzelonako Autografía argitaletxearekin kaleratu dut bigarren liburu hau. Idatzitako bi liburuak batera argitaratzeko asmoa nuen. Baina, gaztelaniaz idatzitakoak baiezkoa jaso bazuen ere, euskaraz idatzitakoak ez zuen onespenez eduki. Beraz, oraingoan, hori da kaleratu berri dudana.

Zenbat denbora igaro duzu abentura berri honetako hitzak idazten?

Egia esan, ez da denbora luzeko kontua izan. Liburu motza da eta ideia konkretu bat garatzea izan da kontua; urte eta erdi inguruan idatzi ditut bi lanak. **Fikzioan edo errealitatean oinarritu zara istorio berri hau idazteko?** Fikzioa da. Azkenean, landu ditudan gaiak edonoren interesekoak izan daitezkeen kontuak dira, egunerokotasunean gertatzen diren eta zaizkigun gauzak jaso ditut-eta bertan.

Idatzi zenuen lehen istorioarekin loturatik ba al du bigarren honek?

Ez, ez du bata bestearekin loturatik. Nire aburuz, aurreko eleberria sakonegia zen eta oraingoa, aldiz, arinagoa eta irakurterraza da.



David Agirre, *Camina despacio, muy despacio* liburua eskuan duela. MIRARI ALTUBE

"LIBURUAK IBILBIDE BAT EGITEA DAKAR, GAIAREKIKO JAKINMINA PIZTUKO DIO IRAKURLEARI"

Idazteko orduan baduzu gustuko duzun txoko edo momenturik?

Gauetz idazten dut, lo egiteko orduak kenduta. Ordu horietan lasaiago egoten naiz, eta, niretzako, hura da idazteko unerik aproposena.

Spoiler-ik egin gabe, zer aurkituko du irakurleak *Camina despacio, muy despacio* liburu berrian?

Beldurra-ren bila joatea aitzakia izan da, azkenean, harrokeriaz eta apaltasunaz hitz egiteko barne ezagutza bat eman nahi izan dudalako. Ametsen ingurukoa ere bada beste tarte bat eta barne ezagutza hori ere ametsen inguruan garatuko du irakurleak.

Nori zuzendutako istorioa da? Adin konkretu baterako idatzi duzu...

Hainbat arlo ezberdin agertzen dira bertan, eta arlo berri bat garatzeko interesa duenarentzat da liburua. Esan moduan, hain-

bat arlotako hastapenak agertzen dira idatzitakoan eta irakurle bakoitzak ikus dezake zer den bere intereseko edo irakurri duenetik zein bizipen bizi izan dituen berak ere. Azken finean, gustuko den gai bat aurkituz gero, hori sakontzeko aukera emango dio.

Zein bide erabilia edo non eskuratu ahal izango da liburua?

Bide ezberdinak erabiliz lor daiteke liburua: modu erraz eta merkeena, Aretxabaletan, Durana kalean dagoen kioskora gerturatuta izango du herritarrek. Bestetik, Casa del Libro liburu dendara joz gero ere badago eskuratzeko aukera. Hori bai, aurrez egin beharko du eskaera bide hau erabiltzen duenak.

Etorkizunari begira, zein asmo duzu idazle moduan?

Gaur egun oso zaila da idazle izatetik bizi izatea, ez du bizi izateko nahiko diru ematen. Gustuko dudalako idazten dut, zaletasun bat da niretzako. Momentu aproposa etorri, denbora eduki eta barne gogoia piztuz gero, nork daki, istorio eta abentura berri gehiago etorriko dira irakurlearen gozamenerako.



Screamers & Sinners taldea, disko berriaren aurkezpen kontzertuan. IMANOL SORIANO

'Hypnosia!' diskoa kaleratu du Screamers & Sinners taldeak

Runble In Mondra bigarren pshyco jaialdian aurkeztu zuen hamahiru kantuz osatutako hirugarren lana

Aitor Agiriano ARETXABALETA

Hypnosia! disko berria atera dute Aretxabaletako eta Arrasateko kideek osatzen duten Screamers & Sinners taldeak.

Pshychobilly eta rock-and-roll doinuak jasotzen ditu hamahiru abestiz osatu duten lanak, eta, horietako batean, *A-68* kantu klasikoaren bertsioan, MCD taldeko Rockan-en kolaborazioa ere izan dute.

Euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz sortu dituzte abestiak eta Londresko Diablo Records UK diskoetxearekin argitaratu dute lan berria, hain zuzen.

Biniloan eta CDan eskuragarri

Formatu ezberdinetan dago eskuragarri: alde batetik, 3-D azala duen binilo formatuan, laranja edo berde kolorean, eta, bestetik, ohikoa den CD formatuan. Oraingoan, Arrasateko Osorik tabernan dago erosteko aukera, eta baita eskainiko dituzten kontzertu guztietan ere.

Aurki, gainera, zuzenean izango dira abesti berriak entzungai: ekainaren 7an, arratsaldean, Aretxabaletan eta ekainaren 8an Gasteizko Hell Dorado Kultur Elkartearen eskainiko dituzte emanaldiak, besteak beste.

Bueltan da Geroa Sortuz, udako futbol campus arrakastatsua

Uztailaren 1etik 5era egingo dute eta maiatzaren 31ra arte egongo da izena emateko aukera

Aitor Agiriano ARETXABALETA

Bederatzigarren urtez egingo dute Geroa Sortuz udako futbol campus arrakastatsua. UDAn antolatutako udaleku itxiak izango dira honako hauek eta Euskal Herriko haurrek parte hartzeko aukera izango dute.

Aurreko aldietan moduan, entrenatzaile eta monitorea kualifikatu eta esperientziadunek gidatuko dute campusa.

Futbolaz gain, ingeleza, adimen emozionala, Zubieta eta Anoetako instalazioak bisitatu, Realeko jokalariekin egon eta kirol

praktika ezberdinak gauzatuko dituzte. Aurten, gainera, lehen sorospen eta nutrizio ekintzak ere landuko dituzte.

Uztailaren 1etik 5era egingo dira eta 2006an, 2007an, 2008an, 2009an eta 2010ean jaiotakoek izango dute izena emateko aukera, maiatzaren 31ra bitartean. Hala, 60 haurrentzako lekua dago eta izena emate ordena bera erabiliko dute plazak betetzeko. Bestalde, ekainean bilera informatiboa egingo dute, izena eman dutenekin, xehetasun guztiak azaltzeko.

Intxaurtxueta auzoko etxebizitzak forma hartzen ari dira

Promociones Eskoriatza SAK bukatuko ditu Intxaurtxueta auzoko etxebizitzak

Eskoriatzako herriko sarreran, Intxaurtxueta auzoko 28, 29, 30 eta 31. atarietako urbanizazio lanak dagoeneko amaitu dituzte.

Lau atari horiei dagozkien garajeak ere, bi solairutan banatua,

eginda daude. Eta 30. atariko etxebizitza ere gauzatuta dago.

Promociones Eskoriatza enpresaren asmoa da 28 eta 29. atarietako fatxadak eta 28.eko etxebizitzak egitea; herriko ikuspegia nabarmen hobetuko da.



Intxaurtxueta auzoko etxebizitzen garajeak.



Eraikina, Intxaurtxuetako sarreratik ikusita.



Herriko sarreratik duen ikuspegia.

Zaharren egoitzara ikuskizuna eskaintzera

Tortolis ludotekako haurrak Jose Arana zaharren egoitzara joango dira gaur, 18:00etan, egoiliarren eta familiakoen aurrean ikuskizuna eskaintzera. Aurtengoa bigarren edizioa izango da, eta gaia, betiko kanta eta dantzak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Haurren artean autonomia, sormena eta lagunkidetasuna sustatzeko iaz hasitako ekimenari jarraipena emateko asmoz, aurtun ere Jose Arana zaharren egoitzara joango dira Tortolis ludotekako neska-mutikoak egoiliarrei ikuskizuna eskaintzera. Gaur, 18:00etan, Eskoriatzako 30 haur inguru joango dira egoitzara, eta aurtun oinarri gisa jarri duten gaia betiko kantuak eta dantzak izango da.

"Iaz izandako arrakastaren ostean, aurtun berriz joatea erabaki dugu. Neska-mutikoek zirkua eskaini zieten iaz egoiliarrei, eta ederto pasatu genuen. Emozioz betetako saioa izan zen, eta egoiliarrek eta bertaratu ziren guraso eta familiar guztiak oso pozik geratu ziren. Hori horrela, gogoz daude haurrak berriro zaharren egoitzara joateko", adierazi du Tortolis ludotekako Nekane Atxaga arduradunak.

Kantuak eta bertsoak

3 eta 12 urte bitarteko hurrek honako egitarau hau prestatu dute gaurko saiorako: lau abesti kantatuko ditu haur talde batek; hiru abesti musikatu gitarrarekin eta trikitiarekin lagunduta, batzen diren haur guztiek abestuta; denboraren



Tortolis ludotekako gaztetxoak zaharren egoitzan breakdancea egiten. GOIENA

arabera hiru edo lau dantza egingo dituzte; eta amaitzeko, bi bertso eskainiko dituzte. "Eskoriatzako Irati Etxebarrieta eta Leire Lezeta gazteak etorriko dira gurekin egoitzara, eta gitarra eta trikitiarekin abesti batzuk joko dituzte. Honela, herritar aktiboak eredu moduan izan ditzaten", adierazi du Atxagak. Aurtengoa gaia betiko dantzak eta kantak izatearen arrazoia ere zein den adierazi du Atxagak: "Betiko kanta eta dantzak transmititu gura dizkiegu haurrei, eta baita euskararen garrantzia.

Hori horrela, kanta batzuk berriak proposatutakoak izan dira, dakizkitenak, eta beste batzuk denon artean aukeratu eta ikasi ere egin ditugu. Seguru gaude egoiliarrei gustatuko zaizkiela".

Familiarrek ere ikuskizunera

Jose Arana zaharren egoitzako egoiliarrez gain, Tortolis ludotekako haurren familiakoek ere aukera izango dute ikuskizunaz gozatzeko. Hori horrela, saioa eskainiko duen haur bakoitzeko bi sarrera banatuko dituzte etxe-koak gonbidatzeko.

M-26

Programaren berri ematen

Eskoriatzako EAJko kideak hauteskunde-domeka aurretik herriko zenbait txokotan izan dira, programaren berri ematen. Horrez gain, parte-hartzea bultzatzeko proiektuarekin jarraitzeko prest daudela esateko, ikus-entzunezkoa gauzatu dute, EAJren proiektuaren ardatz azpimarragarrienak adierazita.



EAJ ESKORIATZA

M-26

Ekarpinak, jasota

Herritarren eta eragileen ekarpinak jasota, bi behar nagusi identifikatu ditu EH Bilduk: argiteriari soluzioa ematea eta herri kontseilua eratzeko inizatiba hartzea. Horrekin batera, gaur, Mertxe Aizpurua Kongresurako EH Bilduko hautagaiak eta Eluska Irazu EH Bilduko alkategaiak solasaldia eskainiko dute, 19:00etan, plazan.



EH BILDU ESKORIATZA

M-26

Intxaurtxuetan informatzen

Hauteskunde-kanpainaren azken txanpan, Elkarrekin Podemos Eskoriatzako kideek programaren nondik norakoak aurkeztu dituzte Intxaurtxuetan. Informazio-mahaia jarri, eta, maiatzaren 26ko hauteskundera begira, eskoriatzarrei botoa eskatzeko aprobetxatu zuten agerraldia, besteak beste.



ELKARREKIN PODEMOS ESKORIATZA



ESKORIATZAKO ELIZATEAK
LANDAGUNE-BIZIGUNE

EMAN BOTOA!



Kirol elkartearen egunean, kalera aterako dute kirola

Eskoriatza Kirol Elkartearen eguna izango da zapatuan, eta prestatu dituzten ekintza guztiak Fernando Eskoriatza plazan egingo dira: bizikleta eta patinekin trebezia jokoak eta haur eta gurasoentzat saskibalo txapelketa, besteak beste

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Kirol Elkartearen eguna ospatuko dute bihar, zapatua, eta, urtero moduan, kirola ardatz, orotariko ekintzak antolatu dituzte egun osorako. Elkartearen eguna ospatzeaz batera, kirola kalera ateratzeko aprobetxatuko dute, hala, jai giroan, egiten dutena herritarrei erakusteko asmoz.

Aurten 24. edizioa izango da, eta, urtero moduan, Fernando Eskoriatza plazan egingo dituzte ekintza guztiak; eguraldiak laguntzen badu, behintzat. Hala ez bada, ekintzak frontoian egingo dituzte.

Patata-tortilla lehiaketa

Azken hiru edizioetan ez dute patata-tortilla lehiaketarik antolatu, baina aurten berreskuratzea erabaki dute. Hori horrela, herritarrei parte hartzeko eskatu gura die elkarteak. 12:00ak aurretik eraman beharko dira tortillak plazara, eta 13:00etan,

Zapaturako egitaraua

Fernando Eskoriatza plazan

- **11:00-13:00** Umeentzako tailerrak eta bizikleta eta patinekin trebezia jokoak.
- **12:00** Patata-tortilla lehiaketa; 12:00etarako plazara eraman beharko dira. Sari banaketa 13:00etan izango da.
- **14:00** Emakumeen Bira.
- **14:30** Herri bazkaria. Paella erraldoia.
- **17:30** Umeentzako areto futboleko jokoak.
- **18:30** Gurasoei eta umeeni zuzendutako saskibalo txapelketa.
- **19:15** Txuleta-parrilada.
- **21:30** Super Esko Loteren zozketa.

sariak banatuko ditu epai-mahaiak. Guztira, hiru egongo dira: tortilla onena, ikusgarriena eta originalena. Eramaten dituzten tortillak pintxotan salduko dituzte, gero, plazako txosnan. Horrekin batera, aurten, Emakumeen Bira zapatuan pasako da plaza aurretik, 14:00ak bueltan, eta kirol elkartearen egunaren bueltan batzen direnak errepidera gerturatuko dira txirrindulariak animatzera.

Eskerrak komertzioei

Domekero, produktuz betetako saski bat zozketatzen dute Zauratza taberna aurrean Eskoriatza Elkartearen kideek. Zapatuan, berriz, Super Esko Lote zozketa egingo da: "Herriko komertzioek hainbat produktu eskaini dizkigute. Agian, egiten dugun lana estimatzen dutelako edo... baina benetan eskertu nahi diegu eman diguten laguntza", adierazi du Javi Corbal elkartearen presidenteari.



Iazko martxan, parte-hartzaileak Gatzagako plazan gora. IMANOL SORIANO

Ekainaren 2ko Gatzagako BTTTrako izen-ematea, zabalik

Aurtengo edizioan, bidezidor berriak izango ditu berritasun Gatzagako mendiko bizikleta martxak

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Dorleta Txirrindularien Lagun Elkarteak antolatuta, Leintz Gatzagako BTT martxa egingo da ekainaren 2an. Inskripzioak egin daitezke dagoeneko *Kirol-probak.com* helbidean, eta horretarako azken eguna maiatzaren 31 izango da. Aurtengoa hamazazpigarren edizioa izango da, eta, antolatzaileek adierazi dutenez, iazko ibilbidearen antzekoa izango da, moldaketa txiki batzuekin.

Gatz Bidea ezagutzera

Gatzagako plazan hasiko da martxa, 09:30ean, eta bi berritasun izango ditu: batetik, ibilbidean zehar egongo diren desbideraketak, eta, bestetik, Gatz Bidean egingo den zati bat. "Iazko ibilbidea asko gustatu zitzaion parte-hartzaileei, eta aurtengoa berdina izango da, aldaketa txiki batzuekin. Plazatik hasita,

Gatz Bidera jaitsiko dira parte-hartzaileak, eta, berriro herrira bueltatuz, Isuskitza aldera joango dira; gero, Hiruerreketa ingurura, eta handik, Makatz-gain aldera joan ostean plazan amaituko da martxa. Guztira, 33 kilometro izango ditu ibilbide luzeak, baina desbideraketak hartuta motzagoa egiteko aukera ere izango da", adierazi du Beñat Agirreurreta antolatzaile taldeko kideak.

Eskerrak laguntzaileei

Boluntario ugari aritu da lanean pistak ondo jartzen. Orain, bidea markatzea soilik geratuko zaie, eta egunean bertan ere izango dute laguntza beharra. Batez ere, 20. kilometro aldera egongo dira edateko eta jatekoak –anoa postua–, eta bertan egongo direnei zein helmugan egongo direnei eskerrak eman nahi dizkiete aldeztu aurretik antolatzaileek.

Txapelduna zintarekin

Pasa den asteburuan Gasteizko Abetxuko kiroldegian jokaturako Gimnasia Erritmikoko Euskadiko txapelketan, lehenengo postua lortu zuen Nahia Arguiz eskoriatzarrak zinta modalitatean. Hori horrela, Euskadiko txapeldun berria da.

Taldekakoan ere, Alaitz Aranbarri kidearekin batera lehen postua lortu zuen, senior mailan.



ANGELA FRIXI

Gasteiz nafarra ezagutzera

Gatzagako Herri Liburutegian Nafarroako Erresumari buruzko hitzaldiei jarraipena emateko asmoz, *Gasteiz nafarra ezagutu* izeneko bisita gidatua izan zuten Martin Ttipia elkartearen eskutik, pasa den zapatuan, hainbat gatzagarrek –30 inguru–. Alde zaharreko lau gunetan historiako pasarte ezberdinak ezagutzeko aukera izan zuten, besteak beste.



GATZ MUSEOA



Eztalako aldagelak arrakalaz beteta 2017ko urrian. GOIENA

Eztalako aldagelak prest 2020ko maiatzerako

Dena ondo bidean, aurtengo udazkenean, azaroan, hasiko lirateke Eztala zelaiko aldagela berrien obrak. 300.000 euroko kostua izango dute lanek; Antzuolako Udalak, baina, Diputazioarekin adostutako akordioaren ondorioz, 105.000 euro jarriko ditu

Maidar Arregi ANTZUOLA

Datozen asteetan sinatuko dute Gipuzkoako Diputazioko Kirol Departamentuak eta Antzuolako Udalak Eztala futbol zelaiko aldagela berriak egiteko hitzarmena. Aldagela berriek 300.000 euroko aurrekontua izango dute. Hitzarmenaren arabera, ordea, Antzuolako Udalak bi urteko epean 105.000 euro jarriko ditu. Kolpe bakarrean, aldiz, beste 105.000 euro Gipuzkoako Diputazioko Kirol Departamentuak jarriko ditu. Gainontzeko 90.000 euroen kargu autobideko enpresa den Bidegiren aseguruia egingo da. "Autobideko obrak hasi zirenean pitzatu ziren aldagelak. Makinen hondeaketa lanen eta lurraren mugimenduaren artean harremana dagoela ondorioztatu du Bidegiren erantzukizun zibileko aseguruak. Ondorioz, 90.000 euro emango diola enpresak Antzuolako Udalari adostu dugu. Eta Diputazioarekin gainontzekoa erdi bana ordainduko dugula hitzartu berri dugu",

argitu du Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak. Alkateak gaineratu du aldagela aurrefabrikatuak jarrita dauden arren, Antzuolako Kirol Elkartearekin aurrez adostu zuela aldagela berriak egitea -30 urte inguru dituzte eta-.

Obraren kronologia

Eztalako aldagelen proiektua egiteko konkurtsoaren pleguak maiatzean idatziko dira. Proiektua egiteko oinarriak, aldiz, ekainean argitaratuko dira. Eta proiektua egiteko kontratua uztailean esleitu da. "Proiektua paperean jasota irailean edukiko dugu", argitu du Kortabarriak.

Obrak egiteko kontratua esleitzeko, baina, azarora arte

EZTALAKO ALDAGELA BERRIAK EGITEKO LANAK AZARO BUKAERAN HASIKO LIRATEKE

itxaron beharko da, aurrez bestelako tramitazio lanak egin behar direlako. Lanak, hain justu ere, azaro amaieran hasiko lirateke.

Dena ondo bidean, 2020ko maiatzerako Eztalak aldagela berriak edukiko dituela aurreratu du alkateak.

Aukerak aztertzen

Lanak dirauten bitartean, aukera posible guztiak aztertzen dihardu Antzuolako Udalak Antzuolako Kirol Elkartearekin. "Aukera guztiak zabalik daude. Izan ere, obra hasi arte eta egoera zein izango den ikusi arte ez dakigu zein aukera egongo den. Agian, beste toki batera joan beharko dute futboleko jokatzera, edo ez. Obra nola egingo duten eta makineriak zein espazio beharko duen aztertzea izango da gakoa. Gogoratu Eztala berritzeko lanak egin zirenean ere Antzuolak Sorluzen eta Oñatin jokatu zuela", argitu du Kortabarriak.



Joseba Egibar jeltzalea martitzeneko kanpaina ekitaldian. MAIDER ARREGI

Egibar: "Antzutasunetik irteteko Antzuola eraiki behar dugu"

Martitzen goizean egin zuen Antzuolako EAJK kanpaina ekitaldia; bertan izan zen GBBeko buru Joseba Egibar

Maidar Arregi ANTZUOLA

Joseba Egibarrek Antzuola etorkizuneko sarean jarri beharra aldarrikatu zuen: "Antzuola ez da uharte bat eta Gipuzkoako herri guztien etorkizuneko sarean jarri behar dugu. Herri, eskualde eta lurralde ikuspegia izan behar du Antzuolak. Antzutasunetik eta geldotasunetik ateratzeko, Antzuolak astindu eraikitzailea behar du".

Basilio Ormazabalek, alkatezta eskuratuz gero hartuko lukeen lehen neurria garbiketa araudi bat ezartzea izango litzatekeela

aurreratu zuen: "Aspaldian dauden herriko pintaketak kenduko nituzke eta herrian garbitasun araudia ezarriko nuke hauteskundeak irabaziz gero. Atez ateko bilketa sistemarekin ados dauden ere galdetuko nieke herritarrei". Ormazabalek zerrenda osatzeko zailtasunak izan dituztela onartu arren, Aitor Urrutia eta Miren Elgarresta kide izatea eskertu zuen: "Esperientziadun politikariak dira. Helburua laugarren zinegotzi Iñigo Ramirez de Okariz antzuolarra lortzea ere badugu", aurreratu zuen.

Torresoroako lanak uztailean hasiko dira, alegaziorik ez bada

Ekainean, txosten teknikoa egingo du Hirigintza teknikariak; lanak bi hilabeteko epean egingo dira

Maidar Arregi ANTZUOLA

"Torresoroako obra egiteko lizitazio deialdia abian da. Hala, ekainaren 6an zabalduko dira deialdira aurkeztutako gutunazalak. Alegaziorik ez balego, posible da uztailean lehen astean Torresoroako lanak hastea", azaldu du Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak.

Alkateak aitortu du prozesua luze joan dela: "Lanketa handia izan da Torresoroaren auzia, luze joan da, baina prozedura oso azkarra izango da eta egun naturaletan egingo dugu. Lizi-

tazio elektronikoa lehenengoz egin dugu eta, gainera, saiatu gara gaika ateratzen proiektua. Horrek esan nahi du kontratazailearen profilean alta emanda dagoen arotzak, iturginak... aukera duela lehiazteko. Era berean, herriko gremio ezberdinek deialdian parte hartzeko aukera izan dute; alta emanda badaude, noski".

Ekainean, beraz, txosten teknikoa egingo du Hirigintza teknikariak, eta, behin aukeraketa eginda, lanak bi hilabeteko epean egin beharko dira.

Hasi dira hilerrri ingurua txukuntzeko lanak

Ekain bukaera arte iraungo dute hilerrriaren aurrealdea konpontzeko lanek. Izan ere, autobideko obrako langileek ekain bukaeran amaituko dituzte autobideko obrari dagozkion txukuntze lanak. Hala, obra horien kargu Gipuzkoako Diputazioa egingo da

Maidar Arregi ANTZUOLA

Pasa den astean abiatu zituzten hilerrriaren kanpoaldea txukuntzeko lanak. Izan ere, obrako kamioien joan-etorriek errepidea hondatzeaz gain, hilerrriaren sarrera eta aurrealdea ere desitxuratu dute. "Autobideko langileak aurreko astean hasi ziren hilerrriaren aurrealdea txukuntzeko lanak egiten. Izan ere, Gipuzkoako Diputazioako Azpiegitura Departamentua lan horien kargu egingo zela aurrez adostuta geneukan. Antzuolako Udala ez da lan horien kargu egingo, beraz", argitu du Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak.

Hala, hilerrri aurrealdean anfiteatro itxura izango duen eskailera jarriko dute. Eskailera eta hilerrriaren aurrealdea batuko duen plataforma, aldiz, maila berean jarriko dutela ere aurreratu du Kortabarriak.

Bestalde, argitu du hilerrri barruan ez dela lanik egingo, oraingoz: "Hilerrrian bertan ez da konponketa lanik egingo; historikoki mugimendua izan da, eta, zenbait hilerrri mugitu diren arren, badirudi orain ez dagoela aparteko mugimendurik; hala ere, aztertu beharko dugu aurrerago zer gertatzen ari den".



Hilerrri aurrealdean makinak eskailerak egiteko lanetan. MAIDAR ARREGI

EKAIN BUKAERAN AUTOBIDEKO OBRAREN TXUKUNTZE LANAK AMAITUTA EDUKITZEA DA ASMOA

Bide alternatiboa

Zubiarekin konektatzen duen behin-behineko obrako bidexka mantendu egingo dutela aurreratu du alkateak. "Egun, hilerrik zubiraino doan behin-behineko bidexka bat dago

egina. Eta mantentzeko eskatu diegu obrako teknikariei. Modu horretan, Torresoroaren atzealdetik beste bidetxo batekin lotzeko aukera ematen digu. Hau da, errepidea gurutzatu gabe, eskailerak saihestu eta hilerrira joateko aukera emango lioke bizikletaz edo gurpil aulkian dagoen herritarriari. Hau, baina, oraingoz, irekita eta zehaztu gabe dagoen aukera bat da soilik", azaldu du Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak.

Lanak ekain bukaerarako amaituta egingo dira.



Kortabarria: "Kontrakoa dioten arren, gauza asko egin ditugu"

Ur-parkea, komun publikoak, gazteria plana, baserrietarako ur-sarea... dira agintaldiko inbertsioak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Atzo iluntzean egin zuen Antzuolako EH Bilduk hauteskunde kanpaina ekitaldia Zurrategin. Ekitaldian zehar, hautagaiak banan-banan nolako Antzuola gura duten koloreztatu eta irudikatu zuten marrazki baten bitartez.

Ekitaldiari hasiera Beñardo Kortabarria zerrendaburuak eta egungo Antzuolako alkateak eman zion, "hau ez da gaur hasi" esalditik abiatuz. Beñardo Kortabarriak ilegalizazio garaitik gaur egunera arteko errepasoa egin zuen: "2.100.000 euroko zorrarekin hartu genuen Udala; urtero 200.000 euro inguru zor hori kitatzeko erabili behar izan baditugu ere, gauza asko egin dira azken agintaldietan. Hala, egungo zorra eta gerakina pakekatuta dauzkagu". Kortabarriak azken lau urteotan egindakoaren errepasoa ere egin zuen: "Batzuek kontrakoa dioten arren, gauza asko egin ditugu: Torresoroa, gazte txokoa eta gimnasioa geureganatu ditugu. Ur-parkea eta herritarrendako komun publikoak jarri ditugu. Garbitasuna-

ren egoera hobetu edo zoladura-lanak ere egin ditugu. Eta Antzuolako baserri guztiek ura edukitzearen errealitatea geroz eta gertuago dago".

Lehen sektorea indartzeko ekimenak egin dituztela eta herriko gazteekin lanean ari direla azpimarratu zuen atzoko ekitaldian.

EH Bilduko zerrendaburuak nabarmendu zuen, baina, parte hartze plana egin dutela agintaldi honetan: "Gehiengo osoa edukita beste batzuek egingo ez luketen moduan herritarren parte hartze plana egin dugu".

Antzuolan gertatutako uholdeek eragindako ondorioei aurre egiteko lanean dihardutela azaldu zion Zurrategiko plazan batutako herritarrei: "Obrak eragindako uholdeei eta haren ondorioei aurre egiten saiatzen ari gara, nahiz eta ez eduki laguntza handirik".

Ekitaldiaren amaieran, herriko produktuekin osatutako luntxa dastatu zuten bertaratutakoek: "Izan ere, ekonomia zirkularra sustatzea ere badugu helburu".

Botiken ordainketa partekatua eskatu dezakete erretiratuek

Botiken ordainketa partekatua eskatu dezakete urteko errenta 18.000 euro baino txikiagoa duten pentsiodunek. Eskaera Landa-txoperen egoitzan maiatzaren 27an eta 28an 16:00etatik 18:00etara bitartean egin dezakete.

Aurreko urtetan laguntza jaso dutenen kasuan, aldiz, Landa-txoperen egoitzan prest duten orria sinatu behar dute soilik. Eskaera berrien kasuan, ondorengo dokumentazioa eraman beharko dute: banketxe kontu korrontearen titularrak dela ziurtatzen duen agiria -banketxean eskatuta-, nortasun agiria eta Osakidetzako txartela. Eskaera, esan bezala, Landa-txoperen egoitzan, hilaren 27an eta 28an.

Eskola ereduaren alde sinadura bilketa hasi du Pausokak


Antzuolako eskola ereduaren alde sinadura bilketa abiatu du datozen egunetarako Pausokak Guraso Elkarteak. Helburua da herritar ororen atxikimendua jasotzea eta herriko hainbat gunetan mahaia jartzea sinadurak jasotzeko. Egun Herri Eskolak bizi duen egoera zein den herritarrei helaraztea ere bada guraso taldearen asmoa.

Gaur, eskola aurrean jarriko dute mahaia, 16:30etik 17:30era. Domekan, 12:30etik 14:30era eta 19:00etatik 21:00etara Kalebarrenean. Maiatzaren 28an eta 30ean ere eskola aurrean egongo da aukera, 16:30etik 17:30era: eta ekainaren 1ean, 12:00etatik 14:00etara, Kalebarrenean.

Hilerrri aurrealdeko lanen planoak

Hilerrriaren aurrealdeko txukuntze lanak bukatzean, anfiteatro itxura duen eskailera bat egongo da -ikus eskuineko planoan-.

Zubia eta hilerrriaren aurrealdea lotzen duen behin-behineko bidea ere mantendu egingo da. Horrenbestez, bizikletaz edo gurpil aulkian igotzeko aukera izango dute herritarrek.



Hilerrirako bidea konpontzeko proiektua. ANTZUOLAKO UDALA

Baobeer garagardoak bi sari jaso berri ditu

Mikel Irazabal eta Maite Barrainkua pozik egoteko moduan dira. 2017an sortu zuten Baobeer, eta garagardo onenaren saria jaso dute Ordiziako garagardo artisauaren azokan eta urrea Madrilgo Beermad azokako Specialty IPA kategorian

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

"Oso pozik gaude. Azken finean, sariak jasotzea bultzada da gure produktua ezagutzera emateko eta seinale da gauzak ondo egingen ari garela", azaldu dute.

Sei edo zazpi urte dira etxean garagardoa egiten hasi zirela. "Afizio moduan hasi ginen, baina gauza batek bestera eramaten zaitu eta, azkenean, Baobeer sortzera iritsi ginen 2017an". Sari gehiago ere jaso izan ditu Elgetan ekoiztutako garagardoak. "Gure helburua kalitatezko produktu bat ekoiztea da. Garagardo industrialak kontsumitu izan da hemen. Egia esan, ez da ia besterik egon. Lager motakoak izan dira nagusi; apalak eta zapore aldetik oso suabeak". Bestelako garagardoak badaudela diote Baobeer-eko sortzaileek, eta buru-belarri dabilta horretan. India Pale Ale (IPA) motako garagardoak egiten dituzte, eta, hortik abiatuta, azken urteetan izan diren aldaketen ondorioz sorturiko Specialty IPA kategoriakoak. "Beti zoaz ikasten eta gauza berriak probatzen. Bi garagardo motarekin hasi ginen eta orain lau ditugu, baina zazpi ere egin izan ditugu. Asmoa da ikasten jarraitzea eta gauza berriak probatzen segitzea".



Mikel Irazabal eta Maite Barrainkua, Madrilgo jasoetako sariarekin. BAObEER

"OSO POZIK GAUDE; SARIK BULTZADA DIRA PRODUKTUA EZAGUTZERA EMATEKO"

Lau mila litro, iaz

Denbora luzea eskatzen die Baobeer proiektuak. "Pixkanaka-pixkanaka, bagoaz gero eta toki gehiagotara iristen, eta sariak laguntzen dute, baina ez da errazta. Artisanu garagardoak merka-

tu zati oso txikia du -%1 inguru- eta hor barruan gero eta marka gehiago gaude".

Irazabalek eta Barrainkuak lau mila litro inguru ekoiztu zituzten iaz. Apur bat gehiago ekoiztu nahi dute aurten. "Produktore nomadak gara. Horrek esan gura du garagardogile ibiltariak garela eta ez dugula fabrika propiorik. Gure probak eta gure errezetak eginda, baina beste batzuen fabriketan ekoizten dugu, eta guk egiten ditugu baita ere komertzial eta banatzaile lanak".

Ordiziako azokatik ere sariarekin

Maiatzaren 19an jaso zuten Madrilgo saria eta astebete lehenago Ordiziako. "Gustatzen zaigun estiloa AEBetako garagardogile artisauena da. Lupulu asko dutenak, eta zapore zein usain aldetik fruta, belar eta lore zaporekoak". Haizea eta Bolatoki tabernetan aurki daiteke Baobeer garagardoa. Debagoienean, berriz, Ereindajan dendetan.



Barrainkua eta Irazabal, Ordiziako azokako txapelarekin. BAObEER

M-26



ENEKO AZURMENDI

Kanpaina amaierako afaria gaur

Elgetako EH Bilduk gaur emango dio amaiera hauteskunde kanpainari. Asteotan hiru hitzaldi eta hauteskunde programa aurkezteko ekitaldia egin ostean, gaurko triki-poteoa eta afaria iragarri dituzte. Triki-poteoa 19:30ean hasiko da, plazan, eta afaria 21:30ean izango da Bolatoki tabernan. "Amaiera alaia emango diogu kanpainari", adierazi dute.

M-26



ELGETAKO EAJK

Sustapen ekonomikoa lehentasun

EAJK proiektu sendoa duela adierazi du, eta lerro nagusien berri eman. Aintzane Oiarbide alkategaiaren iritziz, Elgetaren motor ekonomikoa industria da, eta bultzatu egin behar da. "EH Bilduren Gobernuak ez du inolako saiakerarik egin industrialdeko edo nonahiko enpresen egoera jakiteko, eta aberastasunik gabe ez da kalitatezko zerbitzurik".

Mendi taldeak bi irteera iragarri ditu datozen egunetarako

Domekan egingo dute maiatzeko irteera. Balmasedan dagoen Kolitzara joango dira Elgetatik, 08:00etan abiatuta. Kantsatzeke Txikitik, berriz, familia giroan egiteko irteera iragarri dute ekainaren 2rako. Leintz Gatzagatik abiatu eta Atxorrotxera izango da ibilaldia. Gatz Museoa bisitatzeko aukera ere izango da. Izen-emateak zabalik daude.

OHARRAK

Ipuinen Ordua, gaur
Boluntario taldearen eskutik hiru saio liburutegian, 17:00etan hasita.

Ozkarbi eguna
Bazkaria eta erromeria izango dituzte bihar, elkartean.

Hiru txirilo jardunaldia
Gipuzkoako txapelketako jardunaldia bihar, 17:00etan, Elgetako bolatokian.

Ametsak espaziora bidali izana "zoragarria" izan da

"Primeran" irten zen Aranzadiko ikasleek Nazioarteko Espazio Estazioan bizi den Nick Hague astronautarekin egin zuten irrati bidezko zuzeneko konexioa: "Futbolaria izan nahi zuten semeak amari esan dio orain zientzialaria izan nahi duela; bete dugu helburua"

Jokin Bereziartua BERGARA

"Zoragarria izan zen. Ilusioa barra-barra genuen eta dena primeran irten zen. Ikasleek nekez ahaztuko dute maiatzaren 17an bizi izan zutena". Aranzadi Ikastolako irakasle Manu Arregiren adierazpenak dira, Nazioarteko Espazio Estazioan dagoen Nick Hague astronauta estatubatuararekin egin zuten zuzeneko konexioaren bueltan bizi izandakoa deskribatzeko. *Ametsak espaziora* aukeratu dute ekimen berezarako lelo moduan, eta, ikasleen ilusioa ikusita, Aranzadiko ametsa bete dutela ondoriozta daiteke. "Taldea oso polita izan dugu, oso dinamikoa. Konfiantza osoa izan dut hasieratik haiengan; ezustekoren bat egonda ere, banekien ondo erantzutuz gurea", argitu du Arregik.

Dena "primeran" irten zen

Dena "primeran" irten bazen ere, zuzeneko konexioaren aurretik ezusteko txiki bat izan zuten; irrati-zale baten bidez komunikatu behar zuten astronautarekin –Jon Sistiaga, Felipe Uriarte eta Alex Escartin irrati-zale euskaldunen laguntza izan zuten–, eta konexiorako ordu zehatza 10:51 baziren ere, proba egiteko deirik ez zuten jaso alde aurretik emandako



Astronautarekin zuzeneko konexioa egin ostean ateratako talde argazkia. A. EZKIBEL

telefono zenbakira: "Urduritzen hasi ginen, baina berehala ohar-tu ginen idazkaritzara deitu zutela... Eskerrak".

Ahaztuko ez diren hamar minutu

Hamar minutu eskas iraun zuen konexioak. Hogei galdera zeuden aurreikusita, ingelesez, betiere, baina, azkenean, hiru galdera erantzun barik geratu ziren. "Horixe izan zen pena bakarra, ikasle guztiek ezin izan zutela nahi zuten galdera egin", gogoratu du Arregik. Hori bera adierazi zion GOIENARI proiektua

gauzatzeko ideia izan zuen Mainer Jorge ikasleak, ekitaldia bukatu berritan: "Astronauta luzatu egin da apur bat erantzutetan, eta horregatik ezin izan ditugu galdera guztiak egin. Baina primeran irten da, zain egon gara egun hau heltzeko. Astronautak kontatu digu oso gustura bizi dela estazioan, baina familia igartzen duela faltan". Ilusioa eta urduritasuna, baina, galdera ingelesez egin behar zuten ikasleengan antzeman zitekeen, bereziki, Lehen Mailako Julen eta Oier tartean: "Nik [Julen] galde-

tu diot ea zer sentitzen den espazioan eta esan dit ohitzea kostatu arren orain gustura dagoela. Nik [Oier] galdetu diot ea zer igartzen duen faltan han eta erantzun dit bereziki familia ondoan ez izatea dela gogorra".

Nazioarteko Espazio Estazioa lurretik 408 kilometrora dago, eta segundoko zazpi kilometroko abiadura mugitzen da. Ordu eta erdian ematen dio bira Lurrari, eta estazioa Australia gainetik pasatu zen unean egin zuten konexioa, irrati bidez.

Futbolaria beharrean, zientzialaria

Maiatzaren 17koa izan zen egun handia, baina ikasturte osoko lanketa egin dute Aranzadin ARISS izeneko proiektuan parte hartzeko. Gogora ekarri behar da Estatuan aukeratutako hiru ikastetxeetako bat izan zela Aranzadi, Sevillako eta Mallorcako ikastetxe banarekin batera, eta gaiaren bueltan proiektu pedagogiko bat garatzea zen baldintzetako bat. Proiektua garatu dute, eta baita herrira begira ekitaldi interesgarri batzuk antolatu ere. Tartean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots estratosferara bidaltzeko *Katxiporreta II* misioa; lehenengoan kale egin ostean, maiatzaren 4an bidali zituzten pailazoak espaziora.

Proiektuaren balorazio orokorra oso positiboa da, Arregiren arabera: "Ama batek esan dit semeak futbolaria izatea nahi zuela eta esperientzia hau bizi ostean zientzialaria izatea nahi duela. Beraz, bete dugu helburua". Amaitzeko, bailarako beste ikastetxeak animatu ditu parte hartzera: "2001etik egunera arte Estatuan hamalau ikastetxek hartu dute parte; ederra litzateke bailarako beste ikastetxe bat murgiltzea abentura honetan".

Labegaraietako biltegi zaharra botatzeko lanak hastear daude

Labegaraietako kiroldegia berritzeko proiektuaren barruan biltegi zaharra botatzeko lanak datozen egunotan hasiko dira, eta lan horiek hilabete iraungo dutela aurreikusten da. Kiroldegia bera berritzeko lan handienak, baina, 2020an zehar egingo dira: kantxa berria jartzea, sarrera berrantolatzea, komunak eta taberna birkokatzea, igogailua jartzea eta bi lokal berri sortzea –auzotarrendako bata eta kirol taldeentzat bestea–. Horrez gain, rokodromoa handituko dute eta itxitura jarriko zaio, besteak beste. Diputazioak ia 600.000 euroko dirulaguntza eman zion Udalari proiektu horretarako, 2019rako eta 2020rako.

Aparkaleku gehiago egokituko dituzte San Martzialerako bidean

Obra esanguratsu batzuk egingo dituzte Goiauzoan, San Martzialerako bidean. Igoerako eskuinaldean dauden 16 aparkalekuak kendu egingo dituzte, eta oinezkoendako pasabide seguru bat egokituko. Igoerako ezkerreko aldean, berriz, egungo 16 aparkaleku kendu egingo dituzte, areka bota eta kanpoaldean egokituko dute areka berri bat, eta gune asfaltatua handitu egingo dute 39 aparkaleku egiteko. Plaza berri horiek baterian aparkatzeko izango dira. Artzamendi enpresari esleitu dio obra Udalak, 79.483 euroko aurrekontuarekin –BEZA barne–, eta lanak uztailean hastea dago aurreikusita.

OHARRAK

Pentekosteak: parrilada eta herri bazkaria

Ekainaren 7an seminarioko karpan egingo den parriladarako txartelak ekainaren 5era arte daude salgai azokako Izotz postuan. Bestalde, ekainaren 10eko herri bazkarirako txartelak, geratzen badira, Udaleko Kultura Zerbitzuan eskura daitezke: 943 77 91 00.

Erorikoak prebenitzeko saioa adinekoentzat

Maiatzaren 28an eta 30ean, Agorrosinen (16:30-18:00). Izena eman behar da Agorrosinen bertan edo osasun zentroan.

Droneak pilotatzen ikasteko tailerra

Gaztelekuan egingo dute bihar, 17:00etatik 20:00etara, eta 10 eta 15 urte artekoak dago zuzenduta. Prezioa bost euro da: 688 69 61 58.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matsiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UGARTE

AROTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak - Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak - Eskailerak -
Leihoak - Tarimak -
Egur lanak

I21
K
KALITATA
Enpresa Registrada Nº09/025



EAJ zerrendakideak, Elena Lete alkategaiarekin, Arrizuriaga jauregiaren atarian. A.T.

Arrizuriaga Factory aurkeztu du EAJk, berrikuntzarako gune gisa

Ekimen kolaboratiboak eta teknologia berriekin sortzeko aukera eskainiko luke Arrizuriaga berrituak, besteak beste

Jokin Bereziartua BERGARA

Hurrengo agintaldirako "apustu bat" aurkeztu du asteon EAJko alkategai Elena Letek: Arrizuriaga Factory. Jeltzaleek Arrizuriaga berrikuntza digitalerako eta herritarren partaidetzarako gune bihurtu nahi dute. Letek azaldu du balio kultural eta naturaleko ingurune batean, Bergarako tradizioak, sorkuntza kulturalak eta herriko elkarteek bat egingo duten espazioa izango dela; berrikuntza soziala, ekimen kolaboratiboak ala *coworking* egitasmoak bultzatuz, eta teknologia berriekin esperimentatzeko eta sortzeko aukerak emanez.

Gainera, parkeak "eraldaketa sakon bat" izan ostean, aire libreko auditorium bat egin nahi dute, "ikuskizunetarako eta topaketetarako". Jeltzaleek diotenez, Espoiloiko kioskoa ordezkatu luke auditorium horrek. Gazte bulego bat ere jarri gura dute.

San Juan auzoan industria hobetu

Bestalde, Lete eta Aintzane Oiarbide diputatua San Juan auzoan izan ziren atzo. Hango industria jarduera "nabarmen" hobetzeko neurri batzuk iragarri zituzten: "Enpresek GI-627ra sarbide nahiko erraza badute ere, beharrezkoa da bidearen trazatua eta profila zuzentzea, tamaina handiko ibilgailuek ez dezaten izan zailtasunak gehiegizko aldapagatik. Badago bereziki kurba bat, Zabaleta parean, bolumen eta zama handiko ibilgailuei buruhausteak sortzen dizkiena".

Urkullu, Olano eta Egibar ondoan

Maiatzaren 19an egin zuen EAJk kanpainako ekitaldi nagusia; Iñigo Urkulluk, Markel Olanok, Joseba Egibarrek eta EAJko beste zenbait goi karguk babestu zuten Lete. Gaur, kanpainako azken egunean, eskuorriak banatuko dituzte Matxiategin (18:30).



Matute berbetan, Gorka Artola alkategaiaren eta Leire Iruin zinegotziaren ondoan. M.B.

Udalean "eredu berria" sartzeko "oso gogotsu" dago EH Bildu

Artola eta Matute herritarren galderak erantzuten aritu ziren; Bergaran "aldaketa gertatzeko" botoa eskatu zuten

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako EH Bilduk asteen egin dituen ekitaldien artean, eguazten iluntzean Gorka Artola alkategaiak Oskar Matuterekin izan zuen solasaldia nabarmendu beharra dago. Irala kalera hurbildu ziren herritarren "galdera zehatzak" erantzuten aritu ziren. Artolaren hautagaitza eta zerrenda babestu zuen, eta, horrez gain, EH Bilduren ezaugarri nagusiak hauek direla esan zuen Espainiako Kongresuko diputatu izendatu berriak: ustelkeriarik eza, gardenetasuna eta agindutakoa betetzea.

Proiektu berrirako "oso gogotsu"

Artolak, berriz, esan zuen "oso sentsazio onekin" bukatu zuela solasaldia: "Plazera izan da herritarren galderak zuzenean erantzutea; uste dugu herria aldaketa bat eskatzen ari dela. Azken lau urteotan gustatu ez

zaizkigun gauzak ikusi ditugu eta espero dugu aldaketa nahi hori egia bihurtzea". Botoa ematearen garrantziaz mintzatu zen EH Bilduko alkategaia: "Aldaketa beharraz jakitun garenok mugituko gara, baina herritar guztiak izango direla ezinbestekoak Udalera ikuspegi aurrerakoi bat eramatea nahi badugu". Kanpaina "luzea eta nekagarria" izan dela aitortu arren, "proiektu eta eredu berria" Udalean martxan jartzeko "oso gogotsu" daudela esan zuen Artolak.


Kultura jaialdia gaur, amaitzeko

Kanpaina amaitzeko, kultura jaialdia antolatu dute gaurko, Kruz Gallastegin, 20:00etan hasita: Bergarako emakume musikariek, Talkak eta Brigade Loco taldeko kideek jarriko diote musika, eta ondoren, argazki erraldoia aterako dute.

Ahal Dugu-Podemos: "Gobernuko kide izateko asmoz gatoz"

Ahal Dugu-Podemosen "politikaren ikuspegi soziala duen programa" aurkeztu du hurrengo lau urteei begira: "Ikuspegi soziala duen programa, hormigoira zuzendua egon barik, ezta kontratazio publikoekin bizi diren enpresetara ere. Irabazterira irtengo gara Udal Gobernuko kide izateko asmoarekin, horrela gure programa gauzatu ahal izateko".

"Auzo kaltetuenak" eraberritzea ere badu lehentasun Jose Maria Sasieta zerrendaburu duen talde moreak: "Zubietako, Osintxuko eta Zubiaurre-Martoko auzoei buruz ari gara, utzita dauden auzo hori eraberritu egin behar dira. Gainera, erretiratuen eta gazteen egoitzak irekiko ditugu Boluan eta Zubiaurre-Martokoa, eta, era berean, zahar egoitzara iristeko arrapala eta eskalera mekanikoak jarriko ditugu. Etxeko animaliek gozatzeko esparruak egokituko ditugu gainerako herritarrekin harmonia zainduta".



Alberto Alonso arrosak banatzen. J.I.

Irabazik Podemos salatu du eskuorrietako irudi okerrenatik

Alderdi moreak Ezker Anitzaren eta Equo Berdeak-en logoa erabili duela salatu dute eta arrazoia eman diote Irabaziri

Jokin Bereziartua BERGARA

Irabazik hauteskunde batzordearen aurrean salatu zuen, maiatzaren 16an, Bergarako Ahal Dugu-Podemosen etxe banatutako eskuorrietan Ezker Anitza eta Equo Berdeak

alderdien logoa erabili izana. "Ezker Anitza eta Equo Berdeak Irabazi Bergara izeneko koalizioan aurkezten dira maiatzaren 26an, 2015eko udal hauteskundeetan egin zuten moduan; orduan, zinegotzi bat lortu genuen

[Aiert Lizarralde]". Hauteskunde batzordeak Irabaziri arrazoia eman, eta Ahal Dugu-Podemosi agindu dio berriro ere etxez etxeko banaketa egin dezatela bergararrei akatsaren berri emateko.

Auzoak, Seminarixoa, Algodonera...

Bestalde, Irabaziren programan ingurumena eta justizia soziala izango dira ardatzak. Hiri-gintzan, besteak beste, Zubieta, Mekolalde, Osintxu, Iraburu eta Zubiaurre auzoak eraberri-

tzeari emango dio lehentasuna Irabazik. Era berean, Seminarixoa aretoaren kudeaketan herritarrek era zuzenean parte hartzea nahi dute eta seminarioko parkingaren proiektuaren aurka agertu dira, beste behin; Algodonera zegoen lekuan jarriko lituzkete apartakalekuak.

Gaur iluntzean mahaiak Iralan

Eguaztenean programa banatzeko mahaiak jarri zituzten San Martin plazan eta gaur iluntzean Irala kalean egongo dira.

PSE-EE: seminarioko parkingaren eta neurri sozialen aldarrikapena

PSE-EEko alkategai Alberto Alonsok begi onez ikusten du seminarioko parkinga: "Beharrezkoa da, erosotasuna emateko, ez bakarrik Bergaran bizi den jendeari, baita beste zenbait zerbitzulari datozeneztat ere; epaitegira edo unibertsitatera, esaterako". Horrez gain, neurri sozialak "irmoki" defendatzen ditu Alonsok, "herrian behar gehien" dutenez arduratzeko.

Txapelak eta irribarreak minbiziari aurre egiteko

Katxalin elkarteak 'Mila txapela, mila irribarre' kanpaina abiatu du, minbiziari aurre egiteko tratamenduan daudenei txapelak emanda babes psikologikoa eta emozionala emateko; Donostiako, Txagorritxuko eta Gurutzeetako ospitaleetan banatuko dituzte txapelak, irailean

Jokin Bereziartua BERGARA

Bularreko eta ginekologiako minbiziaren aurka lanean diharduen Katxalin elkarteak 100 bat bazkide ditu Bergaran eta 700 inguru Gipuzkoan; elkarteak egoitzak ditu Bergaran -jardueretarako San Joxepen elkartzen dira, astelehenetan eta egubakoitzetan-, Ordizian eta Donostian. Udalarekin hitzarmen bat sinatu dute, bereziki *Mila txapela, mila irribarre* izeneko kanpaina babesteko.

Kanpainak helburu argia dauka: tratamenduan dauden pazientei txapel bana oparitzea, kimioterapiaren zeharkako ondorio den ilearen galtzearen

aurrean babes psikologikoa eta emozionala eskaintzeko. Katxalin elkarteko bazkideak hasita daude Asun Dominguez diseinatzaileak birziklatutako telekin eta kolore alaiekin txapelak egiten, eta Donostiako, Txagorritxuko eta Gurutzeetako ospitaleetan ingresatuta daudenei emango dizkiete. Hitzarmenari esker, Katxalinek 1.000 euro jaso ditu Udalaren partetik.

Banaketa, irailean aurreikusita

Minbizia pasatu duten emakumez osatuta dago, bereziki, Katxalin elkarteak. "Minbizia pasatu dugunok egoera horretan daudenak babesten ditugu. Josteko elkartzen

gara, minbiziaren aurkako lasterketan hartzen dugu parte eta bestelako hainbat jarduera ere antolatzen ditugu. Entzuteko, informatzeko eta berba egiteko topaleku bat gara", dio Katxalinek kide Maite Valle. Hark aurreratu duenez, asmoa da txapelen banaketari jarraipena egitea eta modu pertsonalizatuan helaraztea txapel horietako bakoitza. "Lanean hasita gaude, eta Diputazioak esango digu noiz hasi banaketarekin. Kalkulatzen dugu irailean hasiko garela txapelak banatzen", gaineratu du Valle. Laguntza emateko edo argibide gehiagorako: 669 66 47 12 edo 943 24 56 08.

Mizpirualdeko langileen greba

Mizpirualde egoitzako langileek bi hilabete pasa daroate greban, eta euren aldarrikapenen berri eman zuten domekan San Martin plazan, EAJren kanpainako ekitaldi nagusia zegoela aprobetxatuta. "Kanpainan oso hitz politikak entzuten ari gara, baina gure arazoak hor dirau. Hitzarmen berriaren zain gaude oraindik", azaldu zuen ELAko ordezkari Bego Gainzak.



IMANOL SORIANO

Bergara Hiria argazki lehiaketa martxan da, ekainaren 12ra arte

Bergara Hiria argazki lehiaketaren 35. edizioa martxan da eta lanak ekainaren 12a baino lehen entregatu beharko dira. Argizaiola lehiaketarako puntuagarria da, eta Euskadiko edozein argazkilarik har dezake parte. Zuri-beltzeko eta koloretako modalitateak ditu lehiaketak, eta edozein teknika edota prozedura onartuko da; gaia librea

izango da. Lau sari banatuko dituzte modalitate bakoitzean, eta laugarren saria bergarar onenarentzat izango da. Ekainaren 14an emango du epaimahaiak erabakiaren berri eta ekainaren 21ean banatuko dizkiete sariak irabazleei.

Argazkiak udaletxera bertara eraman daitezke, Bergararren Arreta Zerbitzura, eta posta ziurtatuz ere bidali daitezke. Argibide gehiago behar izanez gero: 630 97 55 00 (Joseba) edo arizondoae@gmail.com.

José María Sasieta Korta
BERGARAKO ALKATEGAIA

BERGARA
Zuekin
prest!

BERGARA
Zuekin prest!

Biztanle agurgarria:

Bergarako alkatezarako hautagai gisa aurkezten natzaizu **Ahal dugu Podemosen** izenean. Konpromiso handiko talde batekin batera lan egingo dugu Udalean, Bergara bizitzeko leku aproposa izan dadin. Izan ere, bizitzeko leku bateko egoiliar izatea baino gehiago da; lan egitea da, erlazionatzea, zaintzea, zaindua izatea, gozatzea, parte hartzea. Horregatik, maiatzaren 26an Elkarrekin Podemosen-gan konfiantza izatera animatzen zaitut. Bergara bizitzaz betetzeko, feminismoan eta jasangarritasunean oinarrituta eta aukera-berdintasuna bermatuta.

José María Sasieta Korta

BOZKATU **AHAL DUGU
PODEMOS.**



Herritarrek artelanei begira, San Martin plazan. IMANOL SORIANO

Herriko artisten lanak erosteko aukera "ona"

Beart elkarteak Beart eguna ospatuko du domekan. Irala kalean, 11:00etatik 14:30era bitartean, aire libreko erakusketa eta Beart azoka egingo dituzte; bazkalondoren, Juanjo Altuna margolaria omenduko dute, egindako lana eskertzeko

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA
Herriko artisten lanak gertutik ezagutzeko eta, bide batez, horiek erosteko "aukera paregabea" egongo da domekan. Beart eguna ospatuko dute; eta hainbat berrikuntza izango ditu aurten-egongo edizioak.

Leku aldaketa izango du aire libreko erakusketa: "San Martin plazan egin izan dugu, baina konturatu gara pasoko lekua dela, jendea ez dela han geratzen; Irala kalean, aldiz, jendea egoten da, eta, horregatik, Irala kalera aldatuko ditugu erakusketa eta azoka", azaldu du Bearteko presidente Karlos Galarragak. Domekan Irala kalean egongo dira 11:00etatik 14:30era arte. Formatu ertain eta handiko obren erakusketa izango da: olioak mihiase gainean, akuarelak, akrilikoak... erakutsiko dituzte, besteak beste. Galarragak azaldu du Bearteko hogeitabi kideen lanak jarriko dituztela ikusgai domekan egingo duten erakusketan.

'Bezoka': Beart azoka
Erakusketarekin batera, *Bezoka* ere egingo dute Irala kalean. Berritasuna izango den azoka da; helburua da herritarrei aukera eskaintzea Bearteko kideen artelanak erosteko. "Obra arinak izango dira: akuarelak, kopiak... jendeak erosteko modukoak, prezio egokian", azaldu du Galarragak. Formatu txikiko obrak izango dira, eta gutxienezko prezioa 5 euro izango dute eta gehieneko 40 euro. "Ez dago aitzakiarik Bergarako artisten lanak ez erosteko!", gaineratu du Bearteko presidentek.

Irala kalea girotzen DJ Turukiña ibiliko da: zuzeneko musika elektronikoa jarriko dute goiza girotzeko. Gainera, Irala

BERGARAKO ARTISTEN LANAK 5 ETA 40 EURO ARTEAN JARRIKO DITUZTE SALGAI 'BEZOKA' AZOKAN

kalean toloak jarriko dituzte, euritik eta eguraldi txarretik babesteko.

Egitarauarekin jarraitzeko, bazkaria izango dute Bearteko kideek Erreki jatetxean. "Erakusketan parte hartu edo ez, bazkideen arteko bazkaria izango da. 35 bat lagun elkartzeko gara", dio Galarragak.

Omenaldia Juanjo Altunari
Bestalde, Juanjo Altuna Akizu (Arrasate 1943) omenduko dute bazkalostean: "Iaz, esaterako, ez genuen inor omendu; aurten, bazkide baten proposamena izan da Juanjo omentzea", azaldu du Galarragak. "Egindako lana" eskertu gura diote Altunari. "Beti egon da Bergarako margolari gazteei laguntzen, erakusten... ehunka sari lortu ditu, pintura irakasle da eta oraindik aktibo dihardu Beart eta Bergara izena aire ageriko margo lehiaketetan zabaltzen", nabarmendu du Bearteko presidentek.

Jarri dituzte salgai Mahonero Eguneko bazkariko txartelak

Ekainaren 1ean, zapatua, Seminarixoko karpan izango da bazkaria. Depor tabernan eros daitezke txartelak

A.E. BERGARA

Herriko jaien bezperan ospatuko dute aurten Mahonero Eguna. Ekainaren 1ean izango da, zapatua. Seminarixoko karpan egingo den herri bazkariko txartelak Depor tabernan eros daitezke dagoeneko –nagusiek 20 euro, gaztetxoek 15 euro–.

Goizeko hamarretan hasiko dute jaia, puzgarri eta jolasekin; bazkariaren ondoren, sariak banatuko dituzte eta arratsalde partean, mus txapelketa eta mahai-futbol txapelketa izango dituzte. Gaua Dj Julenek girotuko du. Egubakoitzean, hilak 31, buruhandiak, afaria –parri-lada– eta musika izango dituzte.

Emakumezkoen topaketa

Mahonero Egunaren aurretik, BKEk neska futbolariaren topaketa egingo du, bihar, zapatua, Agorrosinen. 11:00etan elkartu-



Herri bazkaria. I.S.

ko dira, futbol zelaian, eta adin guztietako neskei zuzendutako topaketa izango da. Askotariko ekintzak egingo dituzte jardunaldian zehar; jokatzeko aukera izateaz gain, hitzaldi txikiak ere izango dituzte topaketara joango diren neskek.

Liderra izango dute aurrean

Soraluce BKEk ez du ezer izango jokoan domekako lehiari; izan ere, igoera faseko ametsari agur esan diote mahoneroek, Legazpiren aurka 24-27 galdu ostean. "Kolpe gogorra" izan zela dio Muniategik, baina denboraldi hasierako helburua kategoriari eustea zela gogoratu du. Taldeko lider den Munttarperen aurka jokatuko dute domekan, 12:15ean, Ispillan.



IMANOL SORIANO

Bergarako Orfeoi Gaztearen eta Leioako abesbatzaren saioa

Bihar, zapatua, agertokia partekatuko dute Bergarako Orfeoi Gazteak eta Leioako Gazte Abesbatzak. Mariaren Lagundian izango da saioa, 19:00etan. Talde bakoitzak bere emanaldia eskaini ostean, *Imagine* eta *Lau teiatu* abestiak kantatuz amaituko dute saioa. Gaur, aldiz, *Ahotsak batuz* saioa eskainiko du orfeoiak Musika Eskolakoekin –19:30–.

Gipuzkoako Bertso Txapelketako kanporaketa bihar

Udazkenean jokatuko duten Gipuzkoako Bertso Txapelketako kanporaketak jokatuko dituzte, *Gipuzkoa Bertso* izenarekin. Hala, kanporaketa horietako bat bihar jokatuko da, Bergaran –17:00etan, Seminarixoan–. Eli Pagola, Oier Iurramendi, Ane Zuazubiskar, Urko Arregi, Pello Basurto eta Beñat Mujika izango dira bertsolariak.

Entzun, ikusi eta dantzan egiteko gonbita kartzelan

Bergarako Elektronika Topaketaren bosgarren edizioak Bergarako, Euskal Herriko eta Estatuko artista esanguratsuak batuko ditu bihar, hilak 25, kartzela zaharrean; 13 orduz etengabe izango dira emanaldiak, eta antolatzaileek espero dute 350 sarrerak saltzea

Jokin Bereziartua BERGARA

Euskal Herriko eta Estatuko underground eszenako elektronikaren izen esanguratsu batzuk elkartuko dira bihar, maiatzak 25, kartzela zaharrean. Izan ere, badator Bergarako Elektronika Topaketaren (BET) bosgarren edizioa. 17:00etan hasiko da doinu elektronikoen eta proiektzio ikusgarrien festa eta 06:00ak baino lehen ez da amaituko. 13 orduz, etenik gabe, askotariko "proposamen interesgarriez" gozatzeko aukera egongo da.

Sarrerarik ez alde aurretik

Ondoko taulan ikus daitezke aurtun zeintzuk izango diren artista gonbidatuak; antolatzaileek nabarmendu dute "oso polita" geratu dela kartela: "Aurreko urteetan moduan, askotariko estiloak izango ditugu aurtengo BETen ere. Proposamen oso interesgarriak izango ditugu, gurean batere ohikoak izaten ez direnak", adierazi du antolakuntza taldeko kide eta elektronikaren munduan ibilbide luzea duen Asier Balzategi bergararrak, *DJ Balza*-k. Bi agertoki jarriko dituzte: "Agertoki nagusiarekin batera barruko terrazan ere izango ditugu saio batzuk hasierako orduetan; eurria egiten badu, barra ondoko agertokian izango dira". Antola-



BET antolakuntza: Zabaleta, Balzategi, Maiora eta Arteaga. J.B.

tzaileek gomendatu dute goiz hurbiltzeko kartzela zaharrera; izan ere, aurreikusten dute bost eurotan salgai jarriko diren 350 sarrerak saldu egingo direla: "Jaso ditugu deiengatik-eta sentsazioa dugu sarrerak nahiko goiz agortuko direla".

'Txefa' eta 'Baba', besteak beste BETeko antolatzaileak underground eszenaren barruan mugitu izan dira, bereziki, eta, beraz, orain arte gonbidatuak ez dira izen oso ospetsuak izan. Aurten, baina, izango da salbuespenik:

"Aurten, *Txefa* [Aitor Etxebarria] etorriko da, beti jende asko erakartzen duen artista. Laguna dut eta aspaldi nenbilen BETera etortzeko proposatzen; aurten, bere burua proposatu du eta gure artean egongo da. Azkenaldian, DJ izateari utzi egin dio apur bat eta pelikuletarako soinu bandak ekoizten dabil buru-belarri. Beste maila batean dago", dio *DJ Balza*-k. *Baba* ere nabarmendu du Balzategik: "Hamar urte baino gehiago daroate jo barik; BETen itzuliko dira, ikuskizun ederra da. Ohorea da guretzat".



GOIENA

"Diru barik, kontaktuak dira gakoa"

ASIER BALZATEGI, 'DJ BALZA' ANTOLATZAILEA

Bergaran elektronikaren betetan badago, hori *DJ Balza* da, zalantza barik. BETen antolatzaileetako bat da hasieratik eta uste du "oso pozgarria" dela topaketa hau herrian egitea.

Lan handia da BET bat antolatzea?

Gabonetatik ari gara; bost lagun, bereziki. Gustura egin arren, lana da, bai.

Aurrekonturik ez duzue, apenas. Nola osatu duzue kartela?

Elektronika mundua ezagutzen dugu eta asko laguntzen du kontaktu-sare bat izateak, eskaintza ona izan dadin. Ez dugu dirurik, ez dugu dirulaguntzarik eta ez dugu publizitatea egiteko aukerarik. BET, kartzela zaharreko ekimen guztiak bezala, autogestionatua da, eta lana boluntarioa. Artistek hori badakite eta gure baldintzak onartzen dituzte; hori oso eskertzekoa da.

Egitarau osoa

Zuzeneko emanaldiak

- **18:00etatik 19:00etara Echo (Gasteiz)** Elektronika esperimentalta eta *ambient* iluna.
- **20:00etatik 21:00etara. Aitor Etxebarria + Banda (Bilbo)** Tresna akustikoen eta elektronikoen arteko konbinazioa. Pianoen eta sintetizadoreen presentzia. Aski ezaguna eszenan.
- **23:00etatik 00:00etara Jai Tiruriru (Donostia)** *Krautrock*-a eta Alemaniako elektronika biltzeko gai dira.
- **01:00etatik 02:00etara Baba (Bilbo)** Urte luzez isilik egon ostean, BETen eskainiko dute bueltako lehen emanaldia Fernando Carvalhok eta Yogurina Borovak. Elektronika eta antzerki dibertigarria.

DJak

- **17:00etatik 18:00etara / 19:00etatik 20:00etara / 00:00etatik 01:00etara** BET Bertako DJen eskutik, askotariko emanaldiak.
- **21:00etatik 23:00etara Josechu Souldier (Kantabria)** Magia ematen da haren nahasketetan; saio oso dantzarriak.
- **02:00etatik 04:00etara Alicia Carrera (Bartzelona)** Psikodelia kosmikoa, techno ziberdelikoa, house-a eta new wave-a bat eginda.
- **04:00etatik 06:00etara Chelis (Zaragoza)** 20 urtez DJ arituta, generoak konbinatzen trebea. Magma jaialdiaren *alma mater*-a.

Irabazi



Bergara

BOZKATU



ezker anitza

equo

INDEPENDIENTEAK



UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2019

Etzi botoa ematera joateko deia EH Bilduk

EH Bildu alderdiak gaur, egubakoitza, egingo du hauteskunde kanpainako azken ekitaldia, nagusia. Foruen plazan izango da, 20:00etan. Azken urteetako ereduarekin jarraituko dutela adierazi eta botoa ematera joateko dei egingo du alkategaiak

Oihana Elortza OÑATI

Domekan botoa ematera joateko mezua zabalduko du gaur, egubakoitza, EH Bilduk, plazan egingo duen ekitaldi nagusian. "Azken urteetako bidearekin jarraitzeko eta aldaketa horretan sakontzeko, garrantzitsua da domekan bozkatzea", adierazi du EH Bilduko alkategaiak, Izaro Elortza Arregik. Dio "gogotsu" daudela domekara begira, "ilusioz", eta etziko hauteskundeetan parte hartzeko deia zabaldu gura du, "ez dadila inor etxean gelditu". Ekitaldia 20:00etan da, Foruen plazan.



Izaro Elortzak eta Mikel Biainek martitzen egindako solasaldia. AMAIA TXINTXURRETA

Ereduaren jarraipena

Etziko udal hauteskundeetara "konfiantza" doazela ere badio Elortzak, eta orain arte egin den herrigintza motarekin jarraituko dutela gaineratu. "Konfiantza ematen digu eredu horrek. Asmoak eta proposamenak daude, alde batetik, baina horrek besteko garrantzia du horiek egiten diren moduak, eta azken urteetako ereduarekin jarraitu gura dugu guk. Oposizioan egotea tokatuz gero ere oposizio ona egingo dugu, aktiboa, proposamenak eginez. Eta beti errespetuan", azpimarratu du. Proiektuak egiteko eredu sakonduz, herritarrei erakutsiko diete EH Bilduk azken zortzi urte hauetan egin duen lana zein izan den eta lan horrekin jarraitzeak zein garrantzi duen. Adibideak erabiliko dituzte hori azaltzeko.

Taldeak ondoan dituela egingo du berba EH Bilduko alkategaiak, taldearen ezaugarriak aurkeztuta. Astean Mikel Biainekin batera egindako solasaldian herritarrengandik

jasotako hausnarketak eta han egindako galderen erantzunak ere irakurriko dituzte. Elortzak gainera, Biainek berak eta Oihana Etxebarrietak hartuko dute hitza, baina dena ez da jende aurreko jarduna izango; musika eta bestelakoak ere egongo dira, adibidez.

Balorazio ona

Kanpainari erreparoa eginda, EH Bilduko alkategaiak adierazi du oso pozik daudela herritarren aldetik jasotako babesarekin: "Esparru ezberdinetako herritarrena jaso dugu, gazteena, erretiratuena, emakumeena, kultur arloan ari direnena... eta jende asko batu da egindako deialdi denetan". Herriko eragile ezberdinekin egindako bilerak aberasgarriak izan direla adierazi du, eta egiten jarraituko dutela gaineratu. "Lan asko egin dugu. Sare sozialetarako prestatu ditugun bideoak ere asko zabaldu dira, erantzun ona izan dute eta pozik gaude, bai", esan du Elortzak.



UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2019

Domekan etxean ez gelditzeko mezua EAJk

"Udal ordezkariak aukeratzeko eguna izanda" botoa ematera joateko eskatu die herritarrei Ainhoa Galdos alkategai jeltzaleak. Alkatetza lortuz gero lehen 100 egunetan zer pauso emango dituzten eta lehentasuna zerk izango duen esan dute

Oihana Elortza OÑATI

Oñatira "aldaketa ekarriko duten" urratsak agintaldiko lehen 100 egunetan egingo dituela jakinarazi du EAJ alderdiak, egunetan egindako prentsa agerraldian. "Egoera ekonomiko estuan dago Udala, lotuta, eta lehentasunak ondo markatu beharko ditugu, ondo kudeatzeko. Norabide bat duen kudeaketa arduratsu eta errealista bat behar da, irmoa izango dena", adierazi du alkategai jeltzaleak, Ainhoa Galdos Olazarrek.

"Oñatin aldaketa eragiteko" hartuko dituzten lehentasunak



EAJko kideak, egun eguerdian Zumeltzegi dorrean egindako ekitaldian. O.E.

ko neurriak ere aipatu ditu: kale eta auzoen konponketa eta garbiketa, puntu ilunetan argiteria hobetu, hondakinen bilketarako sistemaren birplan teamendua, tokiko merkataritza bultzatzea eta bizi kalitateari eustea. Landa ingurua garrantzitsua dela adierazi dute eta alkatetza lortuz gero lehen 100 egunetan egingo duten beste asmoetako bat Herribusa auzotara heltzea izango dela gaineratu du Amaia Erostarbe zerrendakideak; Larrañara, Murgiara, Lezesarrira, Zañartura eta Garagaltzara, adibidez. Kirol azpiegituren azterketa integrala eta menpekotasuna duten senideendako laguntzak ere aipatu ditu Erostarbek.

Kanpaina

Hain zuzen ere, gaur, egubakoitza, dute lehen sektoreko hainbat herritarrekin hitzordua eginda euren kezkek eta iritziak jakiteko. "Kanpaina zehar herriko hainbat eragilerekin batu gara eurekin berba egiteko, eta horrela bukatuko dugu. Bakoi-

tzaren arloan, gure proiektua zein den azaldu diegu", dio Galdosek. Alderdiko beste politikari batzuek Oñatira egindako bisitek ere euren pisua izan dutela adierazi du Galdosek, hala nola Markel Olanoren, Joseba Egibarren, Aitor Estebanen eta Maite Peñaren bisitek. Kanpainaren balorazio ona egin du Galdosek, eta pozik daudela esan.

Astelehenetik aurrera

Domekara begira, botoa ematera joateko mezua eman gura die Galdosek herritarrei: "Bakoitzak erabakiko du zeini eman botoa, baina udal ordezkariak aukeratzeko eguna da eta ezin gara etxean gelditu".

Domekan egingo diren udal hauteskundeek emango dituzten emaitzak edozein izanda ere, "herriaren alde" lan egingo dutela gaineratu du EAJko alkategaiak. "Astelehenetik aurrera ere bakoitzak bereari eutsiko dio, baina errespetuz egin beharko dugu lan, elkar ulertuz, guztiok herrikide izaten jarraituko dugu eta".

Seguruago eta ingurua babestuz eskalatzeko

Gipuzkoako eskalada-guneen proiektua eta, zehazki, Oñatikoen egoera zertan den azaltzeko, agerraldia egin dute Mendizale Federazioko, Aldundiko, Udaleko eta herriko eskalatzailen ordezkariak. Araotzeko 400 bideetatik laurdena berrekipatu dute

Julen Iriondo OÑATI

30-35 urte dira Araotzen eskalada bideak zabaltzen hasi zirela, eta hormetako ekipatze lanak, anklajeak jarri eta horrelakoak, eskalatzailerek eurek egin izan dituzte orain arte, euren poltsikotik ordainduta. Duela urte batzuk egin zen berrekipazio bat; baina, zer gertatuko litzateke etorkizunean materiala berritzeko ardura hori inork hartu ezean?

"Inork lan hori egin ezean, zahartzen joan ahala, istripuak hasiko dira"; Gaizka Galfarsoro eskalatzaila oñatiarrak azaldu-tako gogoeta horretatik abiatuta hasi ziren Gipuzkoa mailan eskalada-guneen proiektu hori lantzen. Eskalada-guneei kirol azpiegitura publiko izaera ematea da kontua, eta, horrela, eskalatzailen segurtasuna ahal beste bermatzea. Herrialdeko hainbat herritako 25 eskalada-gune jarri zituzten jomugan, eta hamazazpirekin egin dute, oraingoz, aurrera: horietako bideak berrekipatzen ari da Federazioa. Hamazazpi gune horietako bi daude Oñatin, Kortakogainekoa -Atxuri du izen ofiziala; 42 bideetatik, 33 berrekipatu dituzte dagoeneko- eta Araotzeko -400 bideetatik, laurdena berrekipatu dute-.

Udalak proiektuan sartzea erabaki zuen, kanpoko jende asko erakartzen duelako eta gehiago erakar dezakeelako eskaladak Oñatira -Turismoaren ikuspegitik ere interesgarri bihurtuz-, eskalatzailen segurtasunagatik eta ingurua babesteagatik, Kirol batzordeko buru Borja Mouiaren esanetan. Eskalada-guneen eta bideen gaineko azalpenekin panelak jarri dituzte, eta sarbideak-eta txukun izatea ere Udalaren ardura izango da.

Ingurua babesteari dagokionez, Araotzeko gunean dauden bi aztarnategi arkeologikotan, adi-



Agerraldian parte hartu zutenak. J.I.

ESKALADARAKO UTZI DITUZTE LURRAK JABEEK; TRUKEAN, ERANTZUKIZUN GABETU EGIN DITUZTE

bidez, izan du eragina proiektu honek: "Bi aztarnategi arkeologiko hauek Euskal Herriko ondare erroldatua orokorrean sartuta daude, eta *Garrantzi handiko kultur ondare* izendapena daukate. Horregatik, hogeituroko babes perimetro batean, baime-nik gabe, debekatuta dago edozein jarduera egitea; bereziki, eskalatzeko. Aipatutako bi guneetan badaude eskalada bideak, batez ere Sandailin -sarrerako sabaian eskalada bideak daude-, eta baita beste sektorean ere; beraz, Diputazioko teknikariek erabaki behar zuten ze bide desekipatu behar ziren"; eta alde guztiekin bildu ostean erabaki dute zortzi bide desekipatzea, ingurua babestearren, Gipuzkoako Federazioko Kexus Barandiaranen esanetan -hamar ziren hasieran, baina bi mantentzea *lortu* dute eskalatzailerek-.

Behorra goitik behera

Gaiaren beste ertz bat izan da lur-jabeekin akordioak egitea. Araotzen, esate baterako, hainbat horma lur publikoetan daude, baina badira lur partikularretan ere. Denek utzi dute euren lurra eskaladarako, eta jarduera harekin lotuta gerta daitezkeen gainean erantzukizun gabetu egin dituzte jabeak. Honen garrantzia azaltzeko, adibide bat Gaizka Galfarsorok: "Behin behor bat jausi zen goitik behera; ez zuen inor harrapatu. Baina pentsa harrapatu izan balu. Zeinena da erantzukizuna?". Proiektu honetan egin dutena izan da, beraz, balizko gertaeren erantzukizunak zehaztu eta erakundeen artean banatu. Adibidez, gaizki ekipatutako hormaren erantzule Federazioa izango litzateke, arrazoi horregatik istripuren bat gertatuz gero.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 233.000 euro jarriko ditu proiektu horretarako 2014tik 2020ra. Alde guztien asmoa da 2020tik aurrera ere proiektuarekin jarraitzea, hasieran aurreikusitako 25 eskalada-guneetako lanak egin arte, behintzat.



Eskubaloiko infantil mailako neskek, asteko entrenamendu baten ostean. M.B.

Espainiako txapelketara doa gaur eskubaloiko infantil taldea

Uhartin jokatu da asteburuan txapelketa hori eta hara doa Aloña Mendi, Gipuzkoako talde txapeladuna

O.E. OÑATI

Aloña Mendiko eskubaloiko infantil mailako nesken taldeak Espainiako fasea jokatu du asteburuan Uhartin (Nafarroa). Duela hamahiru urteko esperientzia errepikatuko du Alazne Elkorobarrutiak, orduan jokalaria moduan jokatu baitzuen eta oraingoa entrenatzaile moduan. "Oraindik gogoan dut esperientzia hura eta jokalaria hauek ere hori bizi izatea gura dut, disfrutatzea", dio Elkorobarrutiak.

Egubakoitzean, gaur, abiatuko dira Uhartera eta gaur bertan dute lehen partidua, 18:00etan,

Errioxaren kontra. Zapatuan Uharteren kontra jokatu dute eta domekan finalak izango dira. "Bi fasetan jokatu da txapelketa eta hau da lehenengoa. Hurrengorako sailkatzeko, asteburu honetako norgehiagokak irabazi egin behar ditugu. Zaila izango da, baina denok ilusio handiarekin goaz", dio taldeko entrenatzaileak.

Oso partidu gutxi galdu ditu infantil mailako nesken talde honek denboraldi honetan. Gipuzkoako aurtengo txapeladunak ere eurak dira. Ilusioz eta indarrez doaz Espainiakora.



L.G.

Dominekin Euskadikotik

Mendizorrotzan izan den Euskadiko txapelketan lehiatu dira Aloña Mendiko atletak eta pozik etorri dira egindako lanarekin. 18 urtez azpiko kategorian, Malen Saizek (800 metro) eta Naia Lasagabasterrek (1.500 metro) zazpigarren egin dute eta Igor Mugartzak (3.000 metro), hirugarren. 20 urtez azpikoetako txapeladuna (1.500 metro) Beñat Guridi izan zen.



Aitor Garitano eta Aitor Biain, domekako kontzertuko kartela erakusten. OIHANA ELORZA

Domekako emanaldiak "alarde itxura izango du"

'Txistu eta ahots doinuak' emanaldia domekan izango da, San Migel parrokan, 19:00etan. 100 lagunek hartuko dute parte —90 ahots eta 10 instrumentu-jotzaile— eta euskal abesti ezagunak abestuko dituzte. Sarrerak Txokolateixan daude salgai

Maialen Regueiro OÑATI

Ganbara abesbatzak urtean kontzertu bat eskaintzen du bazkideentzako eta emanaldi hori maiatzeko azken domekan izaten ohi da. Era horretan, aurtengoa domekan, hilaren 26an, eskainiko dute, San Migel parrokan, 19:00etan. Ganbarak *Txistu eta ahots doinuak* izeneko saioa prestatu du iganderako eta bertan, betiko euskal abesti ezagunak abestuko dituzte. Horrez gain, ikusleek abesteko aukera izango dute. Entzungo diren abestietako batzuk dira, besteak beste, *Bizkaia maite*, *Oi ama Euskal Herri* eta *Lau teilatu*. Ganbarako zuzendari Aitor Biainek hau adierazi du: "Urtero egiten dugu saiakera kontzertua berezia izan dadin eta aurturten ere horrela izango da". Eta haxe gaineratu du: "Iaz, The Beatles taldearen abestiak izan ziren protagonista; aurtengo emanaldiak, berriz, alarde itxura izango du, baina musika moderno eta euskal abesti ezagunen kon-

ponketa modernoz osatutako programa izango da".

Emanaldirako sarreraren salmenta abian da. Ganbarako bazkide ez direnek kontzertua ikusteko aukera izango dute, Txokolateixan, zortzi euroren truke sarrera erosita. Horrez gain, domekan bertan San Migel parrokan sarrerak erosteko aukera ere egongo da.

100 lagun

Txistu eta ahots doinuak emanaldian, guztira, 100 lagunek hartuko dute parte, horietatik 90 ahotsak izango dira eta hamar instrumentu-jotzaileak. Ganbarak domekarako prestatu duen programan, Ganbara Faktoria osatzen duten taldeek hartuko

100 LAGUNEK HARTUKO DUTE PARTE IGANDEKO 'TXISTU ETA AHOTS DOINUAK' EMANALDIAN

dute parte: Ganbara Txikitxo, Ganbara Txiki eta Hots taldeak, alde batetik, eta txistuz, silbotez, pianoz baxu elektrikoaz eta perkusioz osatutako musikari talde batek, bestetik. Horrez gain, Aita Madina txistuari taldeko kideek ere parte hartuko dute igandeko emanaldian.

103 bazkide

Ganbara abesbatzak 103 bazkide ditu gaur egun: 23 lagun eta 80 bazkide. Horiez gain, Oñatiko Udala eta ULMA ohorezko bazkideak dira. Biainek, horren harira, haxe esan du: "Datozen bi urteetan 150eko kopurua lortzea da helburua, eta, horretarako, bazkide egiteko bideak zabaldu ditugu: kontzertu egunak eta gure web ataria".

'Humanity at music' ekitaldia

"Igandeko emanaldiaz gain, Ganbarak ekainaren 9an Oñatin entzungo den *Humanity at music* ekitaldian hartuko du parte", esan du Biainek.



M.R.

Ikasturte amaierako emanaldiak

Ikastetxeetako ahozotasuneko eta bertsolaritzako ikasleak ikasturte amaieran daude murgilduta. LHko 5. eta 6. mailako ikasleek eguazten arratsaldean egin zituzten emanaldiak, Santa Ana antzokian.

LHko 4. mailako eta DBHko 1. mailako ikasleen txanda, berriz, hilaren 27an izango da, astelehena, 17:30ean eta 18:30ean, hurrenez hurren.

Korkones eta Plan B taldeen emanaldia gaur, Pako tabernan

21:00etatik aurrera, Pako tabernan musika izango da protagonista, Korkones eta Plan B taldeek eskainiko dituzten kontzertuei esker. Bi taldeek punk-rock musika estiloa jotzen dute, baina bata Pasaiaitak dator eta bestea Donostiatik. Plan B taldeak, gainera, badaki zer den Oñatiko taberna batean emanaldia eskaintzea.

Euskal kantak trikiti doinuen laguntzarekin izango dira domekan

Herrixa kantuan ekimeneko beste hitzordu bat izango da domekan, 12:30ean hasita. Txan-txiku Ikastolak eta Jose de Azpiazu musika eskolak antolatutako kantu-jira Foruen plaza-tatik abiatuko da eta herriko hainbat kaletan arituko dira. Hain zuzen ere, euskal kantuak abestuko dituzte, trikiti doinuak lagunduta.



NIRE USTEZ

LUKENE IGARTUA

Gaitasunak eta mugak (II)

Gaur hamabost, Alazne Guridik hemen hasitako gaiari heldu nahi diot. Baimena eskatu nahi diot —lapurreta txiki horretarako—, eta bere hitzekin bat natorrela esan.

Guztiok gure gaitasun eta mugak ditugula aipatzen zuen eta, adimen urritasuna duen neska baten kasua aipatzen. Neska horrek bezala adimen urritasuna edo elbarritasunena duten pertsonen mugak berehala ikusten ditugu, baina uste dut haien gaitasunetan ez dugula erreparatzen eta beste edonork baino gehiago demostratu behar dutela badituztela hainbat aibilezia.

Egoera hori arlo gehienetan nabarmena bada, kirolean are eta gehiago. Askotan elbarrien eta urritasuna duten pertsonen kirola existitzen denik ere ez dakigulako. Badirudi orain, iraultza bat gertatzen ari dela emakumeen kirolek hasita. Bada, joan den astean kirol egokitutako federazioak bilera bat antolatu zuen familiekin kirol egokitua antolatzeke gure bailaran.

Mugak gaitasun bihurtzeko ekimen honetan ea iraultzarekin jarraitzen dugun.



HAUTESKUNDEAK 2019 GOIENAN

DOMEKAN JARRAITU GOIENAKO HEDABIDEAK

GOIENA TELEBISTAN:

19:45ETIK AURRERA ZUZENEKO SAIOA, GOIATZ ARANAK ETA TXOMIN MADINAK ZUZENDUTA ETA ELENA LAKAREN ETA MIKEL IRIZARREN ANALISIEKIN. HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK, ZUZENEKO KONEXIOAK, ELKARRIZKETAK PROTAGONISTEKIN,...

GOIENA.EUS:

GRAFIKAK, ZINEGOTZIEN TAULAK, BALORAZIOAK...

SARE SOZIALAK:

TWITTER (@GOIENA) ETA FACEBOOK (GOIENA.EUS)

ETA HURRENGO EGUNEAN

GOIENA ALDIZKARIA BEREZIA

HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK, UDALBATZA BERRIAK, BALORAZIOAK, ANALISIAK...

EGUNKARI SALTOKIETAN, TABERNA ETA KAFETEGIETAN... LEHEN ORDUAN, DOAN!
ETA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEI, ETXEAN.

goiena[“]

Zu hemen zaude.

Reala eta Alaves aurrez aurre Mojategin

FUTBOLA Euskal Herria Koparen baitan, Realak eta Alavesek finalerdietako partidua jokatu dute martitzenean Mojategin (19:30). Mondrako bazkideek ez dute ordaindu behar izango eta 14 urtetik gorakoek, 7 euro; Goiena telebistak zuzenean emango du

Xabier Urzelai ARRASATE

Realak Erregina Kopa irabazi duenetik ez du partidu ofizialik jokatu, baina martitzenean (19:30) Gonzalo Arkonadarenak Mojategiko zelaian izango dira, Alavesen kontra indarrak neurtzen.

Euskal Herria Kopako finale-rako sailkatzeko kanporaketa partidua izango da; beste kanporaketa Athleticcek eta Eibarrek jokatu dute, Galdakaon. Hala, Realeko ordezkarik Garbiñe Etxeberriak nabarmendu du txuri-uridinak gogotsu daudela, eta, kurioz bada ere, Realak eta Alavesek ez dutela sekula elkarren kontra jokatu: "Oso pozik gaude Kopan lortutakoagatik. Martitzeneko partiduari begira, Reala dagokion maila erakustera etorriko da Mojategira. Gure helburua zaleak pozik uztea da, futbol ikuskizun polita eskaintzea".

Alaves, maila bat beherago

Alaves taldearendako erronka polita izango da martitzenekoa,



Nahikari Garcia. REAL SOCIEDAD

jakinda, gainera, Alaves sortu berria den taldea dela -2017an sortu zuten Alaves Gloriosas-: "Gu baino pare bat koska gorago dagoen taldea da Realak, eta badakigu oso zaila izango dela eurak mendean hartzea, baina

dena ematera etorriko gara", adierazi zuen Naike Vargas Alavesko atezainak: "Taldea azkarra gara, eta hor min eman dezakegula uste dut, eta horrekin batera defentsan ere sendotasuna daukagu".

Kike Zurutuza Euskal Herria Kirola Erakunde arduradunak, azkenik, nabarmendu zuen Euskal Herriko talde onenak batu dituztela Kopa txapelketan. Hala, Mojategiko eta Galdakaoko finalerdien ostean, finala Azpeitian jokatu dute. Hain zuzen, Lagun Onak futbol taldea sortu zeneko 75. urteurrena ospatzen dabilta azpeitiarrak.

Partiduari begira, Mondrako bazkideek sarrera doan izango dute eta 14 urtetik gorakoek 7 euro ordaindu beharko dituzte.

Goiena telebistan zuzenean

Partidua zuzenean eskainiko du Goiena telebistak, eta *Goiena.eus*-en ere ikusi ahal izango da, *streaming* bidez.



Asier Garitano, martitzenean, Gasteizen. DEPORTIVOALAVES.COM

Garitano: "Mugarik jarri barik hazten jarraitu behar dugu"

FUTBOLA Bergarako entrenatzaileak ordezkatuko du 'Pitu' Abelardo Alavesen; lana du taldea berregiten

X.U. ARRASATE

Alavesek mailaz igo zenetik hirugarren denboraldia egingo du futbolaren elitean, eta, Abelardok klubean ez jarraitzeko erabakiaren ondoren, gasteiztarrek Asier Garitanoren eskuetan utzi dute proiektuaren gidaritzak. Alaves Europako postuetan egon da denboraldiko zati handi batean, nahiz eta liga amaiera luzea egin zaien arabarrei. Hala, Garitanok erronka handia du aurretik; izan ere, jokalariek asko taldea utziko dute, eta talde sendoa osatzeko ardura izango du bergararrak. "Erronka polita

izango da, baina, aldi berean, nekeza. Izan ere, ez da erraza talde bat lehenengo mailan mantentzea. Taldean aldaketa asko izango dira, normala den moduan; izan ere, utzita zeuden jokalariek asko denboraldi oso ona egin dute eta jatorrizko taldeek euren klubean gurako dituzte. Baina Leganesen ohituta geunden urtero taldea berregitera", esan zuen martitzeneko aurkezpenean.

Realean izan ez zuen aukera izango du Bergarakoak orain Gasteizen: "Ez dago esperientzia txarrik, guztietatik ikasten da zerbait".

<p>berria denda</p> <p>Osatu udaberriko saskia Euskal Herriko produktuekin</p> <p>Eskariak egiteko azken eguna maiatzaren 31</p> <p>Osatu zure saskia!</p> <p>(0034) 943-30 43 45 Berria.eus/berrialaguna/denda/</p> <p>Bidalketa gasteak DOAN</p>	<p>AMEZTOI TXAKOLINDEGIA</p> <p>36€ 6 botelako kutxa</p>	<p>PAGOA GARAGARDO SORTA</p> <ul style="list-style-type: none"> • 3 Stout (beltza) • 3 Red ale (gorria) • 3 Pilsner (horia) • 3 IPA <p>27€ 12 botelako kutxa</p>	<p>SOLAGÜEN ARDOAK</p> <p>2018. Solagüen berazte KARBONIKOA</p> <p>30€ 6 botelako kutxa</p>	<p>PEDRO LUIS KONTSERBAK</p> <p>ZAINZURAK Zainzurak 8-12 urte</p> <p>38€ 6 poto</p>
	<p>ALFAR OLIOA</p> <p>Oliba olio birjina estra 250 ml/100 mlakoa</p> <p>43€ 6 botelako kutxa</p>	<p>LEZAUN ARDO EKOLOGIKOAK</p> <p>2018. urteko Lezaun 0,0 sulfito (2017ko Zainzurak Berraketa - Errota)</p> <p>28€ 6 botelako kutxa</p>	<p>2018. Solagüen ZURIA</p> <p>30€ 6 botelako kutxa</p>	<p>KALABAZA</p> <p>15€ 6 poto</p>
	<p>K5 ARGIAÑO TXAKOLINDEGIA</p> <p>K PILOTA bokolina</p> <p>45€ 6 botelako kutxa</p>	<p>2018. urteko Lezaun Gazaga (Berraketa sorkerako hartu ardo onenaren saria, 2017)</p> <p>40€ 6 botelako kutxa</p>	<p>ITURRI KONTSERBAK</p> <p>ZAINZURAK Zainzurak 8 urte, 13-16 urte</p> <p>24€ 3 poto</p>	

Etapako gogorrena, Bira bailaran erabakitzeke

TXIRRINDULARITZA Bihar, zapatua, iritsiko da Emakumeen Birako azken etapa Oñatira. Lasterkariak 156 kilometroko etapa izango dute aurretik, eta tartean hainbat mendate gainditu beharko dituzte; munduko hogeitasei talde onenak daude proban

Xabier Urzelai ARRASATE

Women's World Tour barruan dago eguaztenaz geroztik Euskal Herrian jokatzeko dabilzan Emakumeen Bira. Horrek esan gura du mundu mailako hogeitasei talde onenak izango direla bihar, zapatua -13:30ean hasita-, Oñatiko irteera puntuan. Eta jakinikoa da, aurrez, behintzat, Mitchelton-Scott taldea dela faboritua, besteak beste, bertan daudelako izazko podiumera igo ziren lehen bi ziklistak: Amanda Spratt eta Annemiek Van Vleuten.

Eider Merinoren neurrikoa

Aurtengo Birak ez du erlojupekorik, eta horrek mesede egiten dio, besteak beste, Movistarreko ziklista Eider Merinori. Balmasedakoak, baina, ez du bere burua faboritoen artean ikusten: "Lasterketan sekulako maila egongo delako, munduko ziklista onenak egongo dira, eta faboritoen artean egoteak ez duela inongo mesederik egiten".

Faboritoen multzoan daude, baita ere, Elisa Longo (Trek-Segafredo), Amy Pieters (Boels Dollmans) eta Asja Paladin (Valcar) eta Soraya Paladin (Ale Cipollini) ahizpak. Eta ordezkari euskaldunen artean, Ziortza Isasi (Eneicat) eta Ane Santesteban (WNT Rotor) dira ziklista



Ziklistak, izazko Aretxabaletako etapan, Untzillara iristen. GOIENA

OÑATIKO ETAPAK IA 2.000 METROKO DESNIBEL POSITIBOA IZANGO DU, ETA 156 KILOMETRO

nabarmenenak, Movistarreko lider Merinorekin batera.

Azken etapa da biharkoa

Egueneko eta egubakoitzeko etapetan gertatutakoa aurreratu ezinda -eguen eguerdian bi-

dali da GOIENA errotatibara-, biharko etapa eskalatzaileendako izango da. 156 kilometro, tartean lau mendate, eta, guztira, ia 2.000 metroko desnibel positiboa.

Lehen etapa, Jolien D'Hoorek

Eguaztenez jokatu zen lehenengo etapa: 101 kilometro, Iurretan hasi eta buka; esprintean erabaki zen, eta Boels Dolmans taldeko Jolien D'Hoore belgikarrik altxatu zituen eskuak. Esan beharra dago faboritua guztiak sartu zirela denbora berean.

Mekalki Aloñak eta Alkideba Ointxe!-k igoera dute jokoan

SASKIBALOIA Arrasatekoek Gasteizen dute lauko finala; Oñatikoek Atletico San Sebastiani irabazi behar diote

X.U. ARRASATE

Denboraldiko txanpa garrantzitsuenan murgilduta dabilza Euskadiko Lehen Mailara igozteko borrokan dabilzan Alkideba Ointxe!-koak eta Bigarren Mailara igo gura duten Mekalki Aloñakoak.

Arrasatekoak bigarren postuan sailkatu dira eta lehenengo sailkatu den Leioa SBT zuzenean igo da. Hala, Arrasatekoak La Salle, Mungia eta Lakua Centro-San Prudencio taldeekin batera izango dira lauko finalean; finalerdian, Alkideba Ointxe!-k kontrario zaila izango du, etxean jokatzeko duen San Prudencio (20:00, Gasteiz). Finala domekan izango da (17:00).

Aloña Mendi finalean dago jada

Mekalki Aloña Mendik, berriz, mailaz igozteko pauso erraldoia eman zuen joan den astean. Fi-



Alkidebakoak taulapean. OINTXE!

nalaurreko benetan zaila zuten oñatiarrek, Donosti Dolphins faboritoen aurka, eta, partidu bikaina burutu ostean, alde politarekin nagusitu ziren Aitor Ugarterenak (57-70). Bihar dute finala, Atletico San Sebastianen kontra.

TXIRRINDULARITZA Danel Casais eta Aimar Erostarbe, podiumean

Danel Casais eta Aimar Erostarbe oñatiarrek Euskal Selektzioarekin izan dira Palafrugellen, kadete mailako Antonio Miguel Ramirezen oroimenezkoan; podiumera igo ziren, bigarren eta hirugarren postuak lortzeagatik. Junior mailan, Ander Blazquez oñatiarra Gipuzkoako Selektzioarekin izan da Frantziako Tour de Gironde.

MENDI LASTERKETAK Ainara Uribarri, Espainiako Selektzioan

Ainara Uribarri promes mailako mendi lasterkari oñatiarra Espainiako Selektzioko kide izango da abuztuan jokatu dute Munduko Skyrunning Txapelketan. Hitzordu hori L'Aquila-n (Italia) izango da, abuztuaren 4tik 6ra. Oñatikoak aurrerapauso handia eman du aurtun, eta gogor egindako lana hasi da emaitzak ematen.

FUTBOLA Nesken topaketa egingo dute zapatuan Agorrosinen


Bergara Kirol Elkarteak antolatuta, nesken futbol topaketa egingo dute zapatuan (11:00) Agorrosinen: "Hitzordua Bergarako eta inguruko neska futbolzaleei zuzenduta dago, emakumezkoen futbol talde batek zelan funtzionatzen duen ikusi gura dutenendako", adierazi du klubak. Klubeko entrenatzaileek gidatuko dute saioa.

PILOTA Herri Arteko itzulerakoa jokatu dute oñatiarrek bihar

Zapatuan (17:00, Zubikoa), Oñatiko pilotariak Herri Arteko Txapelketako itzulerakoa jokatu dute. Aurreikuspenak bete egin ziren joan den astean; txantxikuek bazekiten Altzok talde indartsuak dituela hiru kategorietan, eta kantxan berretsi zuten hori. 3-0koa ekarri zuten Oñatikoek Altzotik; maldan gora dute kanporaketa.

Etapako profila

ITURRIA: EMAKUMEEN BIRA





Martitzenean Arrasate Musikaleko egoitzan egin zuten entsegua. TU LANKIDE

Sinfonia kooperatiboa, Aretxabaletan oraingoan

Aretxabaletera egokitutakoa eta askotariko berrikuntzak dituen Mondragon Taldearen sinfonia kooperatiboaren ikuskizuna eskainiko dute, bihar, zapatua, Ibarra kiroldegian, 19:00etan hasita; sarrerak, aurrez, Arkupe kultura etxean eros daitezke bost eurotan

A. Aranburuzabala ARETXABALETA Oinarrian Amaia antzokian otsailean estreinatu zuten ikuskizuna bada ere, "ezberdina" izango dela dio antolatzaile taldeko Javier Marcosek: "Berrikuntza handienak dira, batetik, sinfonia kooperatiboa osatzen duten zortzi abestiak kantatuko ditugula; hau da, bilduma osoa -Arrasatekoan, lau abesti genituela kontutan hartuta-; eta, bestetik, hiru bideo txertatu ditugula ikuskizunean".

Musika bada ere ikuskizunaren oinarri nagusia, umorea ere osagai garrantzitsua izango dela gaineratu du Marcosek: "*Herri txiki infernu handi* saioaren es-tiloko bideoak egin ditugu, eta

horiek *Industria*, *Omenaldia* eta *Nazioartekotzea* ataletan erakutsiko ditugu. Herriko edo kooperatibako hiru pertsona aukeratu ditugu, eta modu informalean euren testigantzak jaso ditugu bideo bitxi batzuetan".

150 artista taularen gainean

Pili Kaltzada aurkezleak egingo ditu kantuen arteko loturak, eta alboan izango du Xabi Igoa bertsolaria. "Kantu bakoitzak bere aurkezpen propioak izango ditu: aurkezleak egingo duena, batetik, eta Xabi Igoaren bertsoa, bestetik. Ondoren, sinfonia osoa abestuko dugu, eta kantu batzuetan, Jaiki eta Leizarra Musika Eskolako dantzariekin".

Tokian tokiko abesbatzei tokia egiteko asmoa izan dute hasieratik; hori horrela, bihar, Aretxabaleta Abesbatza, Leizarra musika eskolako abesbatza, Arizmendi Ikastolako abesbatza eta Iubilo Bilbao abesbatza izango dira, Arrasate Musikaleko orkestra lagun dutela.

Ekainaren 9an, Oñatin

Irailaren 14an Buesa Arenan egingo duten ekitaldi nagusiaren aurretik, Oñatiko San Migel parrokiaren eskainiko dute ekainaren 9an. Dagoeneko prestaketa lanean ari dira Ganbara Abesbatzetakoak, Oñatz Dantza Taldekoak eta baita herriko bertsolariak eta txistulariak ere.



GOIENA

"Gozamena eta ikasketa ona izan da"

JON SARASUA
BERTSOLARIA

Fernando Velazquezek sortutako Sinfoniaren doinuen hitzak idatzi ditu Sarasuak, kooperatibaren ibilbidearen funtsak eta galderak batuta.

Zelako esperientzia bizi izan duzu proiektuan?

Sinfoniari letra jartzea, niretzat, berria izan da, eta Velazquezekin lan egitea gozamena eta ikasketa izan da. Konexio polita izan dugu bion artean.

Helburua bete du, zure ustez, proiektuak?

Hori esateko goiz da. Obra bera, neurri batean, hor dago, eta hainbeste heldu eta haur kantatzen ikustea bera ederra da.

Biharko emanaldia berezia da zuretzako?

Aretxabaleta istorio honen gune neurgikoetako bat da, eta hori da obra honen gakoa, nahiko benetakoa izatea, geurea, ez interpretazio soil bat.

Emakumeek abestutakoak Seminarixoa entzungai gaur

Mice eta Birkít taldeek kontzertua eskainiko dute, 21:00etan; sarrerak zortzi eurotan izango dira

A. A. BERGARA

Bilboko gasteiztar moduan aurkezten du bere burua Birkít Alonsok. Musika proiektu askotan ibili ondoren, besteak beste, Eorann (pop-noise-rocka) eta Red Carmine (shoegaze-rocka) taldeetan, bakarlari formatuan ari da azkenaldian, eta hala egingo du gaurko Seminarixoko emanaldia ere. Euskaraz eta ingelesez kantatutako abestiak zuzeneko elektrikoan interpretatzen ditu; bere kantutegian indie folk-rocka eta euskal kantagintza uztartzen ditu.

Eskarmentu handiko Eibarko Miren Narbaiza musikariak hartuko du mikrofonoan lekukoa. Luzaroen Napoka Iria taldean aritu ondoren eta gerora beste bide batzuk zabaldua -Perlak, Joseba B. Lenoir, Dual Split...-, Mice, bere proiektu pertsonalea, abiatu zuen. Joseba Baleztena gitarrak-jole ezaguna eta Perlak taldeko Ilargi Agirre lagun dituela, pasarte oso melodikoak eta *gitarreroak* edo distortsio handikoak uztartzen ditu Mice taldeak.

Sarrerak, online eta leihatilan

Zortzi eurotan eros daitezke, [Tickets.kutxabank.eus](https://tickets.kutxabank.eus) atarian edo leihatilan, bestela.

EUSKAL HERRIA KOPAREN FINALERDIA

GOIENA TELEBISTAN, ZUZENEAN

REALA-ALAVES,

MAIATZAREN 28AN, MARTITZENEAN, 19:15ETIK AURRERA

*STREAMING BIDEZ GOIENA.EUS ATARIAN

goiena
Zu hemen zaude.



Arantzazuko artelanei buruz ikasteko ekintzak

'Artea ala ondarea? Arantzazu ikur' izeneko helduentzako bisita gidatua antolatu du Udalak biharko, eta haurrentzako 'Eulate, Argi handi bat' izeneko tailerra eskainiko du Arantzazu Gaur Fundazioak bihar eta ekainaren 15ean; aurrez eman behar da izena

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Herriko curriculum lantzen duen *Hurretik* egitasmoaren baitan, Arantzazuko santutegian bisita gidatua egingo dute bihar, zapatua, 10:00etan hasita. EHUko Arte Ederretako Arte Historiako irakasle eta arte-kritikari Ismael Manterolaren eskutik izango da. "Ordubete inguruko saioa egingo dugu, eta interesa duen edozeinendako izango da, berdín da arteri buruz jakin edo ez", azaldu du Manterolak.

Bisita gidatua doakoa da, baina aurrez izena emateko gomendatu dute, 943 78 34 53 zenbakira deituta.



Arantzazuko basilikan dauden Oteizak egindako apostoluak. 'ARANTZAZU.ORG'

Arantzazu balioan jarri beharra

Hainbat urtetan bide izkinan egon ondoren, ekainean beteko dira 50 urte Jorge Oteizak egin zituen apostoluak santutegiko fatxadari jarri zituztela, eta gertakari horiek ekarriko ditu gogora Manterolak biharko saioan: "Garrantzitsua da Oteizaren proiektua ondo ulertzea eta egon diren zailtasunak eta debekuek kontuan hartzea, garaiko giroa oso ondo ilustratzen duelako. Arantzazu proiektu interesgarria izan zen, eta urteekin interes maila irabaziz doa; hala ere, ez dakit, orokorrean, behar beste ezagutzen den; hortaz, nire lana

jendearen interesa piztea izango da. Eraikinaren kanpoaldean hasiko gara proiektuaren testuingurua azalduz, eta ondoren, elizako elementu batzuk ikusiko ditugu: erretaula, *kamerinoa* edo Amabirjinaren tokia; aukurarik badugu, kriptak ere bai".

Eulateri buruz, haurrentzako

Arantzazu Gaur Fundazioak, Arantzazuko Adiskideak elkar-tearekin elkarlanean, basilikan lan egin zuten artistak eta horien lanak ezagutarazteko lantegiak antolatzen ditu, eta hala egingo

dute bihar eta ekainaren 15ean Xabier Alvarez de Eulate oinarri hartuta. "Haren obra plastikoa buruzko lantegi dinamikoa izango da; Eulate zen modukoa", diote antolatzaileek.

Donostiako Maushaus estudioaren eskutik, eta 6 eta 12 urte bitartekoentzako izango da. Izena eman behar da, info@arantzazugandiaga.com helbidera idatzita edo 943 71 65 75 edo 662 18 13 53 telefonora deituta. Arrakasta handia izaten dute; horren erakusle da biharkoa beteta dagoela dagoeneko.

Sekula baino lan gehiago jaso dituzte Euspot lehiaketan

Maiatzaren 30ean Arkupe kultura etxean 19:00etan egingo dute sari-banaketa; guztiontzako zabalik dago

A. A ARETXABALETAX

Euskarazko 98 iragarki jaso dituzte, eta antolatzaileak pozik daude, kopuruaz gain, kalitatean ere gora egin dutelako: "Tuteratik Bilboraino, hau da, Hego Euskal Herriko txoko askotatik

bidali dizkigute; 18 urtetik beherakoek egindako 62 lan eta helduen atalean, 36. Handia izan da, era berean, sare sozialetan eta publikoaren sariaren bozketako parte hartzea, 2.000 bototik gora jaso ditugu".

Eguenean banatuko dituzte sariak, Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena umoristek aurkeztuko duten ekitaldian: "Hasteko, hoge finalisten lanak eskainiko ditugu; hau da, gazteen kategoriako hamar eta helduen atalean beste horrenbeste; ondoren, bost sariak banatuko ditugu. Guztira, 2.550 euro izango dira aurten. Ekitaldia guztiontzako zabalik dago, eta, era berean, aurtengo spot guztiak ikusi nahi izanez gero, *Euspot.eus* atarian daude ikusgai".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko maiatzeko sariak!



Ebook reader
Parte hartzeko sariaren izena: Ebook



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harromandenda.org
Bidezko merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO: MAIATZAREN 30ERA ARTE

Posta elektronikoa: kluba@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.


Beharrezkoa DPO 151000 eguneko arazoak konponduko dituzte. Garrantzitsua da sariaren izena zuzenean bidaltzea. Irabazlearen izena zuzenean bidaltzea behar da. Datu bilaketaren helburu bakarra denon artean zozketaren gidatzea da. Erabakia argi eta zuzenean ematen da. Erabakia ez da errotatzen. Irabazlearen izena zuzenean bidaltzea behar da. kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

ITURRIETA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntuak aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!

 943 25 05 05  kluba@goiena.eus

 **KLUBA** Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko udalari esker

"*Martin Zabala abenturazalea*" ikuskizunaren sarrerak ditugu.

Arrasate | Amala Antzokia | Ekainaren 1ean | 19:30ean

Elgetako Espaloi Kafe Antzokiari esker

"*EH Sukarra*" kontzerturako sarrerak ditugu.

Elgeta | Espaloi Kafe Antzokian | Ekainaren 1ean | 22:30ean

PARTE HARTZEKO: MAIATZAREN 30ERA ARTE

E-posta: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Beharrezkoa DPO 151000 eguneko arazoak konponduko dituzte. Garrantzitsua da sariaren izena zuzenean bidaltzea. Irabazlearen izena zuzenean bidaltzea behar da. Datu bilaketaren helburu bakarra denon artean zozketaren gidatzea da. Erabakia argi eta zuzenean ematen da. Erabakia ez da errotatzen. Irabazlearen izena zuzenean bidaltzea behar da. kluba@goiena.eus



Puntuak aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...



Bazkidetu orain 2019rako


56 € ordainduta

Deitu: **943 25 05 05**

kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskararen irabazle, denok irabazle!

OROIGARRIA

Alejandra Santamaria Lopez 

Ikastolako gurasoa

2019ko maiatzaren 21ean hil zen.

Gure bihozmina adierazten diegu etxekoei.



Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak.
Leintz bailaran, 2019ko maiatzaren 24an.

OROIGARRIA



 **Arantza Egaña Aguirre** 

2019ko maiatzaren 21ean hil zen, 59 urte zituela.

Azpiazu senideak

Oñatin, 2019ko maiatzaren 24an.

OROIGARRIA

 **Arantza Egaña Aguirre** 

2019ko maiatzaren 21ean hil zen, 59 urte zituela.

Kalezarreko kuadrilla


Oñatin, 2019ko maiatzaren 24an.

OROIGARRIA

Fernando Perez Gomez 


2019ko maiatzaren 22an hil zen, 73 urte zituela.

Betiko kaleko auzo alkateari, esker onez, Aramaio Udalak.



Aramaion, 2019ko maiatzaren 24an.

OROIGARRIA

Petro Olmedo Paunero 

2019ko maiatzaren 22an hil zen, 97 urte zituela.

Irrifartsu, alai eta koloretsu gogoratuko zaittugu beti, amama.

Zure birbilobak: Ane, Nora, Danel eta Haizea.
Aretxabaletan, 2019ko maiatzaren 24an.

OROIGARRIA

Ana Alonso Garate 


Elkar Heziko gurasoa

2019ko maiatzaren 16an hil zen, 56 urte zituela.

Zure indarrak bat egin gintuen, zure bizi-nahiak ametsarazi udaberri gehiagoren esperoan. Ezarian alde egin duzu, zure begien azken xarma oraindik ahaztu ezin dugula. Itzali zaizu kolorea, bizia, baina, gu guztiongan jarraituko du, Ana, zure gertutasunaren beroak. Adio bat baino, gero arte bat,

Elkar Heziko komunitate osoaren izenean.
Oñatin, 2019ko maiatzaren 24an.

ESKER ONA

Fernando Perez Gomez 

2019ko maiatzaren 22an hil zen, 73 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aramaion, 2019ko maiatzaren 24an.

ESKER ONA

 **Juan Jose Garitaonandia Lizarralde** 


2019ko maiatzaren 16an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Beti izango zara gure oroimen eta bihotzean.

Arrasaten, 2019ko maiatzaren 24an.

ESKER ONA

 **Ana Alonso Garate** 

2019ko maiatzaren 16an hil zen, 56 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.

Joan zara, bai, gure ondotik baina ez gure bihotzetik.

Moises, Leire eta Asier.
Oñatin, 2019ko maiatzaren 24an.

ESKER ONA

 **Maritxu Ayastuy Zugasti** 


2019ko maiatzaren 12an hil zen, 90 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, maiatzak 25, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2019ko maiatzaren 24an.

ESKER ONA

Manuel Garitano Alberdi 

2019ko maiatzaren 8an hil zen.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Antzuolan, 2019ko maiatzaren 24an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu




Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguru izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK



7

1. Manchester ezagutzera

Bergarako Helduen Eskolako 23 ikasle eta ingeles irakaslea Manchesterren egon ziren, ikasturte bukaerako bidaiari. Ingelesa praktikatzeko aprobetxatu zuten.

3. Potesera irteera

Pol-Pol taldeko beteranoak Kantabria aldean egon ziren. 76 pertsona joan ziren Potes aldera, eta ederto pasa zuten eguna. Hurrengo, Cazorlara (Jaen) egingo dute.

5. Lehen jaunartzea

Igorrek, Haritzek, Ibaik, Anderrek eta Arantzazuk lehen jaunartzea egin zuten Antzuolako parrokiari maiatzaren 19an. Etxekoekin eta lagunekin ospatu zuten.

2. Ikasle bretoiari bisita

Eskoriatzan eta Aretxabaletan egon dira ikasle gazteak, elkartrukean. Egonaldian, besteak beste, Elixoste elkartean afaldu zuten, familiekin.

4. Omenaldia 87 urtekoei

Muga hori gainditu duten bergararrei omenaldia egin zieten aurreko asteburuan. 50 lagun inguruk jaso zuten oparia Gizarte Etxean egindako dantzaldian.

6. Sagardotegira bazkaltzera

Trauti Hesirik Gabe taldekoak Oiharte sagardotegira joan ziren aurreko domekan, egun-pasa. "Ederto pasa dugu eguna, elkarrekin kontu kontari ibilita".

7. 58 urte ezkontuta

Pedro Agirianok eta Maria Altunak ezkontu zirela 58 urte beteko dituzte maiatzaren 27an. "Zorionak, batez ere, Asierren, Markelen eta Iratiren partetik!".

ZORION AGURRAK



BERGARA
Aratz Domenech Iñarra
Maiatzaren 30ean, 12 urte. Zorionak, maitia. Ze azkar pasetan da denbora; 12 urte, uf... Zaren moduan jarraitu, beti aurrera begira. Disfrutatu eta oso ondo pasatu. Asko maite zaitugu. Gorka, aitaxo eta amatxo.




BERGARA
Manex Arana Garitano
Maiatzaren 29an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Familixako danon partetik.



ARRASATE
Haitz Souto Lasa
Maiatzaren 28an. Zorionak, losokitxo! Lau urte, mutikote! Oso ondo pasatu zure egun berezian eta, batez ere, barre asko egin, txiki! Muxu karrukada bat, etxeko guztion partetik!



ARETXABALETA
Araitx Pagaldai Atxa
Maiatzaren 28an, 7 urte. Zorionak, maitia! Ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat, etxeko danon partetik.



OÑATI
June Urtaza Ronda
Maiatzaren 27an, 8 urte. Etxeko guztien partetik, zorionak eta muxu handi bat. Ondo pasatu eguna, printzesa.



OÑATI
Maialen Sanchez Chapado
Maiatzaren 27an, 12 urte. Zorionak, maitia! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat, danon partetik.



OÑATI
Jonas Galdos Etxeberria
Maiatzaren 26an, 4 urte. Zorionak, *pittittio!* Gure etxeko mutikotxuari, patxo pila bat!



BERGARA
Aritz Leturia Zurutuza
Maiatzaren 26an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako! Patxo erraldoi bat familixaren eta laguntxo danen partetik.




BERGARA
Imanol Unamuno Unamuno
Maiatzaren 26an, 4 urte. Urte askotarako, txapeldun! Familixa danaren partetik, egun ederra pasatu domekan!



OÑATI
Artiom Erostarbe Igartua
Maiatzaren 26an, 12 urte. Zorionak, Artiom! Patxo handi bat danon partetik eta oso ondo pasatu domekan Olabartan!



ARETXABALETA
Naia Gonzalez Seijo
Maiatzaren 26an, 13 urte. Zorionak, Naia. Ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat, etxeko partetik!



BERGARA
Ekain Akizu Bilbao
Maiatzaren 25ean, 6 urte. Zorionak, maitia! Sei urte bete dituzu! Ondo pasatu zure eguna eta halako pozik jarraitu! Patxo handi bat, familiako partetik!



ARETXABALETA
Peio Uribe Coves
Maiatzaren 25ean, 2 urte. Zorionak eta egun ederra pasatu. Patxo handi bat, familiako danon partetik!



ARRASATE
June Leibar Belinchon
Maiatzaren 25ean, 7 urte. Zorionak, June! Etxeko danon partetik. Berezi zure anaia Andde. Ondo pasatu.



ARRASATE
Ane Labayen Marin
Maiatzaren 25ean, 4 urte. Zorionak, printzesa! Jada lau urte! Oso ondo ospatu zure urtebetetze eguna. Muxu potolo bat, familia osoaren partetik!



BERGARA
Maialen Jauregi Elortza
Maiatzaren 25ean, 9 urte. Zorionak, Maialen! Egun ederra izan dadila biharkoa. Ondo-ondo pasatu. Pa, pa eta pa.



ANTZUOLA
Aiantze Irizar Iztueta
Maiatzaren 25ean, 11 urte. Zorionak eta urte askotarako, *bonbon!* Segi horrela, polit hori!



OÑATI
Gari Salazar Guridi
Maiatzaren 24an, 9 urte. Zorionak eta mila patxo, Gari, etxeko danon partetik. Izugarri maite zaitugu, maitte!



BERGARA
Markel eta Garazi Gonzalez
Maiatzaren 24an, 8 urte. Zorionak, bikote! Aurten ere pozez txorutzen zaudete urtebetetzerako. Ondo pasatu eta muxu mordoa, denon partetik.



OÑATI
Alazne Bolinaga Barrena
Maiatzaren 24an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi bat, etxeko danon izenian.



ARETXABALETA
Inge Berridi Errasti
Maiatzaren 23an, 8 urte. Zorionak, Inge, *potxo!* Ederto ospatu eguna eta muxu handi bat, etxeko denon partetik.




ARRASATE
Unai eta Xabier Garcia Moron
Maiatzaren 23an, Unai 12 urte eta 26an, Xabierrek 9 urte. Zorionak, bikote! Segi horren alai eta jator izaten. Oso ondo pasatu zuen egunetan. Muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Hugo Ayala Torres
Maiatzaren 22an, 6 urte. Zorionak, laztana! Egun ederra izan dezazula! Asko maite zaitugu. Patxo bat! Aita eta ama, izeba-osabak eta lehengusu Aimar eta Unai.



DONOSTIA
Maialen Agirre Pinacho
Maiatzaren 22an, 5 urte. Zorionak eta egun ederra pasatu. Arrasateko amama, izeba Hakan eta lehengusina Naia.



ANTZUOLA
Maialen Aranguren Quintana
Maiatzak 22an, 12 urte. Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta ederto ospatu!



OÑATI
Luken Olalde Agiriano
Maiatzaren 21ean, 8 urte. Zorionak, *pitusin!* Oso ondo pasaizu zeure egune eta muxu pila bat, etxeko guztien partetik.



OÑATI
Uxue Beitia Maisterrena
Maiatzaren 21ean, 5 urte. Zorionak, Uxue! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Patxo potolo-potolo bat etxeko partetik!




OÑATI
Liher Errasti Urrate
Maiatzaren 21ean, 10 urte. Zorionak, Liher! Ondo-ondo pasatu zure eguna, txapeldun! Eta muxu handi bat, etxeko danon partetik!



ARRASATE
Unax Gartzia Dorronsoro
Maiatzaren 20an, 10 urte. Zorionak, Unax! Jarraitu horren animoso eta kirolzale. Zorionak etxeko guztion partetik! Shanen muxu potolo bat.



OÑATI
Aimar Hernandez Otxoa-Aizpurua
Maiatzaren 20an, 10 urte. Zorionak, *guapeton!* Ondo pasatu eguna eta muxu potolo bat, etxeko danon partetik. Mua, mua!



BERGARA
Anartz Azula Errexil
Maiatzaren 19an, 10 urte. Zorionak, pirata! Egun oso politta izan zen! Futbola, lagunak, bazkaria, opariak... Muxu bero bat denon partetik!



ESKORITAZA
Aritz Atxaga
Maiatzaren 16an, 29 urte. Zorionak, maitxia! Primeran pasatu eguna eta bikain ospatukou! Patxo bat.



BERGARA
Aimar Osa Jimenez
Maiatzaren 16an, 10 urte. Zorionak, Aimar! Urte askotarako! Primeran pasatu eguna eta besarkada bat guztion partetik! Asko maite zaitugu.



BERGARA
Enara Gisasola Sevillano
Maiatzaren 14an, 9 urte. Zorionak, Enara! Konturatu gabe bederatzu urte! Asko maitte zaitugu. Patxo bat etxeko partetik.



ARRASATE
Uhaitz Apraiz Arabiourrutia
Maiatzaren 14an, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Ederto pasatu urtebetetze ospakizunean. Asko maite zaitugu! Zure familia.



ARRASATE
Paule eta Oihan Ramirez
Paulek maiatzaren 14an, 6 urte eta Oihanek 21ean, 8 urte. Zorionak familiaren eta lagunen partetik.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 24

ELGETA 'Ipuinen ordua'

Elgetako boluntario taldearen eskutik, adinaren arabera, hiru saio. *Liburutegian, 17:00etan.*

OÑATI 'Butterfly' telesaila

Hirugarren atala, Sexualitatearen Astearen baitan. Ostean, transexualitateari buruzko solasaldia. *Topalekuan, 17:00etan.*

ESKORIATZA 'Kantu kantari' ikuskizuna

Ludotekako haurrek egingo dute, zaharren egoitzako egoiliarrendako. *Jose Arana egoitzan, 17:30etan.*

BERGARA Ipuin kontaketa

Lur Kortaren saioa, haurrendako. *Liburutegian, 18:00etan.*

OÑATI 'Philomena' filma

Erretiratuendako. *Lagun Lekun, 18:00etan.*

ARRASATE 'Alto Apure. La Frontera en revolución' dokumentala

Venezuelaren eta Kolonbiaren arteko muga gatazkatsuari buruzko ikus-entzunezkoa. *Gaztetxean, 18:030etan.*

ARRASATE Familien arteko kontzertua

Ikasleen eta euren senitarteko musikarien arteko emanaldia. *Kulturaten, 18:30etan.*

OÑATI Fit-bike berezia

Emakumeen Biraren laugarren etaparen harira. Izen-ematea, kiroldegian. Eguraldi txarra bada, azoka plazan. *Plazako frontoian, 18:30etan.*

BERGARA Mice eta Birkite musikariak

Miren Narbaizaren eta Birkite Alonsoren doinuak ezagutzeko aukera. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoan, 21:00etan.*

OÑATI Korkones eta Plan B taldeak

Punk-rock eta reggaeton doinuak entzuteko aukera. Debalde. *Pako tabernan, 21:00etan.*

ZAPATUA 25

OÑATI Formakuntza saioa

Udaleku irekietako begiraleendako lehen saioa egingo dute. *Gaztelekuan, 09:00etan.*

OÑATI Tradizio espiritualetako testu fundatzaileen berrirakurketa

Joxe Arregik egingo du berba, Agora elkarteak, Ereiten Fundazioak eta Gune elkarteak gonbidatuta. *Elkar Hezin, 09:30etan.*

BERGARA Bergarako Erreal-Zaleen irteera

Errioxan egingo dute egun-pasa, denboraldia bukatzeko. *Geltokian, 10:00etan.*

OÑATI Arte lantegia

Eulate, argi handi bat delakoa egingo dute 6-12 urte artekoendako. *Gandiaga Topagunean, 10:30etan.*

ESKORIATZA Eskoriatza Kirol Elkartearen Eguna

11:00etan, marrazki tailerrak; 12:00etan, trebetasun-jolasak; 13:00etan, patata tortilla lehiaketa; 14:30ean, bazkaria; 16:30ean, areto-futboleko trebetasun-jokoak; 17:30ean, saskibaloiko biko jaurtiketa lehiaketa; 19:00etan, musika eta txuleta erreak; eta 21:30ean, zozketa. *Fernando Eskoriatza plazan.*

OÑATI 'Arte ala ondare? Arantzazu ikur' bisita berezia

Ismael Manterola irakaslea izango da gidaria. Debalde. Aurrez izena eman behar da: 943-78 34 53. *Arantzazun, 10:00etan.*

ARRASATE Umeen danborradako entsegua

Danborrariaren konpainian lekua dago oraindik. Izen-ematea, entsegu egunetan. *Gaztelupen, 11:00etan.*

OÑATI Ibilbide gidatua

*Oñatiko emakumiak erreka*tan lana oinarri hartuta egingo dute ibilaldia Kale Barriaren barrena. Debalde eta irekia. *Foruen plazan, 11:30etan.*

ARRASATE Magia festa

12:00-15:00 eta 17:00-21:00, gertuko magia herriko txokoetan; 12:00-21:00, magia saltokia Herriko Plazan; 18:00etan, Oliver eta Liuba bikotearen saioa; eta 19:00etan, Moonshine Wagon taldea, Herriko Plazan. *Arrasaten, 12:00etan.*

OÑATI Herrixa Kantuan

Txantxiku Ikastolaren eta Jose de Azpiazu musika eskolaren eskutik. *Foruen plazan, 12:30etan.*

ARETXABALETA Txakolin Eguna

Sei upategitako txakolina dastatzeko aukera, Bergarako eta Txantreako erraldoi konpartsek lagunduta. *Mitarte kalean, 12:30etan.*

ELGETA Ozkarbi Eguna

13:00etan, buruhandiak eta aperitiboa; 14:00etako, gaztetxoendako bazkaria; 14:30ean, helduendako bazkaria; 17:00etan, erromeria Junda Jo taldearekin. *Mendizaleen plazan.*

OÑATI Emakumeen Bira

Laugarren etaparen hasiera. Oñatin bukatuko da. *Foruen plazan, 13:30etan.*

BERGARA Droneak pilotatzeko ikastaroa

10-15 urte arteko gazteendako. *Gaztelekuan, 17:00etan.*

ELGETA Bolo txapelketa

Gipuzkoako bolo txapelketako zortzigarren jardunaldia. *Bolatokian, 17:00etan.*

OÑATI Herri Arteko txapelketa

Oñati-Altzo kanporaketaren itzulerako partiduak. *Zubikoan, 17:00etan.*

BERGARA Gipuzkoako Bertso Txapelketa

Kanporaketa aurrekoa. Sarrerak, bost eta zazpi euro. *Seminarixoan, 17:00etan.*

BERGARA Camden Town akademiaren jaialdia

Ikasturtean ikasitakoa erakusteko dantzaldia egingo dute. *Bolu frontoian, 18:00etan.*



IMANOL SORIANO

ARAMAIO Eguzkierripa jaialdia

Desorden, Tributo MCD, Perla (argazkian), Katez, Alta Tension eta Balarrasa taldeek parte hartuko dute. Egun osoko egitarauaren baitan egingo dituzte kontzertuak. Debalde. *Bihar, zapatua, Bizente Goikoetxea plazan. 21:00etan.*

ARETXABALETA 'Humanity at music' sinfonia kooperatiboa

Esperientzia kooperatiboa musikaren bidez kontatuta. Sarrerak, bost euro. *Arkupen, 19:00etan.*

BERGARA Orfeoi Gaztea eta Leioako Gazte Abesbatza

Bakarkako emanaldien ostean, elkarrekin abestuko dute. John Lennon *Imagine* eta Itoizen *Lau teilatu*, hain justu ere. *Mariaren Lagundian, 19:00etan.*

DOMEKA 26

ELGETA Koltzara mendi irteera

Kantsatzeke taldekoekin. *Mendizaleen plazan, 08:00etan.*

OÑATI Arku-tiroketa lehiaketa

Euskal ligako hirugarren jardunaldiari dagokion saioa. *Zozopasen, 09:30etan.*

BERGARA Beart eguna

Taldeko kideen lanak ikusteko eta beste egile batzuenak erosteko azoka. Era berean, omenaldi beroa egingo diote Juan Jose Altunari. *Irala kalean, 11:00etan.*

ESKORIATZA Bigarren eskuko azoka

Denetarik saltzeko eta erosteko aukera. Elkartasun postuan batutakoa Sendabidea elkartearendako izango da. *Fernando Eskoriatza plazan, 11:00etan.*

ARETXABALETA Haur Dantzarien Eguna

Kalejira eta alardea. *Herriko plazan, 11:00etan.*

ASTELEHENA 27

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Foruen plazan, 12:00etan.*

OÑATI 'Iberiar hegazti sarraskijaleak' erakusketa

Ramon Aranbarriaren eta Mario Bregañaren argazkien bilduma ikusgai, hilaren 31ra arte. *Foruen plazan, 12:00etan.*

ESKORIATZA 'Agipase, familia eraikitzen' hitzaldia

gaztelerez. *Kultura etxean, 17:15etan.*

BERGARA 'Nola egin zure bideoak era erraz batean' tailerra

Jaione Carpinteroren eskutik. *Miguel Altunan, 18:00etan.*

OÑATI Bertsolaritza eta ahozkotak

LHko laugarren mailakoek 17:30ean eta DBH-1ekoek 18:30etan. *Santa Anan, 17:30etan eta 18:30etan.*

OÑATI 'Oinarritzko mekanika' ikastaroa

Azken saioa, Paz Carbajosarekin. *Kultura etxean, 18:00etan.*

ARETXABALETA Perkusio emanaldia

Leizarra musika eskolako ikasleen saioa.

Zaraia aretoan, 18:00etan.

ARAMAIO Carmen Becerra gitarra

Kontzertua egingo du Musika Astearen baitan.

Sastiñan, 18:30ean.

MARTITZENA 28**ARRASATE Ibilkeria nordikoari buruzko ikastaroa: hastapena**

Hastapen ikastaroa izango da.

Aurrez eman behar da izena Musakolan.

Kiroldegian, 10:30ean.

ARRASATE Erretzeari uzteko tailerra

Mila Perez eta Bienve Martin erizainen gidatutako tailerra.

Debagoieneko ospitalean, 15:00etan.

BERGARA Ererikoak prebenitzeko tailerra

Izena eman Agorrosinen edo Osasun zentroan.

Agorrosinen, 16:30ean.

OÑATI Bingo saioa

Erretiratuendako.

Lagun Lekun, 17:00etan.

ARRASATE Ibilkeria nordikoari buruzko ikastaroa: hastapena

Hastapen ikastaroa izango da.

Aurrez eman behar da izena.

Kiroldegian, 17:30ean.

ARETXABALETA Emakumeen osasuna kirolean

TAD metodoaren gaineko tailerra, emakumeendako. Debalde.

Kukumikun, 18:00etan.

BERGARA 'Arrakalak' erakusketa

Jone Albenizen bilduma ikusgai, hilaren 26ra arte.

Aroztegin, 18:00etan.

BERGARA Nagusiendako ipuin kontaketa

Maite Frankoren eskutik.

Liburutegian, 19:00etan.

ARRASATE 'Otzi, el hombre de hielo' filma

Felix Randauren pelikula.

Amaia antzokian, 20:30ean.

EGUAZTENA 29**ARETXABALETA Odol ateratzea**

Arabako odol emaleen elkartekoekin.

Durana kalean, 16:45ean.

ESKORIATZA Ludotekaren agur festa

Udaleku irekiak prestatzen hasi aurretik ikasturtea agurtzeko festa egingo dute haurrek, beraiek prestatutako ekintzekin.

Ludotekan, 17:00etan.

ANTZUOLA Odol ateratzea

Deialdi irekia.

Olaran etxean, 17:30ean.

ELGETA 'Zaindu, gure burua zainduaz' hitzaldia

Landuko diren gaiak: gaiaren inguruko gogoeta sustatu, rolak, errespetua, espazioa, berdintasuna, denbora... Kontxi Lopez Soria izango da hizlaria.

Udaletxean, 18:00etan.

BERGARA Eguazteneko azoka

Baserriko eta garaiko produktuak erosteko aukera.

Oxirondon, 18:00etan.

ARAMAIO Zuriñe Hialgoren solasaldia

Hesian taldeko abeslariak berbaldia egingo du, Musika Astearen baitan. Irekia.

Sastiñan, 18:30ean.

ARRASATE Argindarra aurrezteko tailerra

Elektrizitate kontsumoak aztertu, ulertu eta horien jarraipena egiten ikasteko. Debalde. Bigarren saioa, ekainaren 5ean, *Kulturaten, 18:30ean.*

ARRASATE Aiba! mendi martxa: izen-ematea

Ekainaren 9an egingo duten probarako izenak eman daitezke maiatzaren 31ra arte, *Kirolprobak.com* atarian.

Besaideren bulegoan, 19:30ean

BERGARA 'Brokeback mountain' pelikula

Ang Lee-ren pelikula, Heath Ledger eta Jake Gyllenhaal aktoreekin.

Debalde.

Gaztetxean, 21:00etan.

EGUENA 30**ARRASATE Sasoibide irteera**

Biteri plaza-Araba etorbidea-San Josepe-Harrobia-Kurtzetxiki bidea-Ospitalea-Gipuzkoa etorbidea-Biteri plaza ibilaldia egingo dute.

Biteri plazan, 10:00etan.

ELGETA 'Hitzez Pitz' irakurketa solasaldia

Irakurgaiak liburutegian daude eskuragarri.

Liburutegian, 10:30ean.

BERGARA Ererikoak prebenitzeko tailerra

Izena eman Agorrosinen edo Osasun zentroan.

Agorrosinen, 16:30ean.

ARAMAIO Musika eskolakoen emanaldia

Ikasturte bukaera kontzertua, Musika Astearen baitan.

Sastiñan, 16:30ean.

BERGARA Sukaldaritza osasuntsua eta elikapen energetikoa

Silvana Huegun dietistak gidatutako ikastaro teoriko-praktikoa.

Angiozarren, 17:30ean.

OÑATI 'Oñatiko emakumiak errekautan' bisita gidatu

Erakusketan bertan azalpenak emango dituzte, gazteleraz.

Egaña dendan, 17:30ean.

ESKORIATZA 'Teknoadikzioak' hitzaldia

Cristina Isasi psikologoak egingo du berba, gazteleraz.

Kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI 'Ameli eta xirrikuten jostunek' ipuin kontaketa

6 urtetik gorako hurrendako ipuin musikatua izango da. Gonbidapena behar da.

Liburutegian, 18:00etan.

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA****La pequeña suiza**

Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

El parque mágico

Zapatua eta domeka: 17:00.

BERGARA**SEMINARIKOA****La pequeña suiza**

Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Dragon ball

Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA****La Ilorona**

Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

GASTEIZ**BOULEVARD****Aladdin**

Egunero: 17:00,

17:30, 18:00, 19:40, 20:40, 22:30.

Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 21:10, 23:20.
Zapatua eta domeka: 12:15, 13:30, 14:50.

Domeka, astelehena, eguaztena eta eguena: 18:30.

El hijo

Egunero, martitzena izan ezik: 13:25, 16:25, 18:25, 20:30, 22:30, 00:30.
Martitzena: 22:30.

Vitoria, 3 de marzo

Egunero: 17:10, 19:10, 20:10, 21:10, 22:10.
Egubakoitza eta zapatua: 23:10, 00:10.
Zapatua eta domeka: 12:20, 13:10.

Hellboy

Egunero, martitzena izan ezik: 12:20, 16:50, 19:20, 21:50, 00:20.
Martitzena: 16:50, 19:20.

Lo dejo cuando quiera

Egunero: 17:45, 22:15.
Egubakoitza eta zapatua: 00:25.

Casi imposible

Egubakoitza eta zapatua: 23:45.
Domeka, astelehena, eguaztena eta eguena: 21:15.

Mia y el leon blanco

Egunero: 16:00.
Zapatua eta domeka: 12:45.

Dunbo

Egunero: 15:45.
Zapatua eta domeka: 12:55.

Timadoras compulsivas

Egunero: 18:05, 20:05.

La Ilorona

Egunero: 22:05.
Egubakoitza eta zapatua: 00:05.

GORBEIA**Aladdin**

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 12:00, 17:30, 20:00.
Astelehena: 17:30.

egunero: 17:30, 20:00.

Egubakoitza: 19:00, 21:30.
Zapatua: 16:30, 19:00, 21:30.
Domeka: 16:00, 19:00.

Casi imposible

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 17:30, 20:00.

Astelehenetik egunero: 20:00.**Dumbo**

Egubakoitza eta zapatua: 17:30.
Domeka: 12:00, 17:30.

El hijo

Egubakoitza eta zapatua: 17:30.
Domeka: 12:00, 17:30.

La pequeña suiza

Egubakoitza: 18:00, 20:15, 22:15.

Zapatua: 18:50, 20:40, 22:40.
Domeka: 11:45, 18:50, 20:40.

Astelehenetik egunero: 20:00.

KRITIKA**Los hermanos Sisters ★★★★★**

Zuz.: Jacques Audiard. **Herr.:** Xxxx (2000). **Aktoreak:** John C. Reilly, Joaquin Phoenix, Jake Gyllenhaal, Riz Ahmed.

Bidaia zirkulatua**ANTONIO ZABALA**

Hasieran konturatzen ez bagara ere, *Los hermanos Sisters* pelikulan bi anaiaren bidaia zirkulatua kontatzen zaigu. Bidaia hasita dago ikuslea istorioa ezagutzen hasten denerako. Filma aurrera doan neurrian, aurretik gertatutakoa ezagutuko dugu: zer pasa izan zen bidaia horri hasiera emateko, eta iraganak pertsonaiengan duen eragina. Bukaeran pertsonaiak istorioko abiapuntura heltzen dira bidaia katartikoa bukatu ondoren.

Los hermanos Sisters-ek baditu westernetan agertzen diren ezaugarriak. Zaldian egindako bidaia luzeak, tiro eta hildako ugari, urrea lortzeko grina... Hori horrela izanda ere, Audiardek ez dio istorioari tonu epikorik ematen. Tiroketak nahiko modu

nahasian filmatuta daude; izan ere, momentu horien sentsazio kaotikoa azaldu nahi du. Zuzendariak, batez ere, garrantzia ematen die bidaian egoten diren atsedendietan eta egonaldietan sortzen diren elkarrizketei.

Bi anaiak soldata bategatik pertsonak hiltzen dituzten pistolariak dira. Hauek western pelikulen alde basatia adierazten dute. Kultura eta zientzia gehiago duten eta inteligenteagoak bi pertsonaren atzetik doaz. Bi bikoteak elkartzen direnean bizimodu eta pentsamolde desberdinen arteko topaketa gertatzen da: gizarte berri bat sortzearen ideia utopikoak gizakien zikoizkeriarekin eta berekoikiarekin topo egingo du.



AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

Irribarrez

Irribarrea. Barrera iristen ez den irria. Barrearen ataria?

Irribarre egiten duten pertsonak erakargarriak egiten zaizkigu. Gertukoak, sinpatikoak. Irribarrerik egiten ez dutenak, ilunak. Tristreak.

Alabaina, irribarrea ez da beti pozaren adierazle. Beste sentipen batzuk ere ezkuta ditzake. Urduritasuna, beldurra, haserrea. Irribarre mota asko daude. Erdia, osoa. Ironikoa, sarkastikoa. Tristeia, alaia. Lotsagabea, lotsatia.

"Egin irribarre kamerari!". Irribarrea benetakoa izan daiteke ala behartua. Artifiziala. Profiden. Michigango Unibertsitatean egin duten ikerketa baten arabera, antzeztutako irribarreak kaltegarriak izan daitezke: etxera iristean, umore petralagoa ei dute irribarre faltsudunek. *Kalean uso, etxean otso*, dio euskal esaerak.

Benetakoa denean, ordea, irribarrea terapeutikoa da. Bihotzeraino iristen da. Begiak omen dira benetako irribarrearen erakusle: ahoarekin ez ezik begiekin ere irri egitea.

Nolakoak dira hauteskunde kanpainako argazkietako irribarreak? Eta zurea, oraintxe bertan?

BUKATZEKO

Mundua salbatzeko diru bilketa kanpaina, abian

Ingurumenari laguntzeko 'crowdfunding' kanpaina bat jarri du martxan Oñatiko bikote gazte batek. Ingurumenaren alde lan egiten duten erakundeei laguntzeko izango da herritarrek egindako ekarpenekin biltzen duten diru kopuru guztia

Aitor Agiriano OÑATI

Albistegian Notre Dame erre eta ordu gutxiren bueltan katedrala berreskuratzeko diru bilketa kanpaina bat martxan jarri zutela ikusi, denbora gutxian hainbeste diru bildu zutela ere ikusi, eta horrela bururatu zitzaie abiarazi duten *crowdfunding* kanpaina martxan jartzea. "Gizakiaren ondare den katedrala salbatzeko hainbeste jende eta hainbeste diru mugitu bada, nola ez gara, ba, elkartuko mundua salbatzeko?". Hala, kanpaina horiek puri-purian daudela ikusita eta bide hori erabilita esparru zabalago batera iritsiko diren esperantzarekin, ingurumenaren aldeko diru bilketa egitera animatu dira Lide Osinaga eta Gorka Goitia.

Zuzenean ingurumenarekiko *lanik* aurrez egin ez badute ere, beti egon dira gaiarekiko kontzientziatuta eta mundua salbatzeko guztiaren beharra dagoela uste dute: "Beti izan dugu gaiarekiko interesa, eta, guraso garenetik, are gehiago arduratzen gaituen gai bat da. Zein mundu utzi nahi diegu gure ondorengoei? Etxean gauzak ahalik eta ondoen egiten saiatzen gara; etxeko energia berdea dela ziurtatzen



Lide Osinaga, tabletan *crowdfunding* orria erakusten. MAIALEN REGUEIRO

dugu Goienar-i esker, dena birziklatzen dugu, plastiko ahalik eta gutxien erabiltzen dugu, erosten ditugun produktuak zaintzen ditugu eta ura eta energia ere aurrezten saiatzen gara, besteak beste".

Alez ale, laguntza handia

Edonork har dezake parte kanpaina horretan. Euro bat, hamar, ehun... bakoitzak nahi duen ekarpena egiteko aukera izango du <https://www.godfundme.com/millones-para-salvar-el-planeta>

helbidean sartuta. Horrez gain, herritarrek ere kanpainaren nondik norakoa elkarbanatzea garrantzitsua da, euren ustez: "Guztiaren beharra dago mundua salbatzeko, eta gure mezua zabaldu dadin nahi dugu".

Momentuz, ez diote diru bilketari epemugarik jarri, eta ahalik eta diru gehien batzea dute helburu. Egitasmoa martxa hartzen hasi besterik ez da egin eta jendeak nola erantzuten duen ikusi nahi dute lehendabizi. Dena den, Parisko Notre Dame katedrala berreskuratzeko lortu den zifra bera erabili dute eslogan moduan: 1.000 milioi euro: "Hori oso zenbaki potoloa da; ondo legoke hori eta gehiago lortzea... baina ez da batere erraza. Guretzat, baina, 20.000 euro lortuko bagenituzke, asko izango litzateke. Apurka-apurka ahalik eta gehien lortu nahi dugu".

Ingurumenaren alde lan egiten duen erakunde bati emango diote herritarrek egindako ekarpen guztia. Ideia bakar bati baino gehiago, bide ezberdinak jorratzen dituen erakunde batekin lan egin nahiko lukete, zehazki: klima aldaketa, ozeanoetako plastikoa, energia berri-erakargarriak, animalien desagertzea...

Hala, herritarrak euren aletxoak jar dezaten animatu nahi dituzte: "Mila pertsonak euro bateko ekarpena eginez gero, 1.000 euro lortuko genituzke. Norbanakoa-arentzat huskeria dena pilatuz gero, asko da! Guztion laguntza behar dugu, hau guztion ardurua da eta denok elkarrekin handia den zerbait lor dezakegu", dio diru bilketa martxan jarri duen Osinagak.

AURTEN, 4.000 ORDUTIK GORA
EMANGO DITUZU PANTAILA BERTI

SCREEN POLLUTION

ZATOZ ETA BABESTU ITZAZU ZURE BEGIAK

erabil ditzagun pantailak zentzuz

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS

lehen zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com